



EMAKUMEEN PROSTITUZIOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2007 Abendua

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, egin du ikerketa lan hau, ardatz gisa Euskal Autonomia Erkidegoan prostituzioan aritzen diren emakumeak hartuta. Lanaren helburua 2002an *Emakume prostituzioa EAEn* txostenean talde horren inguruan bildutako datuak eguneratzea izan da, geroztik sektoreak izan duen bilakabidearen joerak ezagutzeko.

Ikerketa lan zabal eta konplexua izan da honakoa; izan ere, prostituzioa ezkutatuta dago gizartean eta ia ez da ezagutu ere egiten. Azken batean, generoen arteko desberdintasunaren isla da hori.

Ikerketa emakumezkoen prostituzioa aztertzeraz mugatu da, horiek osatzen baitute zatirik zabalena. Alde batera utzi ditugu bestelako prostituzioak (gizonezkoena, haurrena...). Kualitate Lantaldea enpresak egin du ikerlana, 2007ko bigarren seihilekoan.

Txostenak hiru atal ditu:

- 1. zatia: Prostituzioaren mapa sektoriala EAEn.

Atal honek EAEn prostituzioan ari diren emakumezkoen kuantifikazioa eta tasunak ahalik eta xehetasun handienekin ezagutarazi nahi ditu. Hala, jarduteko esparruak argi eta garbi bereizi ditu, eta aurreko datuek izaniko bilakaera aztertu du.

- 2. zatia: EAEn prostituzioan diharduten emakumeen bizipenen mundua.

Txostenaren bigarren zatiak, analisi kualitatiboa aintzat hartuta, sektore honen gainean lortutako zenbakizko datu ugariak osatu eta kokatu ditu. Prostituzioan diharduten emakumeen beraien ahotsa entzun daiteke, beren bizipenak adierazten dituztela, sektorearen errealitatea eta aldaketak hobeto uler ditzagun.

- 3. zatia: Parte hartzen duten eragileak.

Txostenaren azken zatiak sektore honetako emakumeen bizi baldintzak neurri batean edo bestean hobetzearen alde diharduten eragileak zehaztu ditu. Hala, eragile horien proposamenak bildu eta eguneratu ditu, prostituzioan diharduten emakumeen egoera hobetzeko hainbat esparru definitze aldera.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkie ikerketa hau egin ahal izateko beren ezagutzak eta iritzia ematen parte hartu duten pertsona eta eragile guztiei. Haien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen lan hau egitea. Mila esker, halaber, egunero-egunero bizimodu autonomoagoaren bila dabiltzan emakumeei, beren jardunak oraindik ere existitzen diren desberdintasunetatik datozen bidegabekeriarik krudelenen aurrean ipintzen baikaitu.

PROSTITUZIOAREN MAPA SEKTORIALA EAE-N

1. PROSTITUZIOAREN MAPA SEKTORIALA EAE-N

1.1. ERABILITAKO METODOLOGIA

Ikerlanaren¹ lehen fasea EAEko emakumeen prostituzioari buruzko 2002ko mapa sektoriala eguneratzean eta optimizatzean datza. Fase hori aurrera eramateko, ezinbestekoa izan zaigu datuak eskuratzeko hainbat iturritara eta teknikataraz jotzea, zaila baita EAEn prostituzioan diharduten emakumeen taldea kuantifikatzea, tipologiatan banatzea eta haien ezaugarriak finkatzea.

EAEko prostituzioaren mapa sektoriala eguneratzeko erabilitako metodologia xehetasunez azalduko dugu ondoren.

- Sektorearen bilakaeraren giltzarriak zehazteko eta bildu beharreko informazioa kokatzeko, honako ekintza hauek eraman ditugu aurrera:
 - Dokumentazioa eta *on/off line benchmarking*a, sektoreak azken urteetan izandako bilakaerari buruzko datu esanguratsuenak biltzeko (prostituzioan diharduten emakumeen profilak, jarduera esparruak, araudiak, esku hartzeko estrategiak eta abar). Hala, bigarren mailako informazio iturriak erabili ditugu, bibliografia, dokumentazioaren miaketa Interneten, egindako bestelako ikerlanak, txostenak eta abar.

¹ Ikerlan honek EAEko emakumeen prostituzioa du ardatz bakar, 2002an egindakoak bezala.

- 8 elkarrizketa ireki eta sakon egin dizkiegu lehentasunezko informazio iturriei, gai irekien gidoi batetik abiatuta, sektorearen egoera eta bilakaera hobeto kokatu ahal izateko:
 - 2 elkarrizketa berriaz prostituzioan diharduten pertsonekin lan egiten duten elkarteei.
 - 3 elkarrizketa hiru Lurralde Historikoen hiriburuetakako (Gasteiz, Bilbo eta Donostia) udaltzainen ordezkariari.
 - 2 elkarrizketa Ertzaintzaren ordezkariari
 - 1 Elkarrizketa ANELARI, Harremanak Izateko Lokaletako Enpresarien Elkarte Nazionalari.

- EAEn prostituzioan diharduten emakumeen unibertsoa kuantifikatzeko, 2002. urtean erabilitako metodologiari berari jarraitu diogu; horrek datuak alderatu ahal izateko eta bilakaera aztertzei aukera bermatu digu.

- Kalean eta klubetan prostituzioan diharduten emakumeen kopuruari eta beren ezaugarri sozio-demografiko nagusiei buruzko datuak eguneratzeko:
 - 22 elkarrizketa ireki eta sakon egin dizkiegu, gidoi erdiegituratu batetik abiatuta, prostituzioan diharduten emakumeekin modu bateko zein besteko erlazioa duten elkarteei.
 - 45 telefono-elkarrizketa izan ditugu, galdetegi erdiegituratu batetik abiatuta, EAEko udaltzainen zenbait komisariatako ordezkariarekin.

- Pisuetan prostituzioan diharduten emakumeen kopuruari eta beren ezaugarri sozio-demografiko nagusiei buruzko datuak eguneratzeko:

- Prentsan eta Interneten iragarritako telefonoen datu-base/errola egin dugu, eta horri esker harremanetarako 532 telefonok osatutako sarea aztertu dugu hiru Lurralde Historikoetan.
- 76 pisutara egin ditugu deiak, bezeroaren rola antzetzuz. Deien helburua pisuen eta horietan prostituzioan diharduten emakumeen unibertso erreala zenbatestea eta pisuen ezaugarri nagusiei buruzko informazioa lortzea izan da (pisuen unibertsoa erreala zenbatesteko, pisu errepikatuetara edo dagoeneko kontaktatuetara bidali gaituzten telefono zenbakien proportziotik abiatu gara).
- Hala, kontuan izanik EAEn gisa horretako 211 pisu inguru daudela, lortu ditugun datu orokorren akatsa $e = \pm 9\%$ koa da, eta horien konfiantza $\% 95,5$ koa ($p=q=0,5$).

Bildu dugun informazioaren bidez, nahiko mapa zehatza osatu dugu EAEko prostituzioaren inguruan. Dena den, ez dugu ahaztu behar aztergai honek iluntasuna eta datuak lortzeko iturri estandarizatuen gabezia dituela ezaugarri nagusi. Txosten honek, gainera, sektoreak 2002. urteaz geroztik izandako bilakaera aztertu du, hain zuzen ere urte hartan egin baitzen prostituzioari hurbildu zitzaion lehen lana.

Hala eta guztiz ere, ezinezkoa izan zaigu interes handiko zenbait kontu aztertzea; esate baterako, *standing* handiko prostituzioa eta prostituzioa jarduera osagarri zein bigarren lan gisa. Beraz, hurrengo ikerlanen erronka horiek aztertzea izango da.

1.2. PROSTITUZIO KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA ETA JARDUERA ESPARRUAK

Prostituzioa, banaka gauzatzen den jarduera izanik, eraginak hainbat esparrutan eta mailatan dituen fenomeno soziala da. Hitzaren jatorri etimologikoak berak dimentsio publikoa eta pribatua bateratzen ditu (latinezko *prostituere* hitzetik dator, eta horren esanahia saltzeko erakusgai jartzea da); hots, presentziaren zein eskaintzaren dimentsio publikoa eta kontratazioaren zein zerbitzuen erosketaren dimentsio pribatua.

Presentzia publiko eta soziala islatzen dute kaleko prostituzioak, Amsterdameko Auzo Gorriko erakusleihoek, eta klubetako edo prentsako iragarkietako ikonografiak; dimentsio pribatua, berriz, hirugarren pertsona batekin lotzen da, gehien-gehienetan gizonezkoa izaten den bezeroarekin.

Zailtasunak sortzen dira prostituzio kontzeptua definitzeko garaian; ez kontzeptuaren esanahia mugatzeko orduan bakarrik, baizik eta definizioari askotan lotuta izaten dituen konnotazioak kentzean ere. Britainia Handiko Entziklopediak, adibidez, honela definitzen du prostituzioa: «Emakumeak, ohiki edo noizean behin, diruaren edo ondasunen baten truke bere gorputza sexu harremanetarako eskaintzean datzan jarduera». Definizio horren arabera, emakumeen jarduera baino ez da prostituzioa. Hori alde batera utzita, RAEk (Real Academia Española) hitz horrentzat ematen duen definizioak ez ditu jasotzen aurrekoaren zenbait ñabardura; izan ere, prostituzioa zera da

RAEren esanetan: «Besteekin sexu harremanak diruaren truke izaten dituztenen jarduera».

Gaur egun, hiru esparru edo gune berezitan gauzatzen da prostituzioa: kalean, klubetan eta pisuetan. Horien arteko bakoitzak berariazko ezaugarriak ditu. Ondoren, hiru esparru horiek EAEn izandako bilakaeraren elementu nabarmenenak adieraziko ditugu.

KALEKO PROSTITUZIOA

Mota honetako prostituzioan, kalean bertan egiten dira bai eskaintza, bai bezeroaren eta prostituzioan diharduen emakumearen arteko negoziazioa. Zerbitzua, berriz, gune publiko batean (bezeroaren autoan, parke batean edo antzeko leku «diskretuetan») edota alokatutako gela batean zein antzeko leku batean ematen da.

Jarduera mota honek aldaketa garrantzitsuak izan ditu. Hasieran EAEn kaleko prostituzioan ziharduten pertsona gehienak probintzia mugakideetatik bazetozen ere, 80ko hamarkadan heroina bat-batean sartu zenean, drogaren mendeko emakumearen profila agertu zen. Emakume drogazaleek droga erosteko dirua lortzearen ziharduten, nagusiki, prostituzioan. Egoera berri horren ondorioz, prezioak jaitsi egin ziren, eta ordura arte tradiziozko prostituzio tokiak zirenetako baldintzak narriatu.

Gero, pixkanaka behera egin zuen kaleko prostituzioak, igoera puntualen bat izan zuen arren. Gaur egun, gune publikoan egindako prostituzioa murrizteko joera da nagusi.

KLUBETAKO PROSTITUZIOA

Klubak leku itxiak dira, beren ezaugarrien eta kategoriaren arabera zenbait motatako zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Ostalaritzak berezkoak dituen zerbitzuez gain, klubek sexu zerbitzuak hitzartzen eta ematen dituzte, baita bestelako zerbitzuak ere; esate baterako, *showak*, *stripteaseak* eta abar.

Orokorrean, tamainaren aldetik txikiak diren klubak ixteko joera dago, eta zenbait tokitan klub berriak udalerriaren kanpoaldean kokatzeko joera nabari da. Dirudienez, klubak sektorean esperientzia duten pertsona gutxi batzuen eskutan daude, eta zaila da esparru horretakoak ez diren eragileak sektorean sartzea.

Inoiz edo behin liskarrik sortzen den arren, badirudi lokaletako jabeen arteko zenbait akordio informal ere badaudela. Akordio horiek autoerregulaziorako arauak sortzeko joera dute, jabeen interesak babesteko (klubaren arteko lehia, neskek aurreko klubean egindako zorra errespetatzea...).

EAEko klubak, oro har, tamaina ertainekoak dira eta gehienez ere 40 emakume dituzte. Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan dauden lokal handietatik urrun daude, beraz.

PISUETAKO PROSTITUZIOA

Azterketa honi dagokionez, pisua edonolako espazio pribatua da, esate baterako txaletak edo etxeak. Pisuek hainbat motatako funtzionamendua eta osaera dituzte (24 orduz irekita dauden pisuak, lagunen pisuak, *madamea* duten pisuak, emakume biologikoen zerbitzuak eskaintzen dituzten pisuak, emakume biologikoak eta transexualak bateratzen dituztenak...), baita zenbait kategoria ere.

Pisuen kopurua dezente handitu da azkenaldian, prostituzioan jarduteko espazio pribatu diren aldetik. Pisu gehienak hiriburuetan dauden arren, nabarmentzekoa da mugaren ondoan dagoen Irun udalerrian izan duten gorakada.

Emakume hegoamerikarrak dira nagusi pisuetan. Horrez gain, pisuetan nabari da gehien emakume transexualen (bai Estatukoen, bai hegoamerikarren) eta tokiko emakume biologikoen presentzia.

Funtsean bi faktorek azaltzen dute pisuen gorakada: pisu bat martxan jartzeko dagoen erraztasuna (bai modu autonomoan, bai *madame* batek edo antzeko norbaitek zuzenduta), eta toki horiek bezeroei ematen dieten pribatutasuna eta diskrezioa.

1.3. SEKTOREAK AZKEN URTEETAN IZANDAKO BILAKAERAREN GILTZARRIAK

Ondoren, azken 5 urteetan izandako bilakaeraren giltzarriak aztertuko ditugu, baita EAEko prostituzioaren gaur egungo egoeraren ezaugarri nagusiak eta Espainiako Estatuari dagozkion elementu garrantzitsu batzuk ere.

MANTENDU EGITEN DA PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEAK GERO ETA HEIN HANDIAGOAN ATZERRITARRAK IZATEKO JOERA

90eko hamarkadan, etorkinen etorrerarekin (Hego Ameriketakoak eta Afrikakoak batez ere), aldaketa sozialak gertatzen hasi ziren, bai Estatuan, baita, hein txikiagoan, EAEn ere. Migrazio mugimendu horren bidez, emakume asko iritsi ziren, eta ondorioz pixkanaka aldatzen hasi zen prostituzioan ziharduten emakumeen profila. Horrela, atzeritik etorritako emakumeek hartu zuten prostituzioan ziharduten tokiko emakumeen lekua. Gaur egun, prostituzioan diharduten pertsonen artean, ez dira asko tokiko emakumeak. Gehienbat pisuetan ematen dute zerbitzua eta estatus ertaina/altua izaten dute, eskaintza urriaren ondorioz.

Guztiz kontrastatutako daturik ez daukagun arren, EAEn prostituzioan diharduten emakumeen % 85-90² inguru atzerritarrak dira, prostituzioan

² Bizkaiaren kasuan, Askabide-k genero indarkeriaren eta prostituzioaren inguruan egindako ikerlanaren arabera, prostituzioan diharduten pertsonen % 14,5 bakarrik da jatorriz Espainiako Estaturikoa. Kontuan hartu behar da ikerlanak prostituzioan diharduten pertsona guztiak aztertu zituela, ez emakumeak bakarrik.

diharduten pertonekin zuzenean lan egiten duten elkarteet
zenbatespenen arabera.

Jatorriari dagokionez, emakume hegoamerikarrak dira gehienak.
Ekialdeko Europatik datozen emakumeak gero eta gehiago dira, baita
Afrika azpisahararretik etorritako emakumeak ere (azken horiek kalean
dihardute, nagusiki, prostituzioan).

Aipatutako «atzeritartzearen» ondorioz, aipagarria da egunkarietako
harremanetarako iragarkiak ugaritzearekin batera bertakotasuna
azpimarratzen duten eskaintzak agertzen hasi izana (euskal jatorria, edo
estatuko beste tokietako jatorria) eta, hein txikiagoan, hizkuntza ere bai
(euskara).

JARDUERA PRIBATIZATZEKO JOERA NABARMENA DAGO

Prostituzio jarduera pribatizatzeko joera (hots, sozialki «ikusezin»
bilakatzekoa) oso argi ikusten da pisuetan izaniko hazkundearen bidez.

Pisuek diskrezioa ematen dute, horietan babestuagoa gelditzen baita
pertsonek eta jardueraren anonimatua. Ondorioz, pisuek zuhurtasunez
jokatu ohi dute bezeroekin eta, gehienetan, ez diete bezeroei pisuaren
helbide zehatza ematen, haiekin telefonoz bigarren aldiz hitz egiten
duten arte; hots, bezeroa pisutik gertu dagoen arte.

Pisuen sorta oso zabala denez, ezinezkoa da funtzionatzeko eta zerbitzuak hitzartzeko patroia bakar bat definitzea. Hala ere, pisu guztien ezaugarri nagusiak pribatutasuna eta diskrezioa direla esan genezake.

GERO ETA EMAKUME TRANSEXUAL ETA TRABESTI GEHIAGO IKUSTEN DIRA

Historian, beti izan da trabestirik eta transexualik prostituzioan, baina esparru ezkutuenetan. Gutxi batzuek kalean eta klub txikietan jarduten duten arren (klubetan aritu izan dira tradizionalki), gaur egun pisuetan dihardute gehienek. Talde horrek, gaur egun, eskari handia duela edo, behintzat, haien sexu-zerbitzuen eskaintza bistaratuagoa dagoela ondorioztatu dugu harremanetarako iragarkietatik eta pisuetan diharduten emakume biologikoekin izandako elkarriketetatik.

HARREMANAK IZATEKO KLUBETAKO ENPRESARIAK ANTOLATZEN HASI DIRA ESTATUAN

Harremanak izateko Lokalen Enpresarien Elkarte Nazionala (ANELA) 2001ean sortu zen. Klubetako enpresariak elkartzen dituen elkarte bakarra da Estatuan eta, berak eskainitako datuen arabera, 200 kide inguru ditu; horietako bat EAEn. Horrez gain, Katalunian ACECA eta Madrilan CATTELEIA elkarteak ere badaude, euren inguruneetako enpresariak biltzen.

ANELAko kide izateko, honako hiru oinarritzko baldintza hauek bete behar dituzte lokaletako enpresariak: drogarik ez, adingaberik ez eta

behartutako emakumerik ez. ANELAren iritziz, gizarteak naturaltasunez onartzen du prostituzioa; horregatik, prostituzioa normalizatzearen alde dago. Elkarrearen helburua «sektorea normalizatzea eta arautzea da, lokaletan prostituzioa publikoki gauzatu ahal izateko, enpresariak zer esparruri lotu behar zaien jakin dezaten eta, hala, lanarekin, osasunarekin, zergekin eta abarrekin erlazionatutako alderdiak bete ditzaten».

Bestalde, ANELAren ustez, kalea eta pisuak ez dira prostituzioan jarduteko toki egokienak. Elkarreak prostituzioa legeztatzearen alde dihardu, eta, parte hartzen duten alderdien adostasunarekin, berariazko estatutua sortu nahi du prostituzioan dihardutenentzat, langile autonomo gisa. ANELAko ordezkarien hitzetan, klubetan prostituzioan diharduten emakumeak «andereñoak dira, klubetan bezero gisa daudenak. Bertako gelak alokatzen eta klubak emandako zerbitzuak erabiltzen dituzte».

ZENBAIT PAUSO EMATEN ARI DIRA, TXIKIAK BAINA, PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN TALDEAK ANTOLATZEKO ETA ALDARRIKATZEKO.

Bai Alemanian, bai Holandan, prostituzioa lan jarduera gisa erregulatuta dago, eta prostituzioan diharduten pertsonen osatutako erakunde sindikalak ere badaude. Alemaniako Hydra eta Holandako De Rode Draad (Hari Gorria) erakundeak adibideen arteko bi dira. Espainian horrelako elkarreak osatzeko saiakuntza batzuk egin diren arren, arrakasta txikia izan dute. Prostituzioan diharduten pertsonen laguntzeko elkarreak zabaltzen dituzte, nolabait, taldearen aldarrikapenak. Elkarre

horietan, prostituzioan diharduten pertsonak eta beren aldarrikapenen aldeko aktibistak biltzen dira.

Estatuan, zenbait elkarte daude prostituzioan diharduten pertsonekin lan egiten. Elkarteen planteamenduak kontrajarriak dira batzuetan; izan ere, batzuk asistentziazkoak dira, edo gizarte mailakoak, eta beste batzuek, berriz, politika publikoei buruzko ideologiak hartzen dituzte barnean.

Madrilgo Erkidegoan, HETAIRA aipa genezake prostituzioan diharduten pertsonen eskubideak defendatzen eta baldintzak hobetzen aritzen diren elkarteen artean. AMEP (Prostituzioan Diharduten Emakumeen Elkartea) ere ildo horretan dago; Andaluziako Emakume Aurrerakoien Federazioarekin eta Kataluniako Genera y Licitekin elkartuta dago.

APRAMPeK (Prostituitutako Emakumeen Prebentziorako, Gizarteratzerako eta Arretarako Elkartea) oso bestelako pentsaera du, eta ikuspegi abolizionistatik esku hartzen du. Bestalde, Estatuan Prostituzioaren Abolizioaren Aldeko Emakumeen Erakundearen Estatu Mailako Plataforma (PAP) dago, eta zenbait esparrutako erakundeak hartzen ditu barnean.

Gainera, 2006an Sexu Langileen Eskubideen Aldeko Estatuko Plataforma sortu zuten, hein handian Bartzelonan eta Madrilen promulgatutako araudiei erantzuna emateko. Aldarrikapen nagusi guztiek honako premisa hau dute abiapuntu: «Gure herrialdean prostituzioan jardutea ez da delitu, baina, paradoxa izan arren, prostituzioan diharduten pertsonen eskubideak ez daude onartuta». Aldarrikapen horiek honako zerrenda honetan daude adierazita:

- Bai kalean, bai lokal itxietan prostituzioan diharduten pertsonen eskubideak bermatzea; bereziki, emigratzeko, askatasunez mugitzeko eta nork bere negozioak ezartzeko eskubideak.
- Onartzen diren arau guztietan, sexu-langileen boza aintzakotzat hartzea.
- Luxenburgoko Auzitegiak 2001ean emandako epaiak planteatu zuen bezala, prostituzioa legezko jarduera ekonomikoa dela onartzea. Espainian, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiak eman zuen lehenengoz harremanak izateko lokal baten jabea bertan prostituzioan ziharduten emakumeei (atzerritarrak ia guztiak) Gizarte Segurantzaren alta ematera («harremanak izateko lokaleko zerbitzari» kategorian) behartu zuen epaia, 2004an. Gizarte Segurantzaren halako kategoriarik ez dagoenez, Auzitegi Gorenaren irizpenaren zain gaude.
- Derrigorrezko osasun kontrolik ez ezartzea, eraginkorrak ez izateaz gain, laidoztatu egiten dituztelako prostituzioan diharduten emakumeak.
- Prostituzioan jarduteko gune publikoak sortzea (Holandako auzo gorrien antzekoak).
- Mafiari eraginkortasunez aurre egitea, batez ere salaketaren bat jarri duten emakumeak babestuz.
- Prostituzioa borondatez utzi nahi dutenei enplegu-alternatiba errealek eta eraginkorrak eskaintzeko baliabideak aurreikustea.
- Prostituten duintasuna eta erabakitzeko gaitasuna aitortzea eta errespetatzea, eta, hortaz, Estatuko zenbait udalerritan (Madril, Bartzelona...) garatutako araudiak baztertzea, neurri horiek, eskaria

murritzaz gain, tratu azkarrak eta klandestinoak errazten baitituzte eta, ondorioz, prostituzioan diharduten emakumeen lan baldintzak okerragotzen.

PROSTITUZIOA LEGEZKOTASUNETIK KANPO DAGO ORAINDIK ERE

Estatuko araudiaren arabera, 1978ko Espainiako Konstituzioa promulgatu zenez geroztik, prostituzioa ez da legez zigortzeko moduko egintza. Aipatutako penalizazio-ezaz haraindi, ez dago, Zigor Kodeak bildutako zenbait kasuistika zehatzez gain, Estatuko ordenamendu juridikoan alde horretatik ezer adierazten duen araurik edo legerik. 1996an Zigor Kode berria indarrean sartu ondoren, prostituzioarekin erlazionatutako gaiei dagokien atala *sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak* deritzon VIII. Tituluan dago bilduta, zehazki V. kapituluan, *Prostituzioaren eta adingabekoak galbideratzearen esparruetako delituak* izenburupean. Titulu horren barnean, prostituzioa zuzenean aipatzen duten bi artikulua daude: 187 eta 188 artikulua, hain zuzen. Bi artikuluek adingabekoak edo ezgaiak prostituzioan jardutea zigortzen dute, baita haiek prostituzioan jardun dezaten adinez nagusi diren hirugarrenak hertsatzea ere. Ondoren, 2003an egindako erreforma baten ondorioz, zabaldu egin ziren delitu tipifikatuak; hala, prostituzio jarduerari etekina ateratzen dion edonor ere hartu zuen barnean, prostituzioa borondatezkoa izan arren (azken zehaztapena proxenetismoari dagokio).

EAEEn, Ertzaintzak eta Polizia Nazionalek izan ohi dute aurrez aipatutako delituak jazartzeko ardura.

Ertzaintzak berak emandako datuen arabera, 2002-2006 aldian prostituzioarekin erlazionatutako arau-hauste penalen kopurua igo egin zen arren, 32 baino ez ziren izan; hots, Ertzaintzak hautemandako arau-hauste penal guztien milako 0,10.

1. taula. Ertzaintzak prostituzioarekin erlazionatuta hautemandako arau-hauste penalak. 2002-2006 aldia

	URTEA					
JAZOERA MOTA	2002	2003	2004	2005	2006	GUZTIRA
SEXU ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK	8	7	8	6	3	32
ADINGABEEN PROSTITUZIOA	4	2	3	2	1	12
EZINDUEN PROSTITUZIOA	-	-	1	-	2	3
HELDUEN PROSTITUZIOA	2	1	4	4	-	11
PERTSONEN TRAFIKOA	2	4	-	-	-	6

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Bizkaian jazo ziren gertaera gehienak (23). Gipuzkoan 7 izan ziren, eta Araban 2. Lurraldeetan gehiago sakonduz, delitu gehienak hiriburuetan gertatu zirela ikusi genuen, Bilbon 15, Donostian 4 eta Gasteizen 2

gertatu baitziren. Aipatutako arau hauste penalen ondorioz, 15 pertsona atxilotu zituzten salatutako kasuekin erlazionatuta.

2. taula. Ertzaintzak prostituzioarekin lotuta egindako atxiloketak. 2002-2006 aldia

	URTEA					
JAZOERA MOTA	2002	2003	2004	2005	2006	GUZTIRA
SEXU ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK	6	5	1	2	1	15
ADINGABEEN PROSTITUZIOA	1	1	-	1	1	4
HELDUEN PROSTITUZIOA	5	-	1	1	-	7
PERTSONEN TRAFIKOA	-	4	-	-	-	4

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Polizia nazionalari dagokionez, prostituzioarekin erlazionatutako delituak jazartzeko funtzioez gain, atzerritarren inguruko eskumena ere badu; beraz, bere esku-hartzeak klubetara zuzentzen dira nagusiki, bi arloak bateratzen baitituzte.

Udaltzainek esparru horretan duten zeregina, bistako deliturik egon ezean, zaintzazkoa izan ohi da gehienetan, eta hiritarrek edo gizarteak hala eskatuz gero (gehienetan, zarataren edo desordenaren ondorioz), baita erreaktiboa ere. Egoera horiek lege-hauste administratibo gisa erregistratzen dira, ez baitira inolako delitu, eta halakotzat tratatzen dira, haien sorburu diren subjektuetatik eta esparruetatik bereizita. Noizbait

egin da nolabaiteko disuasio-bitartekotzarik kaleko esparruan, nagusiki toki jakinetan kontzentrazio handiegia sortzea saihesteko eta, halaber, bizilagunek hala eskatuta. Disuazio-bitartekotza hori bera ikusi ahal izan dugu, halaber, zenbait pisuri dagokienez.

Orokorrean, eta Zigor Kodean jasotako delituak alde batera utzita, prostituzio jarduera bera araudian jaso gabe egotean, poliziak gizartearen eskaerari erantzunez esku hartzen du hein handian. Ezaugarri orokor gisa, elkarrizketatu ditugun polizia taldeek ez dute uste gizarteak gai horrekiko neurriz kanpoko kezkarik duenik, betiere prostituzioa nabarmenegia ez bada eta komunitatea asaldatzen ez badu.

ARAUGINTZAKO EKIMEN ETA ESKU HARTZE UGARI GAUZATZEN DIRA UDALERRIETAN, AUTONOMIA ERKIDEGOETAN ETA ESTATUAN

Aipatu dugun bezala, prostituzio jarduerak Estatuan araudiaren aldetik duen hutsunearen ondorioz, prostituzioaren esparruan araudiak eta egitasmoak garatu dira azken urteetan, udalerrietan nagusiki eta autonomia erkidegoetan hein txikiagoan. Ondoren araudi, ekimen eta egitasmo aipagarrienak deskribatuko ditugu:

Estatuan

Atal honetan, Estatuko prostituzioari buruzko hitzaldiaren txostena dago bilduta, Senatuan xede horrekin sortutako batzordeak 2007ko martxoaren 13an onartu zuena. Dokumentua loteslea edo arauemailea

izan ez arren, txostenaren oihartzun politikoak garrantzia berezia ematen dio hari.

SENATUKO BATZORDE BEREZIA: Txostena askotariko gaietatik eta ikuspegietatik ekarpenak egin zituzten eragileen eta adituen parte-hartze zabalarik esker osatuta dago. Azken emaitza (ondoren aztertuko dugu) Senatuan ordezkaturako talde politikoen arteko adostasunaren fruitu da.

Dokumentuaren lehen atalean prostituzioaren egoeraren diagnosia egiten da, etikaren, zuzenbidearen, ekonomiaren eta psikosozioologiaren ikuspuntutik; ondoren, hitzalditik bertatik ateratako ondorioak lantzen dira eta, azkenik, Estatuko Gobernuari zuzendutako gomendioak datoz.

Ateratako ondorioei dagokienez, txostenaren oinarritzko premisaren arabera, «herrialde aberatsetako prostituzio fenomenoak zuzenean dago pobrezian gero eta emakume gehiago egotearekin lotuta; izan ere, prostituzioan diharduten emakume gehienak behartsuak dira edota gizartean deserrotuta daude». Alde horretatik, txostenean honako ondorio hauek daude adierazita: «Prostituzioa eta emakumeen trafikoa guztiz erlazionatuta daude, prostituzioan diharduten emakume gehienak baitira edo izan baitira pertsonen salerosketaren biktima». Prostituzioan diharduten emakumeei buruzko atalean, egin beharreko diagnostikoaren eta esku-hartzeen ondorioek honako adierazpen hau dute oinarri: «Emakume espainiarrek gizartean eta ekonomian izan duten hobekuntzaren ondorioz, ia emakume bat ere ez dago prostituzioan jardutera bultzatzeko moduko egoeran». Prostituzioak irauten du hartan

diharduten pertsona gehienak etorkinak direlako; herrialde pobreetako emakumeak dira egoera horretan daudenak».

Emakume prostituten profil horretatik abiatuta, jarduera hori uzten laguntzeko baliabideen eta berariazko egitasmoen alde egiten du txostenak: «Prostituzioan diharduten emakume gehienak egoera umiliagarrietan daude, askatasunik gabe, haiek esplotatzen dituzten erakundeekiko mendetasun handiarekin eta giza eskubideen urraketa jasanez». Halaber, «prostituzioan diharduten emakumeen bizi baldintzak hobetzeko neurriak bultzatzearen aldeko apustua» egin du, «emakumeek baliabideak ezagutzea eta eskura izatea sustatuz». Ondorioen atala amaitzeko, txostenak honako adierazpen hau biltzen du: «Prostituzioa lanbide gisa arautzeak juridikoki kokatzeko arazo larriak eragingo lituzke, bai lan zuzenbideari, bai langileen eskubideei, bai oinarritzko eskubideei, bai emakumeen eskubideen esparruan indarrean dagoen legediari dagokienez». Halaber, honako baieztapen hau egiten du: «Herritarrak arduratuta daude prostituzioarekin, bereziki hirietako zenbait auzotan sortu diren bizikidetza arazoengatik, eta zenbait udalek ordenantzak onartu dituzte alde horretatik».

Gobernuari zuzendutako gomendioei dagokienez, txostenak sei puntu nagusi biltzen ditu:

- Gomendio orokorrak: Estatuko Gobernuari Sexu Esplotazioaren Aurkako Egitasmo Integrala egin dezala eskatu zaio, hainbat neurri jasoko dituen arlo juridikoan, sozialean, hezkuntzan, polizian eta immigrazioan.

- Sentikortzeko neurriak: Elementu aipagarrien artean, eskaria murriztera bideratutako kanpainak aipa genitzake. Emakumeak sexu merkantzia gisa erabiltzeari uztea dute xede kanpaina horiek. Halaber, komunikabideei eskatuko zaie sexu merkataritzarekin erlazionatutako publizitaterik ez onartzea aurreikus dezatela euren deontologia kodeetan.
- Trebakuntzarako neurriak: Atal honetan, funtzionarioak eta arlo juridikoko zein polizialeko profesionalak sexu esplotazioan eta horrekin erlazionatutako gaietan trebatzea sustatzen da.
- Biktimei arreta osoa emateko neurriak: Sexu esplotazioaren biktimei beren eskubideei buruzko informazioa, babesa eta aholkularitza emateko neurriak daude bilduta bertan, eta prostituzioan diharduten emakumeak gizartearen eta lanaren esparruetan txertatzeko jarduerak sustatzen ditu atal horrek.
- Legegintzarako eta polizientzako neurriak: Poliziak eta araudiak esku hartzeko bitartekoak eta baliabideak indartzearen eta hobetzearen aldeko apustua egiten da.
- Nazioarteko neurriak: Atal honetako puntu nagusia jatorrizko, igarobideko eta xede herrialdeen artean nazioarteko lankidetzak sustatzeari dagokio, eta prostituzioan diharduten emakumeak hartzeko eta garraiatzeko sareak jazartzea du helburu.

Autonomia erkidegoetan

ANDALUZIA: Andaluziako Arartekoaren 2002ko txosten batean oinarrituta (egungo egoerari buruzko diagnostikoa, baliabide publikoak eta

elkarteen baliabideak, eta zenbait gomendio biltzen zituen), Andaluziako Batzordeak Prostituzioan Diharduten Pertsonen Osasunari Arreta Emateko Egitasmoa jarri zuen martxan 2003an, Osasun Sailaren bidez. Egitasmo horren helburua talde horretan sexu transmisiozko gaixotasunak prebenitzeko jardunbide seguruak sustatzea da, arretarako, informatzeko eta orientatzeko programen bidez. Gizarte Ongizateak garatutako bestelako programak ere badaude, kalean prostituzioan diharduten pertsonen babesa eta laguntza emateko.

GAZTELA-MANTXA: Gaztela-Mantxako Gorteetan, Emakumearen Batzorde Iraunkorrek prostituzioari buruzko azterketa-txostena osatu zuen, eta ondorioak 2006an ezagutarazi ziren. Eskualdeko eta Estatuko Gobernuak zuzendutako gomendioen atalean, prostituzioan diharduten emakumeak biktimatzat hartzen dituen premisa da abiapuntua, eta helburu nagusia emakume horien eskubideak babestea eta defendatzea da. Honako gomendio hauek dira aipagarrienak:

- Emakume etorkinak lan munduan integratzeko eta sartzeko berariazko politikak eta trafikagai izandako emakumeak babesteko eta hartzeko berariazko politikak ezartzea. Politika horiek osasun zerbitzuak, gizartearen zein poliziaren babesa eta hezkuntza zein trebakuntza egokiak hartu behar dituzte.
- Askotariko Eraginetako Zerga Adierazle Publikoaren (IPREM) pareko hileko laguntza ekonomikoak ezartzea, prostituzioan jarduteari utzi dioten emakumeak lanaren munduan trebatzeko eta berriz sartzeko programekin batera (programen iraupena 24 hilekoa izango da, gehienez).

- Prebentziorako eta, bereziki, prostituitzaileak eta bezeroak sentikortzeko eta deslegitimatzeko politikak garatzea, emakumeak sexu merkantzia gisa erabiltzeari buruzko hautemate soziala aldatzeko eta bezeroen gaitzespen soziala lortzeko kanpainak sustatuz.
- Komunikabideei beren deontologia kodearen bidez sexu merkataritzari buruzko publizitatea onartzeari uko egiteko eskatzea, sexu trafikorako erakundeen negozioa ahalik eta gehien oztopatzeko.
- Beren buruei «sexuaren enpresari» deritzenak, prostituzioan diharduen pertsona berekin bat etorri edo ez, proxenetatzat hartzeko ezinbestekoak diren lege aldaketak bultzatzea.

KATALUNIA: Generalitateak udalerrietan ezartzeko eredu ordenantza bat onartu zuen 2003an, 2002an prostituzio lokalen erregulazioari buruz onartutako dekretuari jarraiki. Dekretuan zenbait alderdi daude bilduta; esate baterako, establezimenduen arteko gutxieneko distantzia (250 metro), establezimenduen fatxadetan argi erakargarrien bidezko publizitatea edo antzekoak ezartzeko debekua, ordutegiak (17:00etatik 4:00etara, eta ordubeteko luzapena jaiegunetan) eta toki pribatuen, segurtasunaren eta abarren ezaugarrien eta horniduraren bestelako alderdiak.

Ondoren, 2004tik aurrera, Kataluniako Generalitateak Sexu Zerbitzuen Legea (edo Tura Legea) eratzea bultzatu zuen, Barne Kontseilaritzaren bidez. Bertan «esku hartzera eta ordainketaren trukean emandako sexu zerbitzuak mugatzera» bideratutako zenbait neurri daude bilduta.

Azkenean, lege-zirriborroa ez zuten promulgatu, baztertu baizik. Hautemangarriak dira, besteak beste, proposamenaren honetako elementu hauek:

- Testuak «ordainketaren trukean emandako sexu zerbitzuak» kontzeptua aipatzen du prostituzioaren ordezt.
- Kalean prostituzioan jarduteko debekua ezartzen da bertan (600 €-ra arteko isunak aurreikusten ditu eskaintzaileentzat eta kontratatzaileentzat).
- Lokal bakoitzeko emakumeen eta gelen gehieneko kopuruak ere ezartzen ditu (makroklubak egotea galarazteko).
- Sexu zerbitzuak legezko baimena duten lokaletan eta jarduera horretarako berariazko baimena dutenetan bakarrik emango dira. Lokal horiek profesionalek berek kudeatuko dituzte edota hirugarrenei alokatuko zaizkie, alokairu kontratuen bidez eta aurrez ezarritako zenbatekoa ordainduz. Lana lokal horien arteko batean egiten duen edonork horretarako lan kontratua izan beharko du, eta debekatuta egongo da prostituzioan diharduten emakumeak zerbitzua ematen duten lekuan bizitzea.
- Prostituzioan diharduen pertsonak kontratu bikoitz baten bidez kudeatuko du bere jarduera, subjektu juridiko gisa aitortuta. Izan ere, kontratua lokalarekin edo jarduera aurrera eramateko erabiltzen duen tokiarekin egiten du alde batetik, lotura baitu harekin, eta, beste aldetik, bezeroarekin. Bezeroekin egindako ahozko kontratuen baliozkotasuna gogorarazten da bertan, baita emakumeak zerbitzuaren ordainketa aldeztu aurretik jasotzeko duen ahalmena ere.

- Lokalek irekita eman dezaketen denbora arautzen du (egunean 8 ordu eta astean 6 egun, gehienez), eta emakumeen sarreraren, irteeraren eta lanorduen erregistroa ezarri behar dela ere adierazten du.
- Prostituzioan diharduten etorkinen erregulazio prozesua sustatzen du, baita arrazoi humanitarioengatik behin-behineko egoitza ere, beharrezkoa izanez gero.
- Prostituzioan diharduten emakumeen elkarteak sustatzearen eta aitortzearen alde egiten da bertan.

Udaletan

VALENTZIA: Hala dio Valentziako Udalaren gune publikoetako jardueren buruzko ordenantzak (2005): «[...] Gune publikoetan irabazizko jarduerak egitea» zigortzen du, «esate baterako, autoak aparkatzea, haizetakoak garbitzea, kaleko prostituzio deritzon jardutea eta antzeko ezaugarriak dituzten bestelako jarduerak egitea, hiritarren segurtasunari eta beste pertsonen beren eskubideak erabiltzeari eragiten baitiete». Ondoren, 4. artikuluan, honako azalpen hau ematen du: «Zigorgarria izango da gune publikoetan diruzko ordainen truke sexu zerbitzuak sustatzea, erraztea edo ematea, baldin eta hiritarren lasaitasuna edo segurtasuna asaldatzen baditu [...]». Diruzko isunak ezartzeko aukera jasotzen du, baita Generalitatearen Gizarte Ongizate Sailak kalean prostituzioan diharduten pertsonen arreta emateko kudeatutako bestelako berariazko programak ere.

MADRIL: Sexu Esplotazioaren Aurkako Udal Plana dago bertan, 2004az geroztik. Formalki, egitasmoa 5 programak osatzen dute:

- Arreta Osoa Emateko Programa, prostituzioan diharduten emakumeentzat
- Eskaria Murrizteko/Ezabatzeko Programa
- Gizartea Sentikortzeko Programa, gizarte osoari zuzendua
- Profesionalentzako Trebakuntza Programa, sexu esplotazioaren aurkako esku hartze zuzenarekin edo/eta zeharkakoarekin
- Idatzizko komunikabideetan prostituzioari buruzko lerketa eta Ebaluazioa Egiteko Programa

Laburbilduz, plana, oro har, kalean prostituzioan jardutea debekatzera bideratu dela esan genezake, bai pertsona kontratatzaileei, bai prostituzioan dihardutenei isunak jarritz. Araudia bi gune zehatzi zuzenduta dago nagusiki (Montera eta Casa de Campo), bertan baitago bilduta Madrilgo kaleko prostituzio gehiena. Eskaria Murrizteko/Ezabatzeko Programari dagokionez, bezero potentzialei asmoa kentzeko poliziaren jarduera garatu du. Aurreikusitako zigorrez gain, aipatutako guneetan alkoholemia kontrolak ezarri ditu, eta pertsonen beren burua identifikatzeko eskatzen die. Gizartea Sentikortzeko neurrien artean, «Zuk ordaintzen duzulako dago prostituzioa» lelopean garatutako kanpaina aipa genezake. Sevillan ere antzeko kanpaina egin zuten, «Ez al zara ordaindu gabe egiteko gauza?» lelopean.

Azkenik, prostituzioan diharduten emakumeekin esku-hartze soziala egiteko ildoak dagoela adierazi behar da, emakume horiek prostituzioa uzteko aukerak emateko (harrera guneak, orientatzeko eta trebatzeko baliabideak...)

BARTZELONA: Bartzelonako Udalaren Bartzelonako espazio publikoan hiritarren bizikidetza sustatzeko eta bermatzeko neurrien ordenantzak (2005) «espazio publikoaren erabilera sexu zerbitzuak eskaintzeko eta eskatzeko» deritzon berariazko atala hartzen du barnean. Atalak jasotakoaren arabera, erregulazioak honako xede hauek ditu: « [...] Adingabekoak kaleko sexu zerbitzuak eskaintzeko edo eskatzeko erakustaldien aurrean babestea, bizikidetza mantentzea, zirkulazio publikoko tokietan bidetasun arazoak edikitea eta talde jakinen esplotazioa prebenitzea», eta «[...] Gune publikoetan sexu zerbitzu ordainduak zuzenean edo zeharka eskaintzea, eskatzea, negoziatzea edo onartzea debekatzea, praktika horiek gune publikoen bateragarritasuna alde batera uzten edo mugatzen dutenean». Udaltzaingoak kasuan kasuko subjektuari ordenantza gogorarazi ondoren hark jaramonik egiten ez badu aplikatuko dira araudiak jasotako isunak.

Halaber, Sexu Lanari Osotasunez Ekiten Egitasmoaren bidez garatu behar diren zenbait berariazko esku-hartze daude aztertuta bertan. Egitasmoa honako 6 ildo estrategiko hauen inguruan egituratuta dago:

- Udal agentzia bat sortzea, prostituzio fenomenoari aurre egiteko.

- Eskuragarri dauden zerbitzu publiko guztiei buruzko informazioa ematea, batez ere pertsonentzako zerbitzuei buruzkoa: gizarte, hezkuntza eta osasun zerbitzuak.
- Talde horren osagai diren eta harekin lanean diharduten erakundeei eta pertsoneri laguntza ematea, eta haiekin elkarlanean aritzea.
- Banakako arreta emateko mekanismoak ezartzea, prostituzioan diharduten pertsonen egindako berariazko eskariei erantzuna emateko ibilbide pertsonalizatuak definitzeko.
- Udal zerbitzu guztiak koordinatzea eta egokitzea, berariazko arreta eredu bidez.
- Pertsonen sexu askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurkako jarrerak jazartzen laguntzea.

BILBO: Prostituziora bideratutako establezimendu publikoei buruzko udal ordenantzak bi elementu nagusi xedatzen ditu: «Prostituzioa ohiko jarduera gisa duten establezimenduen edo publikoari irekitako lokalen arteko gutxienezko distantzia eta haien araubide juridikoa finkatzea» eta, bestalde, «aipatutako establezimenduek bete behar dituzten higieneko eta osasuneko baldintzak adieraztea». Aipatutako ordenantzatik kanpo uzten dira, espresuki, gune pribatuetan (pisuetan) eta kalean egindako prostituzioaren arauketa osoa. Osasun, Hirigintza eta Hiritarren Segurtasun sailei dagokie araudia (1999) bete dadila zaintzea.

Gainerako euskal udalerriei dagokienez, gaur egun ez dago gaiari buruzko berariazko araudirik eta programarik. Interesgarria da **Gasteizko Udalaren** emakumeei eragindako indarkeriaren aurka borrokatzeko udal

egitasmoak emakumeen sexu trafikoa eta behartutako prostituzioa emakumearen aurkako indarkeria motatzat hartzen dituela aipatzea.

Halaber, **Arabako Foru Aldundiak** baztertze egoeran dauden emakume prostitutak bergizarteratzeko programak sartu ditu II. Berdintasun Egitasmoan. Bertan, Gizarterako elkarateak prostituzioan dihardutenekin esku hartzeko lanak egiteko hitzarmena dago bilduta.

1.4. PROSTITUZIOAREN ZIFRA NAGUSIAK EAE-N

Kapitulu honetan, EAEko prostituzioari buruzko ikuspegi orokorra emango dugu. Horrek esparru bat ezartzen lagunduko digu, ondoren prostituzio motei buruz eskuratutako datuetan sakondu ahal izateko.

1. taula. Prostituzioaren presentzia EAEko udalerrietan

	Kopurua	EAEko udalerrien guztizko kopuruan duen pisua
Prostituzioa	25	% 10
Kaleko prostituzioa	3	% 1
Klubetako prostituzioa	21	% 8
Pisuetako prostituzioa	11	% 4

Iturria: Guk geuk egina.

EAEko emakumeen prostituzioari buruz aipatu beharreko lehen datua honakoa da: euskal udalerrien % 10ean dagoela (prostituzio mota guztiak barnean hartuta: kalekoa, klubetako eta pisuetako).

Bestalde, jarduera mota bakoitzari begiratuz gero, kaleko prostituzioa EAEko 3 udalerritan bakarrik dagoela ikus dezakegu; hots, udalerrien % 1ean. Klubetako prostituzioa dago zabalduen udalerrietan, haien % 8an egiten baita; pisuetako prostituzioa, berriz, murrizagoa da, EAEko udalerrien % 4an baitago.

Prostituzio motei dagokienez, 2 udalerritan bakarrik daude 3 prostituzio motak, eta 6 udalerritan 2 mota (klubetako eta pisuetako prostituzioa, funtsean).

Zehazki, honako mapa hau osatzen dute prostituzio jarduera duten EAEko udalerriek³:

- Kalkan prostituzioa duten udalerriak: Bilbo, Galdakao eta Gasteiz.
- Klubetako prostituzioa duten udalerriak: Zornotza, Azpeitia, Barakaldo, Basauri, Bergara, Bilbo, Donostia, Durango, Galdakao, Irun, Iruña Oka, Lasarte, Leioa, Muskiz, Pasaia, Portugalete, Santurtzi, Tolosa, Trapagaran, Gasteiz, Zumarraga.

³ Lortutako informazioan oinarrituta. Litekeena da udalerriren batean aurkitu ez dugun prostituzio motaren bat egotea.

- Pisuetako prostituzioa duten udalerriak: Arrasate, Barakaldo, Bilbo, Donostia, Getxo, Irun, Lasarte, Mungia, Muskiz, Gasteiz, Zumaia.

2. taula: Prostituzioa duten udalerriak, Lurralde Historikoka

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)
Biztal/mil.	302	14,2	1.140	53,4	692	32,4
udalerriak	51	20,4	111	44,4	88	35,2
Prostituzioa duten udalerriak	2	% 8	13	% 52	10	% 40
Kaleko prostituzioa duten udalerriak	1	% 33	2	% 67	0	% 0
Klubetako prostituzioa duten udalerriak	2	% 10	11	% 52	8	% 38
Pisuetako prostituzioa duten udalerriak*	1	% 10	5	% 45	5	% 45

Iturria: Guk geuk egina.

* Prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta kalkulatuta.

Emakumeen prostituzioa duten udalerrien lurralde banaketari dagokionez, ikusi dugu Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela edozer motatako prostituzioa duten udalerrien proportzio handiena (% 52), eta Bizkaian daudela, halaber, jarduera mota zehatz bakoitzaren proportzio handiena duten udalerriak: kalean prostituzioa duten udalerrien % 67, klubetako prostituzioa dutenen % 52 eta pisuetako prostituzioa dutenen % 45 daude Bizkaian.

Gainerako Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan eta Bizkaian pisuetako prostituzioaren % 45 gauzatzen da. Gipuzkoan, bestalde, udalerri batean ere ez dugu kaleko prostituziorik antzeman.

Bestalde, Arabak ez du alde horretatik bereziki aipagarria den daturik. Hala ere, kontuan hartu behar dugu Bizkaiak EAEko udalerrien % 45a hartzen duela, Gipuzkoak % 35a eta Arabak % 20a.

3. taula. EAEn prostituzioan diharduten emakumeen kopurua, jarduera mota bakoitzeko.

	Prostituzioan diharduten emakumeen kopurua	Jarduera mota bakoitzaren pisua (%-tan)
Kalean	51	% 3
Klubetan/makroklubetan	1.199	% 66
Pisuetan*	570	% 31
Guztira	1.820	% 100

Iturria: Guk geuk egina.

* Prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta kalkulatuta.

EAEEn prostituzioan diharduten emakumeen kopuruari dagokionez, prostituzio motarik hedatuena klubetako prostituzioa da, prostituzioan diharduten emakumeen % 66 biltzen baita haietan. Bestalde, emakumeen ia heren bat (% 31) aritzen da pisuetan. Kaleko prostituzioan diharduten emakumeen proportzioa (% 3) oso txikia da gainerako motekin alderatuta.

EAEEn, beraz, prostituzioa toki pribatuetan (klubetan eta pisuetan) gauzatzen da gehien; apenas jarduten da publikoki.

4. taula. Prostituzioa duten EAEko lokalen kopurua (klubak eta pisuak).

	Lokalen kopurua	Lokal mota bakoitzaren pisua (%-tan)
Klubak/Makroklubak	77	% 27
Pisuak*	211	% 73
Guztira	288	% 100

Iturria: Guk geuk egina.

* Prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta kalkulatuta.

Prostituzioan diharduten lokalen kopuruari dagokionez (klubak eta pisuak), ia % 75 pisuak dira. Datu horrek erakusten digu fenomenoaren esparru pribatua gertatzen dela, eta batez ere pisuetan.

Bestalde, ikusi dugu ez dagoela korrelaziorik klubak eta pisuen kopuruaren eta eremu bakoitzean prostituzioan diharduten emakume kopuruaren artean. Izan ere, klubak emakumeen % 66 biltzen duten arren, lokalen % 27 bakarrik osatzen dute; eta alderantziz, pisuek emakumeen % 31 bildu arren, emakumezkoen prostituzioaren jardueraleku diren lokalen % 73 osatzen dute.

Hala, EAEko prostituzioak eremu pribatuan (lokaletan) biltzeko joera duela ikusi dugu. Horrez gain, bi ezaugarri ere baditu: alde batetik, emakumeen kontzentrazio handia duten klubak daude (16 emakume, batez beste) eta, bestetik, emakumeen kontzentrazio txikiagoa duten pisuak (ia 3, batez beste).

5. taula. Prostituzioa duten EAEko emakumeen eta lokalen kopurua.

	Emakumeen kopurua				Lokalen kopurua		
	Kalea	Klubak	Pisuak*	Guztira	Klubak	Pisuak*	Guztira
Araba	15	242	54	311 (% 17)	16	20	36 (% 13)
Bizkaia	36	554	289	879 (% 48)	35	107	142 (% 49)
Gipuzkoa	0	403	227	630 (% 35)	26	84	110 (% 38)
EAEko, guztira	51	1.199	570	1.820 (% 100)	77	211	288 (% 100)

Iturria: Guk geuk egina.

* Prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta kalkulaturik.

Lurraldearen aldagaia ere kontuan hartuz gero, prostituzioan diharduten emakumeen eta haien jardueragune diren lokalen ia % 50 Bizkaian daude, heren bat baino pixka bat gehiago Gipuzkoan eta % 15 inguru Araban.

6. taula. Prostituzioan diharduten emakumeen eta prostituziogune diren lokalen kopuruen bilakaera EAEn (2000-2007)

	Emakumeen kopurua				Lokalen kopurua		
	Kalea	Klubak	Pisuak*	Guztira	Klubak	Pisuak*	Guztira
2.002	160	1.216	404	1.780	102	132	234
2.007	51	1.199	570	1.820	77	211	288
Bilakaera	- % 68	- % 1	+ % 41	+ % 2	- % 24	+ % 60	+ % 23

Iturria: Guk geuk egina.

* Prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta kalkulatuta.

EAEn 2007an izandako prostituzioari gainbegirada bat eman ondoren, beharrezkoa da datu horiek 2002an lortutakoekin alderatzea eta bilakaeraren analisia egitea.

Alde horretatik, honako ildo nagusiak ikusi ditugu:

- Kaleko prostituzioak nabarmen egin du behera, prostituzio mota horretan diharduten emakumeen kopurua % 68 jaitsi baita 2002. urteaz geroztik.

- Kluben kopurua murriztu egin da, % 24. Dena den, klubetan prostituzioan diharduten emakumeen kopurua ez da neurri berean txikitu, % 1ekoa bakarrik izan baita beherakada; beraz, emakumeen kopurua egonkor mantendu da. Hori horrela, gaur egun emakume gehiago dago klub bakoitzeko: 2002an 12 emakume zeuden, batez beste, eta 2007an 16.

- Pisuetako prostituzioak nabarmen egin du gora, bai pisuen kopuruari dagokionez (% 60 handitu da), bai bertako emakumeen kopuruari dagokionez (% 41 handitu da).

- EAEn prostituzioan diharduten emakumeen kopurua egonkor mantendu da, % 2ko igoera baino ez baitu izan (1.780 ziren 2002an, eta 1.820 dira 2007an). Prostituzioan diharduten pertsonen kopurua denboran egonkor mantendu den arren, jarduten duten esparruek bilakaera nabarmena izan dute.

EAEn emakumeek egiten duten prostituzioaren fenomenoak laburki deskribatu ondoren, beharrezkotzat jotzen da Estatuko beste erkidego batzuetako datuekin konparatzea marko globalagoa izateko.

9 komunitate autonomoetako datuak lortu dira, EAEkoak barne, hainbat iturrietatik. Urte ezberdinei erreferentzia egiten dieten arren, konparazioa egiteko baliagarriak izango dira.

7. taula. EAEko egoera Espainiar Estatuko beste komunitate autonomo batzuekin alderatuta.

	Prostituzioan diharduten emakumeen kopurua	Datuen iturria	10.000 biztanleko prostituzioan lan egiten duten emakumeen ratioa
Galizia	7.500	Polizia nazionala/ Elkartek (2004)	27
Andaluzia	20.000	Herriaren defendatzailea (2002)	25
Gaztela-Mantxa	4.000	Gobernu autonomikoa (2006)	21
Asturias	2.000	Gobernu autonomikoa (2004)	19
Balearrak	1.900	Balearretako kongresua/ Anela (2003)	19
Kantabria	1.000	Guardia Zibila (2006)	18
Katalunia	12.000	Polizia autonomoa (2004)	17
Nafarroa	650	Gobernu autonomikoa (2003)	11
EAE	1.780	Emakunde (2002)	8
	1.820	Emakunde (2007)	9

Iturria: Guk geuk egina.

Autonomia erkidego bakoitzean prostituzioan aritzen diren emakumeen kopuruari buruzko datuak eta komunitateetako biztanleen kopurua lotuta, 10.000 biztanleko prostituzioan aritzen diren emakumeen ratioaren arabera hiru mota daudela ikus daiteke:

- Ratio handienak dituzten komunitate autonomoak. 10.000 biztanleko prostituzioan aritzen diren 25 emakume inguru dituzte. Talde honetan Galizia (27) eta Andaluzia (25) daude.
- Ratio ertainak dituzten komunitate autonomoak. 10.000 biztanleko prostituzioan aritzen diren 20 emakume inguru dituzte. Talde hau Gaztela-Mantxak (21), Asturiasek (19), Balearrek (19), Kantabriak (18) eta Kataluniak (17) osatzen dute.
- Ratio txikienak dituzten komunitate autonomoak. 10.000 biztanleko prostituzioan aritzen diren 10 emakume inguru dituzte. Talde honetan, Nafarroa (11) eta Euskal Autonomia Erkidegoa (9) daude.

Beraz, konparazio honen arabera, prostituzioan aritzen diren emakumeen biztanle kopuru erlatibo txikiena⁴ duen autonomia EAE da, Nafarroarekin batera.

⁴ Gaiaren inguruko datuak 9 komunitate autonomoetan besterik ez direla lortu kontuan hartuta.

1.5 PROSTITUZIOAREN ANALISIA, JARDUERA ESPARRUAREN ARABERA

Kapitulu honetan, prostituzioan jarduteko dauden 3 motak sakon aztertuko ditugu.

1.5.1. KALEKO PROSTITUZIOA

Ondoren, EAEko kaleko prostituzioa aztertuko dugu. Horretarako, haren ezaugarri nagusiak nabarmenduko ditugu.

8. taula. Kaleko prostituzioan diharduten emakumeen kopurua, Lurralde Historikoka. Bilakaera, 2002tik gaur egunera arte

	2002. urtea		2007. urtea		
	Emakumeen kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Emakumeen kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Bilakaera (%-tan)
Araba	30	% 19	15	% 29	- % 50
Bizkaia	130	% 81	36	% 71	- % 72
Gipuzkoa	0	% 0	0	% 0	=
EAEn, guztira	160	% 100	51	% 100	- % 68

Iturria: Guk geuk egina.

Gaur egun 51 emakumek dihardute kaleko prostituzioan EAEn; haien % 70a baino gehiago Bizkaian daude, eta gainerakoak Araban. Gipuzkoako Lurralde Historikoan, gaur egun ez dago kaleko prostituziorik, eta 2002. urtean ere ez zegoen halakorik.

Orokorrean, EAEn % 68 murriztu da kalean prostituzioa, eta jarduera horretan diharduten emakumeen kopurua 160tik 51ra jaitsi da.

Lurralde Historikoka, kalean prostituzioan diharduten emakumeen kopurua % 72 jaitsi da Bizkaian (130 ziren 2002an, eta 36 dira 2007an). Dena den, Lurralde Historiko horretan dago kaleko prostituzio gehien gaur egun ere. Araban ere asko jaitsi da, % 50 zehazki, kalean prostituzioan diharduten emakumeen kopurua 30etik 15era murriztu baita.

Lehen aipatu dugun bezala, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ez da halako prostituzio motarik hauteman; ez gaur egun, ezta 2002an ere.

Azken 5 urte hauetako bilakaerak EAEn kaleko prostituzioak pixkanaka beheranzko joera izan duela adierazten du, eta, beraz, prostituzioak klubetan eta, batez ere, pisuetan gordetzera jo duela.

9. taula. Kaleko prostituzioaren ezaugarriak, toki zehatz bakoitzeko

	Emakumeen kopurua	Jarduten den tokia	Ezaugarri orokorrak (jatorria eta adina)
Gasteiz	15	Udalerriaren kanpoaldean, ipar eskualdeko biribilguneetan.	18-30 urteko emakume azpisahararrak.
Bilbo	30	Gorte eta Miribilla inguruetan	18-30 urteko emakume azpisahararrak. Jatorriz Estatukoak diren emakume drogazaleak. Jatorriz bertakoak diren 40/45 urtetik gorako emakumeak
Galdakao	6	Udalerriaren kanpoaldean (Erletxe industrialdearen sarreran, N634)	18-30 urteko emakume errumaniarrak.
Guztira	51		

Iturria: Guk geuk egina.

Beherakadaz gain, honako bi ezaugarri hauek antzeman ditugu EAEko kaleko prostituzioan: alde batetik, oso udalerri gutxitan biltzen dela, eta udalerrien barruan gune gutxi batzuetan, eta, bestetik, jarduera horretan diharduten pertsonen profila asko zehaztu dela (gehienak 18-30 urteko emakume azpisahararrak dira).

Hala, kaleko prostituzioa EAEko 3 udalerritan bakarrik hauteman dugu. Honako ezaugarri nagusi hauek ditu:

- Bilboko kaleko prostituzioak ezaugarri bereziak ditu, han tradiziozko gune bat baitago (Gorte). Dena den, kaleko prostituzioa Miribillara ere lekualdatu da (Miribilla Bilboko hazkuntza-gune berria da, eta Gorteren eragin-esparruan dago). Hala, kalean prostituzioan diharduten emakumeen bi profil ikus ditzakegu, eta horien arteko bat, emakume azpisahararena, berria da, ez baitzegoen 2002an. Profil horretako emakumeak Miribillan daude nagusiki. Gainera, Gorte eremuan Estatu osotik etorritako emakume toxikomanoen profila mantentzen da, kopuru txikian, baita jatorria Estatuan duten emakume heldu (40 urtetik gorakoak) gutxi batzuen ere.

- Gasteizek eta Galdakaok antzekotasun handiak dauzkate jarduera-tokiari dagokionez (udalerriaren kanpoaldea, bi kasuetan), baina aldeak daude emakumeen jatorriari dagokionez, Gasteizen azpisahararrak baitira eta Galdakaon, aldiz, errumaniarrak. Emakumeen adina 18-30 urtekoa da bi kasuetan.

1.1.1. KLUBETAKO PROSTITUZIOA

Jarraian, EAEko klubetako prostituzioa⁵ aztertuko dugu, haren ezaugarri nagusiak azpimarratuz.

10. taula. Kluben kopurua, Lurralde Historiko bakoitzeko. Bilakaera, 2002tik gaur egunera arte

Klubak					
	2002		2007		
	Kluben kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Kluben kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Bilakaera (%-tan)
Araba	17	% 17	16	% 21	- % 6
Bizkaia	51	% 50	35	% 45	- % 35
Gipuzkoa	34	% 33	26	% 34	- % 38
Guztira	102	% 100	77	% 100	- % 24

Iturria: Guk geuk egina.

Gaur egun 77 klub daude martxan EAEn, eta haietan emakumeek dihardute prostituzioan. Klub gehienak (% 45) Bizkaiko Lurralde Historikoan daude, Gipuzkoan klubena herena dago eta Araban % 20 inguru.

⁵ Klubak orokorrean aipatzen ditugun bakoitzean, klub guztiei buruz arituko gara, haien tamaina edo zer izanda ere. Tamaina azterketaren aldagai garrantzitsua denean, kluba eta makrokluba bereiziko ditugu.

2002rekin alderatuta, EAE osoan dezente jaitsi da zerbitzua ematen duten klub-en kopurua, % 24 zehazki. Klub horien arteko gehienak Gipuzkoan (% 38) eta Bizkaian (% 35) daude. Beherakada hori gertatu izan arren, Bizkaia da oraindik ere EAEko klub-en proportzio handiena biltzen duen lurralde historikoa, 2002an klub-en % 50a biltzen baitzuen, eta 2007an % 45a.

11. taula. Klub-en banaketa, tipologiaren/tamainaren arabera

	Klubak		Makroklubak		Guztira	
	Kopurua	Mota bakoitzaren pisua (%-tan)	Kopurua	Mota bakoitzaren pisua (%-tan)	Kopurua	Mota bakoitzaren pisua (%-tan)
EAE-n, guztira	42	% 55	35	% 45	77	% 100

Iturria: Guk geuk egina.

EAEko klub-en erdia baino gehiago klubak dira (hau da, bertan 15 emakumek edo gutxiagok dihardute prostituzioan), eta gainerako % 45a makroklubak (beraz, 15 emakume baino gehiago hartzen dituzte barnean). Beraz, oreka handia dago klub-en eta makroklub-en artean.

12. taula. Kluben banaketa, klub motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

	Klubak		Makroklubak		Klubak eta makroklubak	
	Kopurua	Kluben guztizko kopuruan duten pisua (%-tan)	Kopurua	Makrokluben guztizko kopuruan duten pisua (%-tan)	Kopurua	Kluben eta makrokluben guztizko kopuruan duten pisua (%-tan)
Araba	12	% 29	4	% 11	16	% 21
Bizkaia	18	% 42	17	% 49	35	% 45
Gipuzkoa	12	% 29	14	% 40	26	% 34
Guztira	42	% 100	35	% 100	77	% 100

Iturria: Guk geuk egina.

Ikus dezakegunez, Bizkaiak EAEko klubak % 40 baino gehiago biltzen ditu; gainerakoak Gipuzkoaren eta Arabaren artean proportzionalki banatuta daude.

Antzeko egoera dugu makroklubak kasuan, haien ia % 50 baitaude Bizkaian; hala ere, kasu honetan Gipuzkoan EAEko makroklub guztien % 40 daude. Araban makroklubak % 10 baino apur bat gehiago besterik ez dago.

Beraz, klubei eta makroklubei dagokienez, gehienak Bizkaian daude (% 45), Gipuzkoan herena eta Araban % 20 inguru.

13. taula. Kluben kategoriaren banaketa⁶, Lurralde Historikoaren arabera.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAEn, guztira
Handia	% 62,5	% 18	% 26	% 26
Ertaina	% 12,5	% 47	% 69	% 49
Txikia	% 25	% 35	% 5	% 25
Guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Iturria: Guk geuk egina.

Klubei emandako kategoria aintzat hartuz gero, EAEko klub gehienak (% 49) kategoria ertainekoak direla ikusten da, eta gainerakoak kategoria handiko klubaren eta kategoria txikikoaren artean proportzionalki banatuta daudela (% 26 eta % 25, hurrenez hurren).

Lurralde Historikoa, Araba da kategoria handiko klubaren proportzio handiena duena (Arabako klubaren % 62 dira kategoria horretakoak), eta Bizkaia da kategoria horretako klubaren proportzio txikiena duen lurraldea (% 18). Bestalde, Gipuzkoa da kategoria ertaineko klub gehien dituen lurraldea. Kategoria txikiko oso klub gutxi daude bertan. Alde horretatik, esan behar da Bizkaiko klubaren herena baino gehiago eta Arabakoaren laurdena kategoria txikikoak direla.

Gauzak horrela, alde handiak ikusten dira lurraldeen artean, EAEn zerbitzua ematen duten klubaren kategoriari dagokionez:

⁶ Klubaren kategoriaren definizioak osagai subjektibo ugari ditu, ez baitago haien sailkapen ofizialik. Hala, klubak kanpo eta barne itxuraren, zabaltasunaren, higieen baldintzen eta abarren arabera katalogatzeko eskatu diegu informatzaileei.

- Araban kategoria handiko klubak dira nagusi eta, hein txikiagoan, kategoria txikikoak.
- Bizkaian kategoria ertaineko klubak dira gehienak eta, hein txikiagoan, kategoria txikikoak.
- Gipuzkoaren ezaugarri nagusia kategoria ertaineko klubak dira eta, hein txikiagoan, kategoria handikoak.

14. taula. Lanpostuen sistemaren presentzia EAEko klubetan, Lurralde Historikoka

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE, guztira
Plazen sistemarekin	% 60	% 53	% 47	% 50
Plazen sistemarik gabe	% 40	% 47	% 53	% 50
guztira	% 100	% 100	% 100	% 100

Iturria: Guk geuk egina.

Plazen sistema⁷ emakumeak zenbait lokalen artean trukatzeko datza. Emakumeek 21 eguneko egonaldiak egiten dituzte lokaletan, hilekoaren aldiekin bat etorritik. Sistema hori EAEko klubetan % 50ean dago, eta ez dago lurraldeen arteko alde handirik, nahiz eta Araban gehiagotan erabiltzen den (% 60) Bizkaian (% 53) eta Gipuzkoan (% 47) baino.

⁷ Askabide, genero indarkeria eta prostituzioa. 2006.

15. taula. Klubetan prostituzioan diharduten emakumeen kopurua, Lurralde Historikoaren arabera. Bilakaera, 2002tik gaur egunera arte

Emakumeak					
	2002		2007		
	Emakumeen kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Emakumeen kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Bilakaera (%-tan)
Araba	282	% 23	242	% 20	- % 14
Bizkaia	514	% 42	554	% 46	+ % 8
Gipuzkoa	420	% 35	403	% 34	- % 4
Guztira	1.216	% 100	1.199	% 100	- % 1

Iturria: Guk geuk egina.

Gaur egun, ia 1.200 emakumek dihardute klubetako prostituzioan EAEn. Emakumeen ia erdia (% 46) Bizkaian daude, heren bat (% 43) Gipuzkoan eta gainerako % 20a Araban.

2002ko datuekin alderatuta, ez dago alde edo bilakaera garrantzitsurik. EAEn pisuetan prostituzioan diharduten emakumeen kopurua % 1 murriztu da.

Lurralde Historikoka, Bizkaia da klubetan prostituzioan diharduten emakumeen kopuruari dagokionez igoera izan duen lurralde bakarra; igoera % 8koa izan da bertan, zehazki. Gainera, kontuan hartu behar dugu denbora-tarte berean klubak kopurua % 35 jaitsi dela Bizkaian. Hau da, klubak desagertu diren arren, Bizkaian ez da murriztu prostituzio-mota

horretan diharduten emakumeen kopurua. Ondorio gisa, klub bakoitzeko emakumeen batez besteko kopurua 10etik 16ra igo da.

Araban gertatu da klubetan diharduten emakumeen kopuruaren beherakada nabarmenena (% 14).

Gipuzkoako eta Bizkaiko egoerak antzekoak dira, klubetako kopuruak beherantz egin baitu bietan (% 38). Beherakada hori ez dator proportzionalki bat bertan lanean diharduten emakumeen kopuruaren beherakadarekin (% 4). Hala, Gipuzkoako klubetako emakumeen batez besteko kopurua 12tik 15era igo da.

16. taula. Klubetan prostituzioan diharduten emakumeen kopurua, klub-motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			EAE
	Kluba	Makro kluba	Guzt.	Kluba	Makro kluba	Guzt.	Kluba	Makro kluba	Guzt.	guzt
Emakumeen kopurua	133	109	242	129	425	554	65	338	403	1.199
LHn duen pisua	55%	45%	% 100	% 23	% 77	% 100	% 16	% 84	% 100	

Iturria: Guk geuk egina

Klubetan diharduten emakumeen klubetako tamainaren arabera banaketari dagokionez, honako joera hauek nabarmentzen dira: Arabak klubetako eta makroklubetako (% 45) emakumeen arteko

proportzioaren oreka du ezaugarri nagusi, Bizkaiko emakumeen hiru laurdenak makroklubetan daude, eta Gipuzkoan proportzio hori % 80koa baino gehiagokoa da.

17. taula. Emakumeen batez besteko kopurua, klub motaren arabera

	Kluba	Makrokluba
Araba	11	27
Bizkaia	7	25
Gipuzkoa	7	28
EAEn, guztira	8	26

Iturria: Guk geuk egina.

Klub bakoitzean diharduten emakumeen batez besteko kopuruaren aipamen txikiren bat egin dugun arren, datuak klubaren tamainaren arabera bereiztea beharrezkoa dela deritzogu.

Hala, EAEn, klub bakoitzean batez beste 8 emakumek dihardute, eta pixka bat gehiagok Araban (11). Bestalde, Bizkaian eta Gipuzkoan batez besteko kopurua 7koa da.

Makroklubei dagokienez, EAE erreferente gisa hartuta, emakumeen batez besteko kopurua 26 da horietan, eta ez dago Lurralde Historikoen arabera alde handirik.

18. taula. Klubetako emakumeen gutxieneko eta gehieneko kopurua

Klubetako emakumeen gutxieneko kopurua	4
4 emakume ko lokalen kopurua	3
Klubetako emakumeen gehieneko kopurua	40
40 emakume ko lokalen kopurua	4
Klubetako eta makroklubetako emakumeen batez besteko kopurua	16

Iturria: Guk geuk egin.

EAEko klubetan 4 emakume daude gutxienez. 3 klub aurkitu ditugu prostituzioan 4 emakume dituztenak.

Bestalde, klubetan gehienez jota 40 emakume zenbatu ditugu. 4 klub aurkitu ditugu prostituzioan 40 emakume dituztenak. Orokorki, klub guztiak kontuan hartuta (bai klubak, bai makroklubak), 16 emakume daude, batez beste, klub bakoitzeko.

19. taula. Klubetako adin tarte nagusia, Lurralde Historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
18-30 urteko emakumeak dituzten klubak	% 87	% 53	% 48
31-42 urteko emakumeak dituzten klubak	% 13	% 25	% 52
43-54 urteko emakumeak dituzten klubak	% 0	% 19	% 0
55 urteko eta gehiagoko emakumeak dituzten klubak	% 0	% 3	% 0

Iturria: Guk geuk egina.

EAEko klubetan prostituzioan diharduten emakumeen adin-tarteari dagokionez, Arabako klubak ia % 90ean 18-30 urteko emakumeak dira nagusi.

Gipuzkoako klubak ia % 50ean dira nagusi 18-30 urteko emakumeak, eta klubak % 50ean baino pixka bat gehiagoan 31-42 urtekoak.

Bizkaiko klubetan dago adin espektro handiena, eta klubak % 75ean 18-42 urteko emakumeak nagusi izan arren (18-32 urtekoak, batez ere), % 22an emakume gehienak 42 urtetik gorakoak dira (43-54 urtekoak, nagusiki).

20. taula. Klubetako emakumeen nazionalitatea, Lurralde Historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hego Amerikako emakumeak dituzten lokalak	% 100	% 79,5	% 95
Afrika azpisahararreko emakumeak dituzten lokalak	% 25	% 44	% 47
Espainiako emakumeak dituzten lokalak	% 62,5	% 41	% 5
Ekialdeko Europako emakumeak dituzten lokalak	% 37,5	% 32	% 16
Asiako emakumeak dituzten lokalak	% 12,5	% 0	% 0
Beste toki batzuetako emakumeak dituzten lokalak	% 12,5	% 0	% 0

Iturria: Guk geuk egina.

Klubetako prostituzioan diharduten emakumeen nazionalitateari dagokionez, Arabako klubetan dauden emakume gehienak Hego Amerikakoak, Espainiako Estatukoak eta ekialdeko Europakoak direla ikusten dugu.

Bizkaian, Hego Amerikako, Afrika azpisahararreko, Espainiako Estatuko eta ekialdeko Europakoak dira emakume gehienak.

Gipuzkoan, Latinoamerikakoak eta Afrika azpisahararrekoak dira emakume gehienak.

Hegoamerikarren artean, brasildarrak dira nagusi, eta, hein txikiagoan, kolonbiarrak, venezuelarrak eta dominikarrak.

Ekialdeko herrialdeetako emakumeen artean errumaniarrak gailentzen dira, eta afrikarren artean nigeriarrak eta ginearrak dira nagusi.

1.1.2. PISUETAKO PROSTITUZIOA

Jarraian, EAEko pisuetako prostituzioa aztertuko dugu, ezaugarri nagusiak nabarmenduz.

21. taula. Pisuen kopurua, Lurralde Historikoaren arabera. Bilakaera, 2002tik gaur egunera arte.

PISUAK					
	2002	Banaketa, lurraldearen arabera (%- tan)	2007	Banaketa, lurraldearen arabera (%- tan)	Bilakaera (%-tan)
Araba	8	% 6	20	% 9	+ % 150
Bizkaia	87	% 66	107	% 51	+ % 23
Gipuzkoa	37	% 28	84	% 40	+ % 127
Guztira	132	% 100	211	% 100	+ % 60

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Nabarmendu nahi dugun lehen datu adierazgarria honako hau da: EAEn 211 pisu daude emakumeek prostituzioan dihardutenekoak; pisu horiek Bizkaian (% 51) eta Gipuzkoan (% 40) daude nagusiki.

Pisuetako prostituzioak 2002. urtetik gaur egunera arte izandako bilakaerak pisuen kopuruan goranzko joera argia dagoela islatzen du, % 60 igo baita EAEn oro har, eta % 100etik gora Araban eta Gipuzkoan.

Gipuzkoan gertatutako igoera bereziki hautemangarria da, pisuen kopurua 37tik 84ra handitu baita 5 urtetan eta, beraz, EAEko pisuen % 28a biltzetik % 40a biltzera igaro baita. Araban nabarmen igo da prostituziora zuzendutako pisuen portzentajea; dena den, Arabako lurraldeko pisuek EAEko pisuen guztizko kopuruan duten pisua hiru portzentaje-puntu bakarrik handitu da.

Bizkaiaren kasuan, pisuen presentzia handitu egin den arren, lurraldean kokatutakoen eta EAEkoen arteko proportzioak behera egin du; hala ere, EAEko pisuen % 51 biltzen du Bizkaiak.

22. taula. Pisuen banaketa, motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

	Harremanak izateko pisua/lokala	<i>Madamea</i> duten pisuak	Lagunen pisuak	Pertsona bakarra/Partikularra	Hotela/Etxea bakarrik	Guztira
Araba	% 57	% 0	% 14	% 29	% 0	% 100
Bizkaia	% 44	% 0	% 5	% 48	% 3	% 100
Gipuzkoa	% 28	% 13	% 6	% 44	% 9	% 100
EAEn, guztira	% 38	% 5	% 7	% 45	% 5	% 100

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Pisuetako prostituzioaz hitz egiten denean, 4 tipologia nagusi bereizten dira. Ondoren labur deskribatuko ditugu tipologia horiek, bakoitzak EAEn eta Lurralde Historiko bakoitzean duen pisua aztertu aurretik.

- Harremanak izateko pisua/lokala: Mota horretako pisuak harremanak izateko lokalen antzekoak dira ikuspegi askotatik, esate baterako bertan dauden nesken kopuru handiaren, emakume hegoamerikarren presentzia nagusiaren, zerbitzu eskaintza handiaren, «taximetro» bidezko tarifazioaren eta abarren ikuspegitik.
- *Madamea*: Telefonoa erantzuteaz arduratzen den pertsona negozioaren jabea edo arduraduna izan ohi da. Nesken kopurua txikiagoa izaten da eta ez dituzte mota guztietako zerbitzuak ematen. Gainera, ordutegia mugatua izan ohi da, goizeko 10etatik gaueko 8ak artekoa.

- Lagunen pisuak: Bizpahiru neska egoten dira horietan, berek aukeratzen dute zer zerbitzu eskaini eta ordutegiak murriztuagoak izaten dira. Ordainketa 30 minutuko unitateka egiten da.
- Pertsona bakarra/partikularra: Izenak berak adierazten duen bezala, pertsona bakarra aritzen da prostituzioan pisuan. Ordutegia, zerbitzuak eta tarifak finkatuta egoten dira.

EAE osoan nagusiki bi pisu motatan ematen dira sexu zerbitzuak, eta pisuen % 80 baino gehiago osatzen dute pisu horiek: pisu partikularra edo pertsona bakarrekoa (% 45), eta harremanetarako pisua/lokala (% 38). Gainerako tipologia ez dira pisuen guztizko kopuruaren % 10a osatzera iristen.

Bestalde, zenbakizko daturik ez dugun arren, *madamearen* irudia desagertze bidean dagoela nabaritu dugu; izan ere, iragarkietan agertzen diren harremanetarako telefonoak mugikorrenak baitira gehienetan, eta harremana pertsona jakin batera bideratzen baitute.

Lurralde Historikoka, Araban daude harremanetarako pisu/lokal gehien; Bizkaiak ia proportzio berean ditu pisu/harremanetarako lokalak eta pertsona bakarra/partikularra tipologia; eta Gipuzkoan pisuen % 40ari baino gehiagori dagokie tipologia hori.

23. taula. Prostituzioan pisuetan diharduten emakumeen kopurua, Lurralde Historikoaren arabera. Bilakaera, 2002 urteaz geroztik

Emakumeak					
	2002		2007		
	Emakumeen kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Emakumeen kopurua	Banaketa, lurraldearen arabera (%-tan)	Bilakaera (%-tan)
Araba	30	% 7	54	% 9	+ % 80
Bizkaia	254	% 63	289	% 51	+ % 14
Gipuzkoa	120	% 30	227	% 40	+ % 89
Guztira	404	% 100	570	% 100	+ % 41

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Gaur egun, 570 emakumek dihardute EAEn pisuetan prostituzioan, gehienbat Bizkaian (% 51) eta Gipuzkoan (% 40).

2002an jasotako datuekin alderatuta, prostituzioan pisuetan diharduten emakumeak % 41 gehiago dira. Igoera handia izan da Gipuzkoako Lurralde Historikoan (bertako prostituzioaren % 89 egiten da pisuetan), pisuetan prostituzioan diharduten emakumeen proportzioa % 30etik % 40ra handitu baita.

Pisuetan diharduten emakumeen proportziorik handiena Bizkaiari dagokio oraindik ere (% 50 baino pixka bat gehiago); dena den, 2002ko datuekin alderatuta, beheranzko joera nabari da.

Arabaren kasuan, igoera handia izan da 2002ko egoerarekiko (% 80koa), baina EAEn pisuetako prostituzioan diharduten emakumeen % 9ak bakarrik dihardu bertan.

24. taula. Prostituzioan pisuetan diharduten emakumeen batez besteko kopurua, Lurralde Historikoka

	Emakumeen batez besteko kopurua, pisuko
Araba	2,7
Bizkaia	2,7
Gipuzkoa	2,7
EAEn	2,7

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

EAEn, pisu bakoitzeko ia 3 emakumek dihardute prostituzioan. Datu horri dagokionez, ez dago Lurralde Historikoen arteko alderik.

25. taula. Emakume transexualen eta trabestien presentzia pisuetan prostituzioan diharduten emakumeen artean

	Emakume transexualen/trabestien proportzioa
Araba	% 9
Bizkaia	% 7
Gipuzkoa	% 2
Guztira	% 5

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Dokumentuaren hasierako zatian adierazi dugun bezala, prostituzioan diharduten emakume transexualak eta trabestiak lehen baino ageriago daude. Hala ere, oso zaila da prostituzioan diharduten emakumeen taldean duten pisua zehaztea.

Aipagarria da emakume biologikoek emakume transexualen lehia handia hautematen dutela, eta errezeloa dutela pisuko emakume transexualen presentziari eta kopuru zehatzari buruzko informazioa emateko. Hori dela-eta, zuhurtasunez hartu behar da lortutako informazioa.

Hala eta guztiz ere, EAEn prostituzioan diharduten emakumeen % 5 transexualak edo trabestiak direla jakin dugu, eta lurraldeen arabera aldeak hauteman ditugu; izan ere, Araban dira ugariak, eta Gipuzkoan urrien.

Dena den, ezinbestekoa iruditzen zaigu errealitate horri buruzko informazioa jasotzen jarraitzea, beren benetako kopurura gehiago hurbiltzeko.

26. taula. Pisueta adin tarte nagusia, Lurralde Historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
18-30 urteko emakumeak dituzten pisuak	% 100	% 83	% 75
31-42 urteko emakumeak dituzten pisuak	% 0	% 3	% 15
43-54 urteko emakumeak dituzten pisuak	% 0	% 11	% 10
55 urteko eta gehiagoko emakumeak dituzten pisuak	% 0	% 3	% 0
Guztira	% 100	% 100	% 100

Iturria: Guk geuk egin, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Pisuetan prostituzioan diharduten emakumeen adinari dagokionez, gehienak 18-30 urtekoak direla ikusi dugu.

Arabaren kasuan, 18-30 urteko emakumeak dira nagusi pisu guztietan.

Halaber, Bizkaian eta Gipuzkoan 18-30 urtekoak dira pisuetako emakume gehienak, baina zenbait pisutan adin gehiagokoak dira nagusi.

27. taula. Pisueta emakumeen nazionalitateak, Lurralde Historikoaren arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hego Amerikako emakumeak dituzten pisuak	% 57	% 51	% 71
Afrika azpisahararreko emakumeak dituzten pisuak	% 14	% 3	% 0
Espainiako emakumeak dituzten pisuak	% 29	% 59	% 37
Ekialdeko Europako emakumeak dituzten pisuak	% 14	% 3	% 16
Asiako emakumeak dituzten pisuak	% 14	% 0	% 3
Beste toki batzuetako emakumeak dituzten pisuak	% 0	% 8	% 3

Iturria: Guk geuk egin, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

EAEko pisuetan dauden prostituten nazionalitateari dagokionez, Hego Amerikako emakumeak dira gehien-gehienak, eta, bigarren, Espainiako Estatuko emakumeak.

Araban, pisuen ia % 60an daude Hego Amerikako emakumeak, eta % 30ean Estatukoak. Halaber, Afrika azpisahararreko, ekialdeko Europako eta Asiako emakumeak ere badaude.

Bizkaiko pisuetan, Estatuko eta Hego Amerikako emakumeak dira gehienak, baita Gipuzkoan ere. Hala ere, Gipuzkoan ugariagoak dira jatorriz Hego Amerikakoak diren emakumeak.

Emakume hegoamerikarren % 80 brasildarrak dira; txikiagoa da Kolonbiako, Venezuelako, Boliviako eta Argentinako emakumeen proportzioa.

Ekialdeko Europako emakumeek Errusian dute jatorria nagusiki, baita Errumanian eta Ukrainan ere.

28. taula. Jardueren ordutegia

	Pisuetako jardueraren ordutegia
Egunero, 24 orduz	% 60
Egunero, ordutegi murriztuarekin	% 26
Astelehenetik larunbatera, ordutegi murriztuarekin	% 9
Astelehenetik ostiralera, ordutegi murriztuarekin	% 5
Guztira	% 100

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Pisuetako jardueraren ordutegiari dagokionez, malgutasuna eta zabaltasuna dira ezaugarri nabarmenenak; izan ere, pisuen % 60ek etengabe ematen baitute zerbitzua, egunean 24 orduz.

Gainera, 10etik ia 3k egunero hartzen dituzte bezeroak, nahiz eta ordutegi mugatua daukaten. Astean behin edo bitan ixten duten eta bezeroei arreta emateko ordutegi zehatza duten pisuen proportzioa % 14koa besterik ez da.

29. taula. Pisuetan ordaintzeko modua

	Pisuetan ordaintzeko modua
Eskudirutan bakarrik	% 74
Eskudirutan edota txartelarekin	% 26
Guztira	% 100

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Ordaintzeko moduari dagokionez, gehienetan eskudirutan bakarrik kobratzen dituzte zerbitzuak, eta pisuen % 26ak bakarrik ematen du txartelarekin ordaintzeko aukera.

30. taula. Hotelera/etxera egindako irteerak

	Pisu hauek...
ematen dute zerbitzurik hoteletan/etxeetan	% 22
ez dute ematen zerbitzurik hoteletan/etxeetan	% 78
Guztira	% 100

Iturria: Guk geuk egina, prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta.

Pisuen % 22k bakarrik eskaintzen dituzte zerbitzuak pisuetatik kanpo, hoteletan edo etxeetan, eta proportzio hori % 17koa da mota horretako zerbitzua bakarrik ematen duten pisuak kontuan ez hartuz gero. Hots, pisuen % 17ak bakarrik eskaintzen diote bezeroari harremana pisuan bertan edo bertatik kanpo (hotelean/etxean) izateko aukera.

**PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN
EMAKUMEEN BIZIPENAK**

2. PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN BIZIPENAK

2.1. ERABILITAKO METODOLOGIA

Txostenaren zati honen helburua prostituzioan diharduten emakumeen bizimodua eta ezaugarriak aztertzea da, eta beren arrazoiei, iritziei, bizipenei eta hautemateei erreparatzea. Helburua errealitate horretan murgilduta dauden ingurune sozialari eta beren jardueraren ezaugarriei buruzko informazioa lortzea da, pertsona horien hautemate subjektiboen bidez.

Hori horrela izanik, metodo kualitatiboa erabili dugu informazioa biltzeko; hots, elkarrizketa ireki sakona gidoi erdiegituratuarekin eta, zehazki, bizi historiaren teknika; elkarrizketatutako emakumeen esperientzietan eta hautemateetan sakontzeko aukera ematen du bigarrenak, baita emakumeen errealitate soziala eta beren inguruko errealitatea hautemateko ere.

Elkarrizketatutako emakumeak hautatzeko eta segmentutan banatzeko erabili dugun funtsezko aldagaia prostituzioan jarduten duten esparrua edo lekua da: kalea, klubak eta pisuak.

Arreta lehentasunezko aldagai horretan jarrita, 14 elkarrizketa ireki sakon egin dizkiegu EAEn prostituzioan diharduten emakumeei. Elkarrizketak honela banatu ditugu:

- Kalean diharduten emakumeak: 3 elkarrizketa.
- Klubetan diharduten emakumeak: 5 elkarrizketa.

- Pisuetan diharduten emakumeak: 6 elkarrizketa.

Halaber, emakumeen taldea sailkatzeko, bestelako aldagaiak ere kontuan hartu ditugu elkarrizketatutako emakumeen profilak hautatzeko garaian:

- Adina
- Jatorria
- Emakume biologikoa vs emakume transexuala

Prostituzioan diharduten emakumeekin zuzenean lan egiten duten zenbait elkarteren elkarlanari esker lortu ditugu profil horiek. Haien laguntzarik gabe, ia ezinezkoa izango zatekeen emakumeei elkarrizketa egitea.

Hala, landa lana zeregin nekeza izan da, eta zenbait zailtasun gaingitu behar izan ditugu hura aurrera eramateko, sektorea dezente itxia baita. Aipatutako itxitasunak galarazi egin digu berez oso interesgarriak diren profilei buruzko informazioa lortzea; esate baterako, jatorria Europa ekialdeko herrialdeetan duten emakumeena.

Beraz, ondoren adieraziko dugun informazioa kalean, klubetan eta pisuetan prostituzioan diharduten emakumeen zenbait profili dagokie, aurrez aipatu ditugun elkarrizketatu gabeko emakumeen profilak salbuetsita, noski. Klub gehienak EAEko hirien eta udalerrien erdialdean daude.

2.2. ELKARRIZKETATUTAKO EMAKUMEEN PROFILA

Lehen atal honetan, elkarrizketatutako emakumeen ezaugarri sozio-demografikoetan sakonduko dugu, ondorengo kapituluak hobeto ulertu ahal izateko. Emakume bakoitza identifikatzeko eta definitzeko erabilitako aldagaiak taulan adierazi ditugu, horiek errazago irakurtzea ahalbidetzeko eta aztertutako profilen aniztasuna agerian uzteko.

Lehenik eta behin, nabarmendu nahi dugu jasotako datuak ezin direla, inolaz ere, unibertsoko errealitatera luzatu, aztertutako profilen ezaugarriak bakarrik deskribatzen baitituzte.

Ezinbestekoa da aplikatutako metodologia kualitatiboa dela gogoraraztea eta, beraz, helburua ez dela unibertsoaren⁸ adierazgarritasun kuantitatiboa babestea, ahalik eta profil aniztasun handiena barnean hartzea baizik, betiere azterketaren helburu den taldearekin erlazionatutako mugak kontuan hartuta.

2002an egindako azterketarekiko aldaketa bat izan dela nabarmendu behar dugu, sektoreak izan duen bilakaeraren ondorioz, eta prostituzioan diharduten emakume transexualak ageriago egotearen ondorioz.

Hori horrela, emakume transexualei 4 elkarrizketa egin dizkiegu. Lauak hegoamerikarrak ziren jatorriz.

⁸ Unibertsoa definitzeko eta bere ezaugarriak finkatzeko lana, azterketaren lehen zatian egin dugu.

Ondoren, elkarrizketatu ditugun emakumeen ezaugarriak adieraziko ditugu, beren bizipenak eta gogoetak dagokien testuinguruan kokatzeko eta zehaztasun handiagoz ulertzeko:

JATORRIZKO HERRIALDEA:

JATORRIZKO TOKIA	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Kluba	Pisua		
Espainiako Estatua	1	1	1	3	21,4
Latinoamerika	0	3	5	8	57,2
Afrika	2	1	0	3	21,4
Guztira	3	5	6	14	100

Taulan ikus daitekeen bezala, elkarrizketatutako emakumeen erdiak baino gehiagok Latinoamerikan du jatorria, zehazki Brasilen, Dominikar Errepublikan, Perun eta Kolonbian. **Klubetan eta pisuetan** bakarrik jarduten dute.

Afrikan jaioetako emakumeak Nigeriakoak dira, eta beren jarduera kalera eta klubetara mugatuta dago.

Espainiako Estatuko emakumeen kasuan bakarrik lortu dugu elkarrizketak 3 profiletako emakumeei egitea. Profil horien arteko bakoitzari jarduera esparru bat dagokio.

ADINA:

ADINA	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Kluba	Pisua		
18 eta 25 urte artekoak	0	0	1	1	7,1
26 eta 35 urte artekoak	3	2	3	8	57,1
36 eta 45 urte artekoak	0	2	1	3	21,5
45 urte baino gehiagokoak	0	1	1	2	14,3
Guztira	3	4	6	14	100,0

18 eta 35 urte arteko emakumeen proportzioa % 60 baino handiagoa denez, elkarrizketatutako emakume taldea gaztea da.

Elkarrizketatu ditugun 45 urtetik gorako emakumeak, prostituzioan jarduteaz gain, klubaren edota pisuaren gerentziaz ere arduratzen dira.

EGOERA ZIBILA:

EGOERA ZIBILA	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Kluba	Pisua		
Ezkongabea	3	3	3	9	64,4
Ezkondua	0	1	2	3	21,4
Alarguna	0	0	1	1	7,1
Dibortziatua / Banandua	0	1	0	1	7,1
Guztira	3	5	6	14	100

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, emakume gehienak ezkongabeak dira, eta litekeena da hori beren jarduera motarekin eta jardueraren ordutegiarekin erlazionatuta egotea.

Prostituzioan diharduten emakumeen alderdi subjektiboari buruzko informazioa zabaltzen duen atalean aldagai horren azterketa xehatuagoa egingo dugu. Hautemangaria da emakume horien ia laurdena ezkontuta dagoela, eta % 8 inguru bananduta/dibortziatuta.

SEME ALABAK IZATEA

BA AL DUTE SEME- ALABARIK?	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Kluba	Pisua		
Bai	2	3	2	7	50
Ez	1	2	4	7	50
ED/EDE	0	0	0	0	0
Guztira	3	5	6	14	100

Klubetan edo kalean diharduten emakumeek seme-alabak izatea ohikoagoa izan arren, joera hori alderantzikatu egiten da zerbitzua pisuetan ematen duten emakumeen kasuan. Pisuetan diharduten emakumeen artean emakume transexualak egoteak azal dezake joera hori.

EGINDAKO IKASKETEN MAILA:

Informazioa eman diguten emakumeen jatorriaren artean aldeak daudenez, emakumeen titulazioak edo ikasketa mailak homogeneousatzen saiatu gara, haiek Espainiako Estatuan indarrean dagoen hezkuntza sistemarekin parekatzeko asmoz.

Elkarrizketatutako emakumeen ikasketak katalogatzeko garaian, irizpide murriztailea erabili dugu. Horregatik, titulazioari buruzko zalantzarik izan dugunean, titulazioa edo ikasketa maila zalantzazko titulazioaren aurreko atalean sartu dugu.

EGINDAKO IKASKETAK	TIPOLOGIA			GUZTIRA	%
	Kalea	Kluba	Pisua		
Ikasketarik gabea	0	1	0	1	7,1
Lehen mailako ikasketak	0	1	1	2	14,3
Bigarren mailako ikasketak	1	3	3	7	50
ED/EDE	2	0	2	4	28,6
Guztira	3	5	6	14	100

Elkarrizketatutako emakumeen erdiek bigarren hezkuntzako ikasketak amaituta dituztela adierazi digute. Bestalde, ikasketarik gabeko emakumeen proportzioa ez da % 10era iristen. Hala ere, hautemangarria da emakumeen % 25ek baino gehiagok ez diotela galdera horri erantzun.

2.3. PROSTITUZIOAN JARDUTEN HASTEAK

Elkarrizketatutako emakumeen ezaugarriak deskribatu ondoren, prostituzioan jarduten hasteko zergatiak aztertuko ditugu.

Arrazoen analisia behar bezala egiteko, jarduera esparrua baino garrantzitsuagoa da emakumeak atzerritarrak edo bertakoak diren ikustea.

EMAKUME ATZERRITARRAK

Elkarrizketan, jatorrizko herrialdea bizi baldintza hobeak bilatzeko utzi behar izan dutela aipatu dute lehenik eta behin. Hala, jatorrizko herrialdetik normalean arrazoi ekonomikoengatik (norberarenak zein familiarenak) irteten direla adierazi dute.

«Nik ikasketak egin nituen. Bigarren hezkuntzara arteko ikasketak dauzkat eginda. Amaitu nituenean, ez nuen lanik aurkitu, eta gurasoek ez zuten ni mantentzeko behar adina diru.»

«Nire aita hil zenean, ez genuen laguntzarik jaso. Bere familiak kalte egiten zion amari. Ez ginen ondo bizi.»

«Horregatik hasi behar izan nuen lanean, Peruko bankuari ordaindu beharreko mailegu batek behartuta.»

Arrazoi horiek pentsarazten die bizitza hobeia izan dezaketela. European bizi maila hobeia dutela eta errealitate horri etekina atera diezaioketela uste dute.

Aipatutako elementuarekin erlazionatuta dago familia jatorrizko herrialdean mantentzeko beharra. Hala, beren familien bizimodua hobetzeko bidaltzen dute dirua beren herrialdeetara, edota hemen pilatzen dute, jatorrizko herrialdera itzultzen direnerako.

«Gaur egun egiten ari naizena, nire haurrengatik egiten dut, ongi bizi daitezen eta lanbide bat izan dezaten. Nire gurasoek ezin izan zidaten halakorik eman.»

«Prostituzioan lanean hasiz gero, nire familia eta neure burua zaintzeko izango zela erabaki nuen... Paperik gabe, ezin duzu besterik egin.»

«Horregatik nabil hemen, pisu bat erosteko beharra daukadalako.»

«Ez naiz etxea erosteaz ari, etxea badut; nire negozioa sortzeaz ari naiz. Nire helburua nire negozioa sortzea eta Brasilera itzultzea izan da hasieratik.»

Gainera, garrantzitsua da jatorrizko herrialdean prostituzioan ziharduten emakumeen eta ez zihardutenen motibazioak ezberdinak direla zehaztea. Jarduera lehendik ezagutzen zutenek diru sarrera handiagoak lortzeko itxaropena zuten, beren negozioa sortzeko edota jatorrizko herrialdera berme batzuekin itzultzeko.

«Ni Brasilen hasi nintzen. Han ikuskizunak, irteerak, harremanak... eskaintzen zituzten, eta nik denetarik egiten nuen.»

«Hemen nire herrialdean baino diru gehiago irabazten da. Leku hobe da lan egiteko.»

Behin gure herrialdean daudenean, bada prostituzioan jardutera bultzatzen dituen elementu garrantzitsu bat: honaino iristeko egindako zorra ordaindu behar izatea. Bidaia horiek proxeneta-sareek finantzatzen dituzte askotan. Proxenetek bidaia bera eta bidaiarekin erlazionatutako gastuak ordaintzea eskatzen diete emakumeei, eta hauek beldurra sentitzen dute, zorra ez ordainduz gero edota ordainketa atzeratuz gero jasan ditzaketen ondorioengatik.

«Hona etortzeko, 15.000 euro ordaindu nituen. Bidean gentozela, jan egin behar genuen, garraioa ere ordaindu egin behar genuen... Gastu pilo bat sortzen dira. Bestalde, mota askotako nagusiak daude. Batzuk gaiztoak dira oso, iritsi orduko ordaindu behar diezu... Eta ordaintzen ez badiezu, litekeena da zure etxera joatea eta zure gurasoei kalte egitea.»

«Nire nagusiak 40.000 € ordaindu behar dizkiodala esan dit... Nik 30.000 € ordaindu dizkiot, eta esan diot ez diodala gehiago ordainduko.»

Beste zenbait kasutan, lagunek eta familiartekoez ordaintzen dute bidaia eta, beraz, egindako zorra txikiagoa izaten da. Eta hura ordaintzeko erraztasunak, askoz handiagoak.

«Nire laguna hemen zen ordurako. Berak 3.000 € ordaindu zituen etortzeko, eta nik 5.000 € inguru ordaindu behar izango nituela esan zidan; billetea eta ezer gutxi gehiago.»

Azkenik, EAEko prostituzioari dagokionez, elkarrizketetan ez dugu hauteman engainatuta edota prostituzioa ez den beste lan batean jardungo zirela pentsatuz etorritako emakumeen testigantzarik, ez baitigute horrelakoei buruzko adierazpenik egin. Elkarrizketatutako emakumeek bazekiten zer motatako lana egingo zuten hemen.

Zenbait kasutan ez zekitena, prostituzioan zer baldintza zehatzetan jardungo ziren zen.

«Nik banekien zertara nentorren.»

«Baina nik banekien zertara nentorren Espainiara, nolakoa izango zen, zenbat diru ordaindu beharko nuen... Ez dut inolako arazorik izan.»

«Itzuli nintzenetik hilabete bat ere igaro ez zela, norbaitek Europara etor nintzekeela esan zidan. Nire nagusiak esaten zuen Europa hobea zela Afrika baino, eta prostituzioan jardungo nintzela banekien arren, ez nekien nola eta non arituko nintzen.»

Alde horretatik, argi utzi behar da elkarrizketatutako emakumeen profilen artean estortsiopean, mehatxupean edo beste nolabait prostituzioan jardutera behartuta dagoen emakumerik egon ez arren, horrek ez duela esan nahi EAEn horrelakorik ez denik gertatzen.

Sortutako itxaropenen asetze-maila

Emakume atzeritarren helburu nagusia beren eta beren familien bizitza baldintzak hobetzea da. Emakumeek nahiko helburu zehatzak dauzkatela egiaztatu dugu haiekin hitz egitean.

Adibidez, jatorrizko herrialdean duten familiari dirua bidali ahal izatea, haien karga ekonomikoak arintzeko. Halaber, emakume batzuek adierazi dute seme-alaben ikasketak ordaintzeko ere bidaltzen dutela dirua.

Zenbait kasutan, berriz, helburua ez da dirua bidaltzea, dirua aurrezteka baizik, etxebizitza bat lortzeko edota beren jatorrizko herrialdera itzultzean beren negozioa sortzeko.

Helburu horiek dira aurrezteko eta beren bidaiaren jatorrizko esperantzak zein helburuak betetzeko motibatzen dituen elementu garrantzitsuenak.

«Askok ez dute begi onez ikusten nire lana, baina nik errespetu handia diot, onura asko eman baitizkit; izan ere, lan honi esker hezi ahal izan ditut nire seme-alabak. Horretaz gain, seme-alabei bizi kalitate ona eman diet, eta nik neuk ere asko ezagutu eta ikasi dut.»

Hala ere, beste kasu batzuetan, ezin izan dituzte jatorrizko herrialdetik etorri zirenean zituzten esperantzak edo helburuak bete. Kasu askotan, prostituzioaren inguruko baldintzen ondorioz gertatu da hori; denborak aurrera egin ahala, ordean, beste esperantza batzuk sortu zaizkie.

«Nik ahalik eta denbora gutxien eman nahi nuen honetan; asko aurreztu nahi nuen. Baina uste baino askoz ere denbora gehiago daramat, eta jarraitzeko asmoa dut.»

Esperantzak ez bete izanaren arrazoiak askotarikoak dira. Askotan, pilatutako gastuak aurreikusi zituztenak baino handiagoak izaten dira, eta horrek negatiboki eragiten die beren aurrezteko gaitasunari.

Zenbait kasutan, emakumeek, batez ere bidaiagatik diru kopuru handia ordaintzen ari direnek, ezin dute zorra ordaindu eta, aldi berean, dirua aurreztu.

Halaber, zenbait kasutan arazo ekonomikorik izan ez arren, arazo emozionalak izaten dituzte; esate baterako, depresioak, larritasuna, bakardadea... Familiatik urrun eta ingurune ezezagunean sentitzeak, gainera, areagotu egiten ditu arazoak. Horrek guztiak alkohola eta bestelako drogak neurritz kanpo kontsumitzera bultzatu ditzake eta, hala gertatuz gero, galdu egiten dute aurrezteko gaitasuna.

«Esperientzia txarra izan dut. Joan egin nahi dut. Ez dut bizimodu hau atsegin.»

«Ezin dut gehiago jasan. Ni banoa. Oso bakarrik sentitzen naiz.»

BERTAKO EMAKUMEAK:

Bertako emakumeek prostituzioan jarduteko arrazoiek ere oinarri ekonomikoa dute, baina orokorrean oinarri hori hein handiagoan dago erlazionatuta beren bikotekideekiko mendetasun ekonomikoarekin, pobrezia egoerarekin baino.

Hala, bikote harremana hautsi izanak (bai dibortzioaren ondorioz, bai etxera diru gehien zekarrena [gizonezkoa] hil izanaren ondorioz) bultzatzen ditu emakume horiek prostituzioan jardutera, lehenagoko bizi kalitatea mantendu ahal izateko edo bizirauteko.

«Banandu nintzenean hasi nintzen prostituzioan. Aurrera atera beharra neukan. Beraz, etxetik ihes egin eta klub batean hasi nintzen lanean.»

«Argia ordaintzen nuen, eta telefonoa ere bai. Horretarako horrela ibili behar ote nuen galdetzen nion neure buruari. Baina horretan jarraitzen dut. Zer egingo diot?»

Beste kasu batzuetan, prostituzioan hasi izanaren arrazoia diru sarrera handiak eta bizi kalitate ona lortu nahia izan da.

«Niri ondo bizitzeko aukera ematen dit; ondo doakit. Nik neuk finkatzen ditut erritmoak eta helburuak»

Normalean, ezagunen, iragarkien edota jardueran hastea errazten dien bitarteko baten bidez hasten dira prostituzioan.

Bestalde, oso ezaugarri espezifikoak dituen profila aurkitu dugu bertako emakumeen artean: toxikomania arazoak dituzten emakumeena.

Pertsona horiek beren mendekotasuna ordaintzearen aritzen dira normalean prostituzioan, eta kontsumitzeko duten beharraren arabera izaten da beren jardura maila.

Garrantzitsua da toxikomaniak dituzten bertako eta atzerriko emakumeen artean bereizketa egitea. Izan ere, lehenengoen kasuan, prostituzioa mendekotasuna ordaintzeko modua da; atzeritarren kasuan, aldiz, prostituzioan jardutearen ondorioa da, ez haren zergatia.

«Drogaren beharra dudanean, ordu gehiago ematen ditut lanean. Askatzen naizenean, berriz, noizean behin bakarrik aritzen naiz.»

«Neska batzuek lehen ez zuten drogarik hartzen, eta orain bai: bezeroek eskaintzen dietelako, lanean ordu gehiago emateko...»

Sortutako itxaropenen asetze maila

Emakume atzeritarrek ez bezala, bertako emakumeek ez dute izaten helburu eta esperantza argirik, askoz helburu lausoagoak eta identifikatzen zailagoak baizik. Esperantzak ez dira aurrezteko

beharrarekin lotuegiak egoten, bizi kalitate ona izatearekin edo bizirautearekin baizik, kasuaren arabera.

«Oso zaila da aurreztea, irabazten dena gastatu egiten baita. Nik ondo bizi nahi dut. Ez dut besterik nahi.»

Emakume toxikomanoentzat utopia hutsa da mendekotasuna izaten jarraitzen duten bitartean beren buruei helburuak ezartzea, eta horren jakitun dira. Beraz, ia berehala betetzen dute beren esperantza gertukoena: ondorengo dosia ordaintzea.

2.3. PROSTITUZIOAN JARDUTEKO BALDINTZAK

Prostituzio jarduerak modu bateko edo besteko ezaugarriak ditu, jarduera esparruaren arabera (kalean, klubetan eta pisuetan).

Ondoren, hiru esparruen arteko bakoitza modu xehatuan deskribatuko dugu.

Kaleko prostituzioa:

Ohikoena, sexu harremana eskatzaileen ibilgailuan izatea da, emakumea hartu duten lekutik gertu. Jarduera hori arriskutsua dela aitortzen dute, eta emakume bakoitzak erabakitzen du zer neurritan dagoen bere burua arriskuan jartzeko prest.

«Ezin duzu jakin bezeroa nolakoa den: drogazalea, hiltzailea, jipoitzailea, lapurra... Normalean, autoan igo aurretik eman behar izaten digute dirua...»

Klubak dauden hiriko alderdietan, emakumeek klubetako batekin hitzartu ohi dute bezeroen sarrera, eta gela erabiltzeagatik ordaindu egiten dute. Hori nahiko ohikoa izan da Bilboko Gorte alderdian.

Kaleko esparrua da sexu harremanengatik ordain txikiena jasotzen duena, hein handian bezeroak erakartzearen murriztu egiten dituztelako tarifak, unean uneko beharrezan araberak.

Hala ere, Estatuko beste guneetan zabalduagoa dagoen praktika dela onartzen dute; Madrilgo Casa de Campori buruz ari dira zalantzarik gabe, betan baitago kalean diharduten emakumeen kopururik handiena.

Hala eta guztiz ere, isileko itunen ondorioz prezioak nolabait estandarizatu egin direla ikusi dugu eta, beraz, jarduera nolabait autoerregulatu egin dela pentsa genezake. Prezio estandarizatuak honako hauek dira: 20 € frantseseko eta 30 € koitoko.

«Madrilen jende piloak dago. Ez duzu ezagutzen Casa de Campo? Jende asko ibiltzen da egunez, gauez... Jende mordoa. Horregatik egiten dute prezioek behera... Neska batek 10 € eskatzen baditu, badakite 5 €-ren trukean beste neska bat lortuko dutela...»

«Hemen 20 € kobratzen dira frantseseko, eta 30 euro koitoko.»

Jarduerari eskainitako denbora, asteko egunaren arabera izaten da. Normalean, gaueko hamaiketan hasten dira lanean, eta goizeko 3rak eta 4rak artean uzten diote oro har lan egiteari. Asteburuetan, atzeratu egiten da ordu hori, eta goizeko seiak edo zazpiak arte aritu daitezke lanean.

«Egun batzuetan, gaueko hamaiketatik goizeko lauak arte. Zenbaitetan, bostak arte. Beste batzuetan, seiak arte... Besteetan, ez nintzen joaten.»

Prostituzioa substantzia estupefazianteak kontsumitzeko bitarteko gisa erabiltzen duten emakumeen ordutegia kontsumitzeko beharraren arabera izaten da. Beraz, mendetasuna ordaintzeko behar adina diru dutenean, murriztu egiten dute jarduera.

Prostituzioan diharduten emakumeen segurtasunak garrantzi handia du kaleko prostituzioaren kasuan.

Kalean diharduten emakumeek badakite lokaletan (klubetan edo pisuetan) dihardutenek baino arrisku handiagoa dutela; horregatik, nolabaiteko babes ematen dieten edo babes sentimentua handitzen dieten mekanismoak asmatu dituzte. Adibidez, zenbaitetan bezeroen matrikulak idazten dituzte, bezeroak ezagunak ez badira.

«Autorik ba ote duen, itxura ona hartzen ote diozun, ezagutzen duzun edo ez... Bakoitzak ikusi behar du zer arriskatzeko prest dagoen. Lasaiago egoteko idazten ditugu matrikulak.»

Jarduera esparru horretan, polizia babesle gisa ikusten dute, edo premia izanez gero lagun diezaiekeen eragile gisa. Emakumeek badakite poliziak lanean ari direla, eta agenteak eurekin atseginak direla esaten dute. Kasu askotan, poliziaren esku-hartzea kexen berri ematera mugatzen da, edota etxera joatea edo beste leku batean jardutea gomendatzera.

Atzerritarrek kanporatzeko aginduekin erlazionatzen dute polizia nazionala; horregatik, prostitutek beste segurtasun kidegoen kasuan baino irudi negatiboagoa dute haien inguruan.

«Poliziak bere lana egiten du... Batzuetan onak dira, beste batzuetan errepidera etortzen dira, zenbaitetan gaiztoak dira... Ez dakit, beren lana egiten dute. Gasteizen, polizia zintzoa da. Batzuetan, gugana hurbildu eta berriketan geratzen dira pixka batean. Zertan ari garen galdetzen digute, ea zergatik ez goazen etxera»

Emakumeek badakite prostituzioaren sektorearen barnean kalekoa dela maila baxuenekoa, eta kalean prostituzioan diharduten emakume guztiak kategoria berean sartzen dituztela, bereizketarik egin gabe.

Halaber, badakite prostituzioaren sektorean diru premia handiena duten emakumeak daudela.

Badirudi kalearen esparruan mantenduko diren emakumeak afrikarrak eta toxikomanoak izango direla, eta gainerako emakumeak klubetan edo pisuetan jardungo direla.

Klubetako prostituzioa:

Klubetako prostituzioaren ezaugarri bereizgarriena irabaziak klubetako jabeen eta bertan prostituzioan diharduten emakumeen artean banatzeko ehunekoak dira.

Jaso ditugun testigantzak ez datoz banaketen proportzioarekin bat; horrek pentsarazten du esparru horren barnean klub bakoitzak bere kudeaketa modua duela. Dena den, gehienetan, honako bi mota hauen arteko bat izaten da:

- Eredutean, irabaziak ehunekoetan banatzen dira; orokorrean, % 75-80 emakumeentzat eta % 20-25 klubarentzat.
- Beste ereduan, gau bakoitzeko kantitate finkoa (40-60 €) ordaintzen dute emakumeek, zerbitzuen kopurua edozein izanik ere. Hala ere, hartutako kopengatiko diru sarrerak % 50ean banatzen dituzte lokalaren eta beren artean. Bildu ditugun testigantza guztiak aintzat hartuta, badirudi banaketa eredu hori nahiko estandarizatuta dagoela.

Gainera, emakumeek aukera daukate zerbitzuak klubetik edo hitzartutako ordutegitik kanpo emateko. Kasu horietan, zerbitzuaren banaketa % 50ean egiten da.

«Klubetan % 80a ordaintzen digute. Gainerako % 20a berentzat hartzen dute.»

Tarifei dagokienez ere, nolabaiteko estandarra hautematen da ia klub guztietan, gelan emandako denboraren arabera ordaintzen baita. Tarifak ordu erdiko frakzioetan zenbatzen dira, eta normalean 60 € ordaintzen da frakzioko. Zerbitzu bereziak eskatuz gero, berriz, tarifak handitu egiten dira. Ordu erdiko zerbitzuaren tarifa 60 €-koa izaten da orokorrean, eta ordubetekoa 120 €-koa.

«Ordu erdiko 60 € ordaintzen digute, eta ordubeteko 120 €. Kopak 30 € kostatzen dira, eta % 50 berek hartzen dute.»

Jarduerari eskainitako denbora, klubaren motaren arabera izan ohi da. Emakume askok adierazi digute gaueko 10etan hasten direla, eta goizeko 3retan amaitzen dutela. Halaber, zenbait emakumek goizeko 6etatik eguerdiko 12ak arte lan egiten dutela adierazi digute.

«Hemen gaueko 10:00etan edo 10:30ean hasten gara lanean, eta goizeko 3:00rak arte egoten gara.»

«Goizeko 6etatik gaueko 10ak arte. Baina 6etatik 12etara egoteko aukera dago; hau da, goizeko 6etatik eguerdiko 12etara.»

Klubetan barne segurtasunerako mekanismoak egoten dira, bai segurtasuneko langileak, bai zerbitzariak eta gerenteak, emakumeen segurtasuna bermatzeaz arduratzen direnak.

Askotan alarmak edo txirrinak izaten dituzte geletan, gatazkarik sortuz gero eta emakumea hura ebazteko gai ez izanez gero erabiltzeko. Hala eta guztiz ere, beti dute nolabaiteko babesgabetasun sentipena gelan bezeroarekin bakarrik daudenean.

«Neska gehiago egonez gero, segurtasun handiagoa izaten da, noski. Zerbitzariak eta segurtasuneko langileak egoten dira eta, beraz, segurtasuna ere handiagoa izaten da. Baina segurtasuna ez da horrenbestekoa ere. Gela itxita dagoenean, bezeroak neskari tratu txarra eman nahi badio, hala egingo du. Dena den, neskak oihu egin dezake. Zenbait gelatan txirrinak daude, eta beste batzuetan ez. Hala ere, aldameneko neskak ohartzen gara ezohiko zerbait entzunez gero.»

Klubetan diharduten emakumeek kolean dihardutenek baino harreman txikiagoa dute segurtasun kidegoekin, horiek ez baitira klubetan agertzen, polizia nazionala izan ezik. Izan ere, polizia nazionalak erregistroak egiten ditu, emakume atzerritarren egoera legezkoa ote den egiaztatzeko.

«Poliziek bakean uzten gaituzte, ez gaituzte izorratzen.»

«Besteek ez digute inolako trabarik egiten. Arazoren bat egonez gero, gizonen batekin edo dena dela, lagundu egiten digute.»

«Arazoak sortzen dizkigute polizia nazionalaren sarekadek, paperik gabeko neskak eramaten baitituzte.»

Klubek gainerako esparruekiko duten ezaugarri diferentzial bakarra honako hau da: klubetan eskura izaten direla zenbait motatako drogak (adibidez, alkohola eta kokaina), eta haien eragina nabarmena izaten dela. Ezaugarri horrek ez du esan nahi klubetan diharduten emakume guztiak kontsumitzaileak direnik; dena den, drogak etengabe gertu edukitzeak handitu egiten du klubetako emakumeek droga kontsumitzeko arriskua.

Alde horretatik, zenbait emakumek droga kontsumitu ohi dute (alkohola eta kokaina, batez ere) eta beste batzuek droga hartzearen plantak egiten dituzte bezeroa ez galtzeko, askotan bezeroek berek eskaintzen baitiete kokaina emakumeei.

«Hartzen dituen emakumeak beste bati deitzen dio, eta horrela. Nik oso harreman ona nuen kide guztiekin, eta bi edo hiru bezerorekin edo bezero batekin lan egitera elkarrekin sartuz gero eta niri bezeroak droga eskainiz gero, nik baietz erantzuten nion, eta ondoren bota egiten nuen.»

«Nik ez dut drogarik hartzen; ez dut gustuko. Erre ere ez dut egiten, baina jendearen kea irentsi behar izaten dut.»

«Bezeroek batzuetan drogak ekartzen dituzte eta eskaini egiten dizkigute. Baina nik ez ditut hartzen.»

Kluben kokapenari dagokionez, hiriguneetan dauden klub txikiak desagertzeko joera ikusten da. Horrek mesede egiten die hiriaren kanpoaldean kokatutako klub handiagoei edo makroklubei. Gainera, jardueraren diskrezioa handiagoa izatea dakar berekin.

Makroklubak agertzeak klub bakoitzeko dauden nesken kopuruak gora egitea dakar; hala, klub batean 30-40 neska egon daitezke. Kluben antolaketa berri horren ondorioz, taldearekin lanean diharduten erakundeentzat askoz zailagoa da taldeekin harremanak izatea.

Elkarriketetan hitzez hitz hala erregistratu ez dugun arren, makroklubetako egonaldiak denbora jakin baterako izaten direla iradoki digute (plazen sistema), eta hori ezberdina da hiriko klub txikiagoen antzinako antolaketarekiko, horietan mugikortasuna ez baitzen hain ohikoa.

Pisuetako prostituzioa:

Pisuetako prostituzioak zenbait berezitasun ditu gainerako jarduera esparruekin alderatuta. Adibidez, bezeroei diskrezioa eskaintzen zaie, jarduera giro lasaian egiten da, ingurune ezagunak eta etxean emakume gehiagorekin batera egoteak segurtasuna ematen die emakumeei, eta emakumeek berek edo pisuaren arduradunak uzten diete sartzeko zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen.

«Beti egoten da arduradun edota jabe bat, edo biak. Bezeroa iristen denean, arduradunak irekitzen dio atea. Seguruagoa da, bai guretzat, bai pisua eta dirua zaintzeko ere.»

Bestalde, plazen sistema erabiltzen dute, klubetan bezala. Pisuetan diharduten emakumeek ez dute 21 egunez gorako egonaldirik egiten; izan ere, pisuetako zerbitzuak eskatzen dituztenek berrikuntzak eskatzen dituzte eta, beraz, pisuko neskak etengabe aldatu behar izaten dira.

«Bai, pisu bakoitzaren arabera izaten da hori. Hilean behin, hilero. Ez halabeharrez, baina normalean bai. Hilabetez izango naiz hemen, gero beste hiri batera joango naiz, gero beste batera, eta handik denbora batera itzuli egingo naiz.»

«Jendeak aurpegi berriak ikusi nahi ditu.»

Ez dago alde handirik pisuetako tarifen eta klubetakoen artean. Ordu erdiko tarteetan zatitzen dira guztiak. Hala, 60 € kobratzen dira ordu erdiko, eta ordubeteko zenbatekoa aldakorra da, 100 eta **120 € artekoa**.

Pisuetan gau osoa bertan igarotzeko aukera ere badago, baina inork ez dizkigu zehaztu kasu horiei dagozkien tarifak.

«Ordu erdiagatik 60 € kobratzen dugu, eta ordubetegatik 100 €.»

«Orduerdi 60 €, hiru ordu laurden 90 euro eta ordubete 120 €. Zerbitzu bereziak ere badaude: sadoa, musu beltza, frantsesa gabe... Kasu horietan, tarifa orduko 150 €-koa da.»

Ordutegiari dagokio emakume horien arteko alderik handiena; izan ere, zenbaitetan pisuak 24 orduz egoten dira erabilgarri, baina bertan bizi diren emakume batzuek ordutegi jakin batean bakarrik ematen dute zerbitzua.

Ordutegiaren ondorioz, ezin izaten dute pisutik kanpo denbora asko eman. Zenbait emakume egunean gehienez ere hiru orduz irteten dira etxetik, eta ez dira inoiz gehiegi urruntzen, norbaitek zerbitzua eskatuz gero gertu egon nahi izaten dutelako, edota ingurua eta hiria ondo ezagutzen ez dutelako.

«Nik ez dut ordutegirik. Mugikorra eramaten dut, eta bertara deitzen didate.»

«Pisu askotan ordubetez bakarrik uzten dizute kalera irteten, eta ordu hori bakarrik izaten duzu ileapaindegira joateko, bankura...»

«Leku batzuetan goizean ordubete eta arratsaldean beste ordubete bakarrik uzten diete libre, edota eguneko ordubete besterik ez. Beste zenbaitetan, egun libre bat izaten dute, lanegunen batean edota igandean.»

Pisuen berezitasuna publizitatea egiteko beharra da, gainerako prostituzio esparruak begien bistan edo kalean bertan egoten baitira. Orokorrean, iragarkien kostua erdibana ordaintzen dute neskek eta pisuaren arduradunak.

Dena den, zenbait pisutan neskek iragarkiaren % 100a ordaindu behar izaten dutela jakin dugu, eta beste pisu batzuetan arduradunek nesken iragarkiak oso-osorik ordaintzen dituztela.

«Nik iragarkiaren erdia ordaintzen dut, eta arduradunak beste erdia. Baina nik hitz egiten dut bezeroekin.»

«Nahi izanez gero, zuk iragarkia ordaindu eta nik plaza sortuko dizut.»

«Zuk erosi behar dituzu kondoia, zuk ordaindu iragarkia...»

Kasu askotan, prostituzioan diharduten emakumeek nahiago izaten dute iragarkia partzialki edo osorik ordaindu; hala, beren mugikorra agertzen da iragarkian, eta horrek bezeroa erakartzeko aukera gehiago ematen dizkie.

Irabaziak erdibanatu egiten dituzte, orokorrean. Irteeren kasua salbuespena da. Halakoetan, garestiago kobratzen da zerbitzua (150 €), eta banaketa honako modu honetan egiten da: 100 € neskarentzat, eta 50 € arduradunarentzat.

«Bai iragarkia, bai guk egiten dugun guztia, erdibana ordaintzen dugu; hau da, % 50 emakumeok eta % 50 pisuaren jabeak.»

«Eta hortik erdia zuretzat, eta beste erdia pisuarentzat. Irteeretan, 150 € kobratzen ditugu, gehi taxia. Horrelakoetan, pisuak 50 € hartzen ditu, eta guk 100 €.»

Pisua ez da emakumeen lantokia bakarrik, haien bizilekua ere bada. Beraz, emakumeek partekatu egiten dituzte pisuko gastuak; bai eguneroko erosketak, bai ordaindu behar diren ordainagiriak ere.

«Orduan, zer gertatzen da? Nik atea irekitzen dut, telefonoa hartzen dut... Neurri batean, denok hartzen dugu etxean gertatzen denaren erantzukizuna.»

Pisuetan diharduten emakumeek harreman txikia dute segurtasun-kidegoekin; alde batetik, apenas dutelako harremanik kalearekin eta, beste aldetik, diskrezioz jokatu behar dutelako, eraikineko bizilagunak beren presentziaz ahalik eta gutxien ohar daitezen: eskaileretan jendea egotea edo gainerako bizilagunei enbarazu egitea saihestuz

«Nire ezagun batzuk ez dira pisutik irteten, edozer lekutan poliziak atzeman egingo dituela uste baitute... Berez ez da hala, baina...»

«Pisuetan indarkeria gutxiago dago, eta jabea dagoenean ahalik eta modu onenean aurkitzen die irtenbidea indarkeriazko egoerei, poliziarekin arazorik sor ez dadin.»

«Polizia oso lasaia da Espainian.»

Emakumeek adierazi digute prostituzioaren sektorean goren unean daudela pisuak, hiri guztietan baitaude, eta gero eta gehiago gainera. Prostituzioan jarduteko modu zuhurragoa eta seguruagoa dela uste dute.

Bestalde, 2002an lortutako informazioari dagokionez, zenbait aldaketa esanguratsu aurkitu ditugu:

- «Pisu mistoak» ugariagoak edo nabarmenagoak dira gaur egun, eta horietan emakume biologikoak eta transexualak daude.
- Emakumeek berek kudeatutako pisuak jarri dituzte martxan, eta haietan dihardute prostituzioan.

2.4. BEZEROAREKIKO HARREMANA

Ondoren, emakumeek bezeroekin duten harremanaren inguruko zenbait elementu aztertuko ditugu.

Bezeroak erakartzea

Prostituzio esparrua edozein izanik ere, beharrezkoa da zerbitzua bezeroarekin hitzartzea, eta alde handiak daude bezeroa erakartzeko moduen artean.

Kaleko esparruan, ohikoena zerbitzuaren eskatzaile potentzialak igarotzen diren leku estrategikoetan egotea da. Kaleko prostituzioaren beste alternatiba bat, kontaktua tabernetan edo kafetegietan egitea da.

Klubetan prostituzioan diharduten emakumeek ere zenbaitetan jotzen dute presentziazko edo aurrez aurreko kontaktura. Hala ere, klubetan zenbait arau egoten dira; esate baterako, bezero potentzialak proposamena onartzeko gehienezko denbora. Dena den, klub bakoitzak bere barne araubide izan dezake.

Edonola ere, pisuetako prostituzioaren kasuan, bezeroak erakartzeko erabilitako metodologia bestelakoa da guztiz. Kontaktua zerbitzuen eskatzaileak egin behar du, normalean egunkarietako harremanen saileko iragarkietan oinarrituta.

Pisuen kasuan, bezeroek telefonoz deitzen dute, zerbitzu horiek espresuki eskatzeko, eta pisura iritsitakoan nesketako bat aukera dezakete. Zenbait kasutan, nesken iragarkiak pertsonalak izaten dira edota beren telefono mugikorreko zenbakiak dituzte adierazita; horrelakoetan,

zerbitzua emakume jakin batekin hitzartzen denez, ez da pisuan emakumea hautatzeko aukerarik egoten.

Esparru bateko eta besteko bezeroen arteko alde handiena sexu harremanak izateko ageriko asmoa da. Izan ere, klubetako bezeroak zerbait edatera gertura daitezke bertara eta, egoeraren arabera, sexu harremanak izan nahi dituzten edo ez erabaki dezakete. Pisuetara bertaratutako bezeroen kasuan, berriz, sexu harremanak izateko asmoa agerikoa da.

Bezeroaren hautematea

Bezeroaren hautemateari dagokionez, bada alderdik bi jarduera esparruen artean.

Kaleko giroan daude bezero mota gehien, bai adinari, bai beste motatako edozer aldagai soziodemografikori dagokienez.

«Mota guztietako jendea dago: atsegina, desatsegina, zikina, garbia... Eta adin guztietakoa: gazteak, helduak eta zaharrak.»

Pisuen patroia eta klubena nahikoa antzekoak dira; hala ere, kontuan hartu behar da bi kasuetan lokalak espezializatuta egon ohi direla eta, beraz, bezeroak ere segmentutan banatu ohi direla.

Litekeena da klubena eta pisuen arteko alde handiena batzuek eta besteek eman dezaketen anonimatua izatea. Pisuak hobeto egokitzen zaizkie pribatutasunari eta gainerakoek ez errekonoiztea nahi duten

bezeroei; klubek, aldiz, harremanak eta erlazioak izateko aukera ludikoa ematen dute, askotan taldean edo koadrilan bertaratzen baitira bezeroak.

«Pisuetara datorren jendeak anonimo izan nahi du; ez du inork ikusterik nahi.»

«Asko taldean etortzen dira klubera, festa giroan.»

Bezeroen eskakizunei dagokienez, sexu zerbitzuez gain, bestelako zerbitzuak ere kontuan hartu behar dira; izan ere, bezeroek, zenbaitetan, sexu harremanak ez diren zerbitzuak eskatzen dizkiete prostituzioan diharduten emakumeei; esate baterako hitz egitea, entzutea, ulertzea eta konpainia egitea.

«Batzuek hitz egin besterik ez dute egin nahi. Gurekin eseri eta bizitzari buruz hitz egin. Prostituzioan zergatik gabiltzan galdetzen digute, etab. Askotan, beste lan bat bilatu beharko genukeela esaten digute, begiratu egiten gaituzte eta, gero, dirua ematen digute... Denetarik dago.»

Hala, 2002an bezala, hiru zerbitzu kategoria daude gaur egun:

- «Ohikoa» koitoa eta felazioa izaten dira, eta kategoria horren barnean aldaketa txikiak egon daitezke. Halakorik egonez gero, litekeena da zerbitzuaren kostua ere pixka bat aldatzea. Aldaera ohikoena naturala da (preserbatiborik gabea); hala ere, bestelako aldaerak ere sumatu ditugu.

- «Zerbitzu bereziak» sozialki gutxien onartutako praktikak lirateke, emakumeek berek ere «gauza arrarotzat» dituztenak. Zerbitzu horien kostua ohikoa baino garestiagoa da eta, dirudienez, gehienbat pisuetako jarduerarekin daude lotuta, horietan diskrezio maila handiagoa baita. Zerbitzu horien artean, grekoa, musu beltza, urre-euria, sadoa eta mota guztietako aldaerak daude. Merkatu orokorraren zerbitzu eskaintza handia izan arren, elkarriketatuta ditugun emakumeek horien arteko batzuk bakarrik ematen dituzte, eta nahiago izaten dute onartzen ez dituzten zerbitzuak ez eman.
- «Konpainia» da, askotan, zerbitzuak kontratatzeko arrazoi nagusia.

Kalean, klubetan eta pisuetan prostituzioan diharduten emakumeek zenbait bezero finkotzat jotzen dituzte. Ez dira asko izaten kopuruaren aldetik, baina nolabaiteko aldizkatasuna izaten dute zerbitzuak eskatzeko orduan, eta neska berbera aukeratzen dute oro har.

Pisuetan diharduten emakumeen kasuan, zailagoa da hori gertatzea; izan ere, aurrez adierazi dugun bezala, emakumeak pisu batetik beste batera joaten dira denbora jakin bat igaro ondoren. Hala eta guztiz ere, bildutako zenbait iruzkinen arabera, zenbait gizonak emakume jakin batek hirian plaza berriro hartzen duenean abisa ditzatela eskatzen dute.

Bezeroekin izaten dituzten arazoak

Bezeroek sortutako arazoei dagokienez, elkarrizketatutako emakumeek arazoei garrantzia kentzeko joera dute.

Emakumeen ustez, arazoen iturri nagusia zerbitzua bezeroarekin argi ez ituntzea edo ixtea da.

Jarduera esparruaren arabera bereiziz gero, kaleko arazo ohikoenak emandako zerbitzuak ez ordaintzea eta lapurreta dira. Gainera, irainak eta mespretxuak ere izaten dira tartean.

Klubetan bezeroekin arazoak inoiz edo behin izaten diren arren, dirudienez inoiz ez dira handiak izaten, horrelakoetan inguruan dabilzan gainerako neskek eta klubaren barneko segurtasun neurriek esku hartzen baitute eta, hala, egoerari irtenbidea aurkitzen saiatzen baitira.

Pisuetan diharduten neskek bezeroekin arazo gutxiago dituztela aipatu dute, bezeroek denbora gutxi ematen baitute pisan, eta sexu harremana izaten ematen baitute denbora hori.

Edonola ere, gertaera horiei buruz argi eta garbi hitz egiteko nolabaiteko erreparoa dagoela nabaritu dugu. Dena den, badirudi bezero liskargileenak jatorria Afrikaren iparraldean dutenak direla, kasu askotan emakumeek zerbitzuak murrizten baitizkiete pertsona horiei, eta ez baitaude haiei zerbitzua emateko prest.

«Espainiarrak ez dira hain zakarrak. Zuk eramaten dituzun bidetik joaten dira. Hemen marokoarrak dira gaiztoak. Nik ez dut berekin igo nahi izaten.»

«Ez dakit, zoratuen dauden bezero gehienak horiek dira, marokoarrak eta aljeriarrak, eta guk hartzen ez ditugunez...»

«Ez, oso lasaiak dira. Noizbait izan dugu arazorik, baina hitz eginez konpondu ditugu.»

Hileko irabaziak

Prostituzioan diharduten emakumeen hileko irabaziei dagokienez, ikusi ahal izan dugu ez dutela datu zehatzik eman nahi. Daturik ez emateko eman diguten arrazoia, diru sarrerak hilabete batetik bestera asko aldatzen direla da.

Hala ere, emakume gehienek adierazi dute diru sarrerak 2002. urtekoak baino txikiagoak direla nabaritu dutela, jarduera esparrua edozein izanik ere.

2.5. PROSTITUZIOAREKIN LOTUTAKO BIZIPENAK

Ikerlanaren zati honetan, emakumeek euren jardueraren ondorioz dituzten bizipen pertsonalak argitzen saiatuko gara; familiarekin, ingurunearekin eta gizartearekin dituzten harremanak argitzen, hain zuzen.

Prostituzioan jarduteko arrazoen kasuan bezala, gai honetan emakumeen artean aurkitu ditugun aldeak ez dira jarduera esparrutik eratortzen, bertako edota atzerriko izatetik baizik.

Familiarekiko harremana

Atal honetan, funtsezkoa da emakumeen eta beren familien arteko distantzia. Hain zuzen ere horretan datza tokiko emakumeen eta emakume atzerritarren adierazpenen arteko alde handiena.

Emakume atzerritarren kasuan, familia, orokorrean, prostituzioan diharduten lekutik kanpo egoten eta, horregatik, askotan familiako inork ez du beren egoeraren berri izaten.

«Nire familiak ez du imajinatu ere egiten ni honetan nabilenik.»

Beren herrialdetik kanpo dauden emakumeen kasuan, kontuan hartu behar dugu askotan ez dutela familiarekin harremanik izaten, aurrez adierazi dugun bezala. Familiak jardueraren berri ez izatea «onuragarria» da emakumeentzat, baina oztopo handia izaten da momentu zailetan edo arazoak sortzen direnean, une horietan behar izaten baitute gehien pertsona maiteen eta gertukoen laguntza.

Txostenean adierazi dugun bezala, zenbaitetan familia gertu ez izatea zama bilaka daiteke, eta depresioa edota bakartasun eta babesgabezia sentimenduak eragin ditzake.

«Bai, lekuak ere badu eragina. Izan ere, pisu edo klub batzuetan bakarrik zaude, eta ez oso ondo. Ez duzu ezer egiten eta bakarrik geratzen zara, itxita, zure herrialdetik eta familiatik urrun...»

Elkarriketatu ditugun bertako emakumeen kasuan, ez dugu familiak prostituzioan jarduteagatik arbuiaututako kasurik hauteman. Ez dirudi familiako kideekin dituzten harremanak narriatu egin direnik. Emakume toxikomanoen kasuan, gainera, emakumeek berek nahi izaten dute familiarekiko distantzia mantendu.

«Gaur egun, nire seme-alabek badakite drogazalea naizela. Eta ezin didate esan "Ama, zergatik egiten duzu hori?" Ez dira nire bizitzan sartzen.»

«Harremanetan jarraitzen dut familiarekin. Amari orain eman diot gertatutakoaren berri, orain ez bainago drogan sartuta. Esan diot droga uzten ari naizela, eta ondo egon arte ez naizela etxera itzuliko. Ez nautela bota esan didate, neroni joan naizela.»

Afektibitate harremanak

Bikote harremanak edo harreman sentimentalak izatea zaila dela aitortzen dute, eta emandako arrazoiak prostituzioan jardutearekin erlazionatuta daude beti. Euren egoerak erlazio egonkorra izatea zailtzen die prostituzioan diharduten emakumeei. Bikote harremana edo harreman sentimentala dutela esan digutenean, jardueraren bidez ezagututako pertsoekin izan da ia beti.

«Bai, duela 4 urte izan nuen bikotekidea, baina oso zaila da prostituzioa eta bikotea edo maitasuna uztartzea.»

«Baina beno, lanak ere ez dit bikotea izateko aukera handirik ematen, etengabe bainabil hara eta hona.»

«Orain ez dut bikotekiderik ezin dudalako izan, zaila delako. Mutil askorekin joaten naiz afaltzera, baina gero lanean pentsatzen hasten naiz... Izan ere, diruzalea bilakatu naiz, egunero dirua jasotzera ohitu naiz... Eta, afaltzen gaudela, zertan ari naizen galdetzen diot neure buruari, horrek ez didala dirurik ematen pentsatzen dut, eta lan egin behar dudala.»

«Batzuetan sortu egiten da. Jende askok aurkitzen du bikotea lanean ari dela. Ni ez naiz bila ari. Noizbait iritsiz gero, ederki; bestela, ezer ez.»

Harreman sozialak

Erlazio sozialen barnean daude, halaber, prostituzioan diharduten emakumeen arteko erlazioak. Horri dagokionez, zenbait iruzkin jaso ditugu.

Hasieran, jardueragune bereko emakumeen artean erlazio arazorik ez dagoela nabarmendu dute emakumeek; izan ere, aurrez adierazi dugun bezala, elkar defendatzeko nolabaiteko moduak dituzte.

Baina, elkarrizketan sakondu ahala, liskarrei buruzko zenbait iruzkin jaso ditugu. Jeloskortasuna eta emakume batek beste batena den bezeroarekin harremanak izateko aukera (lehia, azken batez) dira, antza, liskarra sortzen duten arrazoi nagusiak.

Jeloskortasunarengatik egoten dira neska batzuk zerbitzu-eskaintza zabaltzeko eta arriskutsuak diren jarduerak egiteko prest, horrela bezeroaren fideltasuna lortzeko.

«Eta, hemen, ez dakit... Neska batzuk jeloskor jartzen dira. Batzuetan, prest daude zuk egin nahi ez duzuna edo ezin duzuna egiteko. Dena den, horrelakoetan, bezeroa laguna bada, ez da aldatuko; zurekin jarraituko du.»

Gizarteari orokorrean dagokionez, moral bikoitza duela adierazi dute. Emakumeek onartuta dute gizarteak ez duela beren zeregina begi onez ikusten, eta adierazten dute jendearekin harreman ona izaten dutela, harik eta prostituzioan aritzen direla jakiten duten arte.

«Jendeak aurreiritziak ditu. Gurekin egon daitezke, laguntzat har gaitzakete, neska onak garela pentsatu etab. Baina prostituzioan aritzen garela jakin bezain pronto, aldatu egiten dute gurekiko jarrera.»

Elkarrizketatutako emakume transexualen kasuan, jendeak jatorrizko herrialdeetan baino gehiago errespetatzen dituela diote. Aurreiritzi gutxiago hautematen dituzte hemen, eta kalean ere erosoago sentitzen dira.

Orokorrean, bertako emakumeak alde batera utzita, taldearen mugikortasun geografikoak asko zailtzen du gizarteratzea eta ingurunea ezagutzea, baita prostituzioaren esparrua alde batera utzita harreman sozialak izatea ere.

Gainera, kontuan izan behar dugu emakume askorentzat jardueragunea bizigune dela aldi berean, eta, ondorioz, horrek asko mugatzen duela harreman sozialak izateko aukera, baita aisia eta jarduera banantzeko aukera ere. Taldearen mugikortasun geografikoak zaildu egiten du egoera hori.

2.6. SEKTOREAREN HAUTEMATEA ETA NORK BERE BURUAZ DUEN HAUTEMATEA

Ondoren, prostituzioan diharduten emakumeen sektorea aztertuko dugu, bai eta beren buruak hautemateko moduari dagokionez funtsezkoak diren alderdiak ere.

Sektorearen hautematea

Prostituzioan diharduten emakumeak dira sektorearen egoera eta bilakaera deskribatzeko gaitasun handiena dutenak.

Prostituzioan diharduten emakume gehienek adierazi dute pisuetan jarduteko gero eta joera handiagoa dagoela sektorean.

Gertaera horrek, makroklubetara zuzendutako joera berriak eta emakume atzeritarrek (afrikarrak, batez ere) kalean presentzia handiagoa izateak berrituratu egin dute sektorea.

«Lehen baino pisu gehiago daude. Kluben kopurua ez da hainbeste handitu, baina partikularren pisuena bai. Hirietan pilo bat daude. Trabesti eta neska gehiegi daude.»

«Nik, adibidez, 50 € kobratzen ditut, baina neska batzuek, beste pisu batzuetan, askoz gutxiago kobratzen dute gauza beragatik; 10 edo 20 €. Bezeroak dirua badu eta nik zerbitzua ematea nahi badu, nik eskatzen diodana ordainduko dit; baina dirurik ez badu, ez diot zerbitzurik emango. Orduan, zerbitzua merkeago emateko prest dagoen beste batengana jo dezake. Hori ondo datorkio bezeroari, noski, gutxiago ordaintzen baitu zerbitzu beragatik. Baina hor irmo jokatu behar dugu, bestela bezeroak merke ibiltzen ohituko baitira.»

Halaber, emakumeek adierazi dute gero eta transexual eta trabesti gehiagok dihardutela prostituzioan, eta bezero askok eskatzen dituztela haien zerbitzuak.

«Gero eta transexual gehiago daude. Eta, gainera, bezero askok jotzen dute berengana. Lan asko egiten ari dira.»

Harremanak preserbatiborik gabe izateko eskariek ere gora egin dute, batez ere «frantsesa gabek». Emakumeek adierazi dute jarduera horiek arriskutsuak direla bai berentzat, bai bezeroentzat.

Denborak aurrera egin ahala nabaritu duten beste aldaketa bat da gizartean, orokorrean, droga gehiago kontsumitzen dela, eta prostituzioan bertan asko igo dela. Drogen kontsumitzaileen igoerak asko eragin dio prostituzioaren sektoreari; hala, bai emakumeek, bai bezeroek hartzen dituzte drogak sektorean.

«Asko aldatu da egoera. Orain droga asko daude. Gustuko dituzunean, ederki, baina hala ez denean, ez da erraza izaten.»

Sexu zerbitzua drogekin ordaintzeko aukera ere gero eta ugariagoa da. Lehen ez zegoen horrelako aukerarik prostituzioaren esparruan.

«Bai, orain gero eta mutil gehiagok eskaintzen digute gramo bat, edo bi, 50 €-ren truke. Horrela ondo pasatuko dugula esaten digute... Lehen ordaindu egiten zuten, eta kito.»

«Ez dakit zergatik aldatu diren gauzak. Lehen, gizonak, ordubete, bi ordu, hiru ordu edo kasuan kasukoa ordaintzen zizuten. Eta kokaina hartu nahi izanez gero, hartu egiten zenuen. Orain ez; orain, gizonak, zuk ere kokaina hartzea nahi dute, bestela ez dira zurekin gustura sentitzen. Asko aldatu dira gauzak. Lehen ez zen horrelakorik gertatzen.»

Nork bere buruaz duen hautematea

Orokorrean, onartzen dute gizarteak ez duela beren lana begi onez ikusten, baina badakite prostituzioan jardunez dezente diru irabaz dezaketela. Zenbaitetan, euren egoeraren irtenbide gisa ikusten dute jarduera, egindako zorra estaltzeko edota etxera dirua bidaltzeko behar handia izaten baitute.

Prostituzioan jardutearekin erlazionatzen dituzten beste bi elementu, emakume askoren legez kanpoko egoera eta egoitza zein lan baimenik gabe lana lortzeko aukera eskasak dira.

Ezezagun batekin dauden bakoitzean duten arriskuaren jakitun dira guztiz. Askok mugak edo portaera-arauak ezartzen dizkiote beren buruari, beren segurtasuna ahal den neurrian babesteko.

Aurrez adierazi dugun bezala, kasu gehienetan irekitasunez aitortzen dute prostituzioan dihardutela, eta beren familiak aurrera ateratzeko baliagarri zaiela uste dute. Atzerritarrek, hala ere, nahiago dute jatorrizko herrialdeetan eta familiaren aurrean beren jarduera isilpean mantendu. Hala eta guztiz ere, badakite beren jarduera ez dagoela gizartean onartuta, eta ez dute beren seme-alabek prostituzioan jarduterik nahi.

«Kalean lanean diharduten emakumeen bizitza ez da erraza.»

«Erraza ez behintzat. Inondik inora.»

Baina, beste aldetik, esker onekoak dira prostituzioarekiko, beren familia aurrera ateratzeko aukera eman diela uste baitute.

«Hemen, ez dut prostituta naizela esateko arazorik, baina Brasilen... Han andre bat naiz, nire semearen ama. Zenbait neska Brasilen denbora askoan lanean ibili ondoren etortzen dira hona, baina ni ez... Nire familiak ez du prostituzioa onartzen. Eta, jakina, nik ez dut nire semearentzat horrelakorik nahi.»

Talde-identitatea

Alde batetik, taldean bezeroak lortzeko lehia handia daukatela ikusten dute, eta oso jeloskorak dira berenak direla uste duten bezeroei dagokienez. Baina, aldi berean, beren arteko loturak sortzen dira, errealitate bera bizi baitute eta arazo zein irudi estigmatizatu berberak baitituzte. Lotura horiek erasoen eta arriskuen aurrean elkar defendatzean islatzen dira argien praktikan eta eguneroko bizitzan.

Horretaz haraindi, ez daukate talde identitate sendorik. Dena den, elkartzearen eta talde identitatea sendotzearen aldeko aldarrikapenak egiten dituzte.

«Gu ere langileak gara. Ondo legoke elkartzeko zentro bat sortzea eta bertan hitz egiteko aukera izatea, beste edozein langilek bezala. Guk ere gure zentrori joateko eta bertan laguntzak eta hezkuntza jasotzeko aukera izan nahi dugu. Hona etorri garen askok, mota honetako lana egiten dugunok, ez dakizkigu gauza

asko. Zenbaitetan ez dakizkigu higieneari eta garbitasunari buruzko gauza batzuk ere.»

2.7. PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN ARAZOAK ETA BEHARRIZANAK

Atal honetan, emakumeak bereziki arduratzen dituzten gaietan edo esparruetan jarriko dugu arreta.

Osasuna eta higiena

Txostena egiteko elkarrizketatu ditugun emakume guztiek garrantzi handia eman diete osasunarekin eta higieniearekin erlazionatutako gaiei.

Kalean prostituzioan diharduten emakumeek dituzte zailtasun gehien bezeroen eta beren higiena kontrolatzeko garaian.

Gainerakoentzat, lokalaren garbitasuna funtsezkoa da, eta elkarrizketatutako emakumeek nabarmendu dute behin eta berriro eskatzen dutela lokaletan gutxieneko higiena izatea. Bildutako zenbait adierazpenen arabera, emakume batzuk inoiz ez dira garbitasunari dagokionez kexatzen, instalazioen egoera edozein izanik ere.

Alde horretatik, pisuetako emakumeek jartzen dituzte traba gutxien, emakumeak berak arduratzen baitira pisua garbitzeaz eta hura behar bezala mantentzeaz.

«Klub batzuk oso garbiak dira, eta beste batzuk oso zikinak. Neska batzuek ez dute ezer esaten, eta beste batzuk kexu izaten gara, garbitasuna dela-eta.»

Kezka handia dute sexuaren bidez transmititzen diren gaixotasunen inguruan, eta ez hiesagatik bakarrik.

Dirudienez, horregatik erabiltzen dute preserbatiboa. Hala ere, emakumeen osasunarentzat arriskutsuak diren zenbait jarduera antzeman ditugu, esate baterako «frantsesa, preserbatiborik gabe». Bildu ditugun zenbait iruzkinak diotenez, beti bezeroak dira preserbatiborik ez erabiltzea eskatzen dutenak, eta zenbaitetan diru eskaintza erruz handitzeko prest egoten dira helburu hori lortzeko. Eskari horien aurrean, emakume batzuek onartu egiten dituzte dirua eta arriskua; beste batzuek nahiago izaten dute arriskurik ez hartu.

«Honekin larrua jo, hura miaztu... Batzuetan jendea zikina da, eta usain txarra izaten du... Gainera, kontuan hartu behar ditugu gaixotasunak ere, eta ez hiesa bakarrik. Badaude hiesa baino gaixotasun gogorragoak. Bezeroekin kondoia erabili behar da beti. Zakila miazkatzean ere bai.»

«Hiesa ez da gaixotasun hilgarri bakarra; gaixotasun asko daude. Baina emakume asko ez dira horretaz ohartzen; nahiago dute dirua lortu. Gero eta diru gehiago irabazten ikusi ditugu, lan asko egiten, baina edozer irentsiz.»

Ohiko azterketa medikoak egiten dira, askotan kluban edo pisuen jabeek hala eskatuta; ez emakumeen osasunak ardura berezia eragiten dielako, bezeroen osasunak arduratuta daudelako baizik. Emakumeen artean, nabarmena da osasuna zaintzeko eta babesteko beharrari buruz duten ardura, bai baitakite jarduerak hura arriskuan jar dezakeela.

«6 edo 8 hilabeteetan behin egiten ditut odol-analisiak, sendagile publikoarekin.»

«Beti zaindu izan dut nire burua ginekologoarengana joanez eta azterketak eginez.»

«Urtero egiten ditut ginekologia azterketak, Gizarte Segurantzarekin.»

«Neskek beti egiten ditugu ginekologia azterketak. Nik bi hilabetetik behin egiten ditut. Oraintxe dut txanda.»

Kontuz ibili arren, beti dago arriskuren bat, batez ere jarduera ez-seguruak egiten direnean, noizbehinka bada ere.

«Oraintxe bertan hiesaren analisisa egitera noa. Beldur naiz. Beti zaintzen dut neure burua, baina beti miazkatzen duzu zakilen bat kondoirik gabe, beti ematen diozu musu gizonen bati... eta beldurra ematen dizu analisisa egiteak.»

Emakume transexualek hormonazio prozesuen medikuntza jarraipena egiteko beharra aldarrikatzen da behin eta berriz, automedikazio

jarduerak saihesteko. Izan ere, oso ohikoak eta arriskutsuak dira ohitura horiek.

Legez kanpoko egoera

Atzeritarren kasu zehatza hartuz gero, gehienetan legez kanpoko egoeran daudela ikusi dugu eta, beraz, paperak lortzea lehen mailako beharizana dela.

Kasu askotan, bukatzen ez den soka sortzen da paperik ez izatearen, legezko lanik ezin lortu izatearen eta baliabide ekonomikoak lortzeko beharizanaren ondorioz, eta horren guztiaren eraginez prostituzioan hasten dira, aurrera atera ahal izateko.

«Beno, emakume batzuek prostituzioan jardun nahi dute, gustukoa dute eta ez dute utzi nahi. Kasu horretan, ongi legoke legeztatzea, zergak ordaintzea eta abar. Beste batzuek, aldiz, ez dute prostituzioan jardun nahi; beharrak bultzatuta egiten dute. Horiei beste lan bat aurkitzeko laguntza eman beharko litzaieke, prostituzioa utz dezaten. Ez da gauza bera prostituzioan nahita edo nahi izan gabe jardutea. Bestalde, askok, ia guztiek, paperak behar dituzte; paperak lortu nahi dituzte. Paperen gaia da larriena. Izan ere, paperak badituzu, edozer egin dezakezu, edozer lan lor dezakezu eta, hala, prostituzioa uzteko aukera duzu.»

Sektorearen arautzerik eza

Elkarrizketatutako emakume guztientzat, **prostituzioa lanbidea da**. Horregatik daude Gizarte Segurantzari ekarpena egiteko prest; izan ere, hala, ekarpena egiteak dakartzan onurak erdiesteko moduan egongo lirateke. Sinetsita daude jarduera arautzeak eta araudia izateak hobetu egingo lituzkeela segurtasun zein higiene baldintzak, zerbitzuen tarifak nolabait estandarizatu egingo liratekeela eta, hala, sektorea erregulatzea lortuko luketela.

«Prostituzioa legeztatuta balego, paperen kontuaren aldetik lagungarria litzateke, prostituzioan dihardutenek zergak ordainduko lituzkete... Agian hobe litzateke guztiontzat. Bai, zergak ordaindu ahal izango balira, hobeto geundeko, ez legoke arazorik. Ondo legoke, egia esan.»

«Adibidez, klub batean arituko bagina lanean, zergak ordaindu beharko genituzke, eta paperak izango genituzke. Poliziak guztia behar bezala kontrolatu ahal izango luke, eta ondo legoke, ordainduz gero eskubide gehiago izango baikenituzke. Zenbait herrialdetan hala egiten dute.»

«Bai, babes handiagoa izango genuke. Eta gizartean integratuta sentituko ginateke, hura mantentzeko ekarpena egingo baikenuke.»

ESKU HARTU DUTEN ERAGILEAK

3. ESKU HARTU DUTEN ERAGILEAK

3.1. ERABILITAKO METODOLOGIA

Ikerlan honen hirugarren faseak honako bi funtsezko helburu hauek ditu: batetik, hein handiagoan edo txikiagoan sektoreak erabiltzen dituen baliabideen (bai elkartze-mugimenduarekin erlazionatutakoan, bai publikoen) irismena eta ezaugarriak ezagutaraztea, eta, bestetik, beren iradokizunak eta ekarpenak biltzea, prostituzioan diharduten emakumeen egoera hobetzeko zenbait esparru ezartze aldera.

Hori horrela izanik, lehenik eta behin mapa bat egin dugu taldearekin lanean ari diren zenbait eragile kokatzeko, eta ondoren prostituzioan diharduten emakumeen beharrianak bilduko ditugu; prozesua amaitzeko, hobetu behar diren zenbait esparru zehaztuko ditugu.

Informazioa honako metodologia honi jarraiki bildu dugu:

- 22 elkarrizketa ireki eta sakon egin dizkiegu, gidoi erdiegituratu batetik abiatuta, prostituzioan diharduten emakumeekin modu bateko zein besteko erlazioa duten elkarteei.
- 5 lan-talde sektorial, ikerlanak aztertutako alorrean garatu behar ditugun neurriak berariaz lantzeko. Lan-taldeak honako esparru hauetan banatu ditugu:
 - 1 lan-taldea: prostituzioaren esparru espezifikoa.
 - 2. lan-taldea: gizarte-osasun esparrua.

- 3. lan-taldea: gizarte-laguntza esparrua.
- 4. lan-taldea: gizarteratze-laneratze esparrua.
- 5. lan-taldea: legearen, elkartegintzaren eta parte-hartzearen esparrua.

3.2. PROSTITUZIOAN DIHARDUTENEI ARRETA EMATEN DIETEN ERAKUNDEAK

EAEko prostituzioan esku-hartzeko mapa baliabide publikoen eta gizarte-erakundeen sareak osatuta dago. Erakunde batzuk talde zehatzei bideratuta daude, eta beste batzuk, aldiz, arreta orokorra ematera.

Ondoren eragile-motak aurkeztuko ditugu, eta, hala, egun EAEn prostituzioan jardutearekin lotutako zerbitzu edo lan-ildo nagusiak bilduko ditugu.

1.1.1. ERAGILE ZEHATZAK

Hemen jasotako erakundeek prostituzioan diharduten edo duela gutxi arte prostituzioan jardun diren pertsonekin lan egiten dute zehazki. Esku-hartzearen ildoek ikuspegi integrala dute, hainbat esparru hartzen baitituzte kontuan, besteak beste, informazioa eta aholkularitza, osasuna, etxebizitza-baliabideak eta trebakuntza.

Hauek banan-banan eta xehetasunez azaldu aurretik, aipatu egingo ditugu, eta gure geografian kokatuko:

ERAGILE ZEHATZAK	
<i>ERAGILEA</i>	<i>PROBINTZIA</i>
<i>Gizarterako</i>	<i>Araba</i>
<i>Askabide</i>	<i>Bizkaia</i>
<i>Oblatas</i>	<i>Bizkaia</i>
<i>Aukera</i>	<i>Gipuzkoa</i>

ARABA

GIZARTERA KO: 1986an sortu zen, prostituzioan diharduten pertsonen laguntzarik edo baliabiderik ez zutela-eta, pertsona laiko eta erlijiosoak biltzen ziren talde batean. Prostituzioan diharduten pertsonak laguntzea, babestea, jabetzea eta jarduera hori alde batera utzi nahi duten pertsonen laguntza eskaintzea du helburu.

Bere esku-hartzeak Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta daude, eta harrerarako, laguntzarako eta elkartzeko gune gisa egituratutako tailerren bidez gauzatzen dira. Tailerretan trebetasun sozialak eta ingurumenaren ezaguera garatzen eta sustatzen saiatzen dira (dauden baliabideak nola erabili, lana nola aurkitu...). Alde horretatik, gaztelaniaren eta informatikaren oinarritzko ezaguera erdiestera bideratutako jarduerak egiten dituzte. Bestalde, klubetan eta kalean prostituzioan diharduten pertsonen bisitak egiten dizkiete, eta erabilgarri dauden programei eta baliabideei buruzko informazioa eskaintzen dizkiete. 3 pertsona ditu jarduera garatzeko.

BIZKAIA

ASKABIDE: Erakundea Bilbon dago, eta prostituzioan diharduten emakume transexualekin eta biologikoekin egiten du lan. 1985ean sortu zuten, eta erakunde publikoengandik jasotako ekarpen ekonomikoen bidez finantzatzen ditu bere esku-hartze programak; Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza erakundeek ekarpenen bidez, esaterako. Askabideren baliabide finantzarioen iturriak erakunde pribatuen ekarpen ekonomikoak eta harpidetutako pertsonen kuotak dira. Langileek eta boluntarioek osatutako 40 lagun inguruko taldeak dihardu lanean elkartean. Aipagarria da elkartek bitartekotza-eragile gisa trebatzen dituela bere zerbitzuen emakumezko erabiltzaile batzuk .

Elkartek harrera-zentroa du, eta, gainera, prostituzio-jarduera duten tokietan esku-hartzen du. Erakundearen esku-hartzearen ildoak klubetan, pisuetan eta kalean egindako osasunaren eta drogazaletasunaren esparruko programetan gauzatzen dira.

Gizartearen esparruaren aldetik, elkaratearen 4 pisuk zenbait motatako eskariei erantzuna ematen diete. Honako esparru hauetan egiten dute lan pisuek: drogazaletasuna (Askarri), hirugarren adina (Casa Hogar), larrialdi sozialeko egoerak (larrialdietako pisua) eta gizarteratze-prozesuak (gizarteratze-pisua). Halaber, lanaren esparruari dagokionez, trebakuntza-programak, tailer okupazionalak eta laneratzeko programak garatzen dituzte Casa Hogaren. Azkenik, elkartek lege-aholkularitzako zerbitzua ere badu; harrera-zentroan bertan eskaintzen da zerbitzua.

OBLATAS/LEHIO ZABALIK: Oblatasen Erlijio Elkarteari lotutako elkarte da, eta 1999. urtetik du Bilbon pisua, prostituzioa alde batera utzi duten emakumeak eta prostituzioan hasteko arriskua dutenak hartzeko eta haiei aholkularitza eta orientazioa emateko. Eusko Jaurlaritzari emandako diru-laguntza publikoaren eta berezko baliabideen bidez eramaten du aurrera prostituzioan jarduteari utzi nahi dioten emakumeak ardatz dituen esku-hartzea. 5 pertsona ditu jarduerak garatzeko.

Abegi-etxean hartzen du esku elkarteak, nagusiki, eta bertatik egiten dituzte orientatzeko eta hartzeko lanak, aipatutako egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko. Abegigunea orientatzeko, laguntzeko eta normaltzeko gunetzat hartzen da. Emakumeak baliabide orokorretara eta bestelako elkarteetara bideratzen ditu, edo haietara laguntzen die, enpleguaren, osasunaren, trebakuntzaren eta abarren esparruetako beharrian espezifikoei erantzuna emateko.

GIPUZKOA

AUKERA: Zenbait erakunde publikok finantzatutako proiektua da: Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Aukera proiektua 1998. urtean sortu zuten, aurrez zegoen elkarte batean oinarrituta. Bere helburu nagusia prostituzioaren esparruan lan egitea zen, esku-hartze psiko-sozialean, zehazki. Elkartearen oinarritzko lan-esparrua laguntza, informazioa, aholkularitza eta lan- eta gizarte-orientazioa ematera bideratuta dago, pertsonen baldintzak eta

autonomia hobetzeko eta, hala, emakumeek prostituzioa uztea ahalbidetzeko.

Aukerak erabilera anitzeko zentroa du, eta esku-hartzeko ildoak pisu- eta klub-prostituzioan diharduten pertsonen bisitak eginez garatzen ditu, haiei preserbatiboak eta baliabide erabilgarriak buruzko informazioa eskainiz. Gainera, laguntzera eta ingurunea ezagutzera bideratutako tailerrak ditu, eta bere helburua pertsonen autonomia-maila handitzea eta beren alderdi guztiak hobetzea da (alderdi emozionala eta psikologikoa, laneratzearen alderdia...). Giza baliabideei dagokienez, 6 pertsonak dihardute bertan, erakundearen helburuak erdiesteko lanetan.

1.1.1. GERTUKO ERAGILEAK

Baliabideak edo gizartearen eta osasunaren esparruetan esku-hartzen duten erakundeak dira funtsean. Beren lan-esparru bakarra prostituzioan diharduten pertsonena izan ez arren, erakundeek harreman garrantzitsua dute pertsona-talde horrekin, dela egiten duten lan-motarengatik, dela taldearentzat dituzten programa zehatzengatik.

Gertuko eragileen mapa orokorra honako modu honetan itxuratuta dago:

GERTUKO ERAGILEAK	
<i>ERAGILEA</i>	<i>PROBINTZIA</i>
<i>Arabako HIESaren Aurkako Elkartea</i>	<i>Araba</i>
<i>Gasteizeko Arreta Jarraiturako Gunea (PAC)</i>	<i>Araba</i>
<i>Bizkaiko HIESaren Aurkako Elkartea</i>	<i>Bizkaia</i>
<i>T 4</i>	<i>Bizkaia</i>
<i>Auzolan modulua</i>	<i>Bizkaia</i>
<i>STG Bilbo zerbitzua</i>	<i>Bizkaia</i>
<i>Gipuzkoako HIESaren Aurkako Elkartea</i>	<i>Gipuzkoa</i>
<i>STG Donostia Zerbitzua</i>	<i>Gipuzkoa</i>

ARABA

ARABAKO HIES-AREN AURKAKO ELKARTEA Erakundearen helburuak GIBa (giza immunoeskasiaren birusa) eta STGak (sexu-transmisioko gaixotasunak) prebenitzera eta haiek dituzten pertsonen eta beren inguruari laguntzea da, gizarteak baztertzeko arriskua duten taldeei laguntza emateko, gizartearen, legeen, osasunaren eta trebakuntzaren/lanaren esparruetan. Aipatutako taldeak pertsona seropositiboei, presoei, drogazaleei eta prostituzioan dihardutenei dagozkie gehienetan. Finantzaketa publikoaren (Gasteizeko Udala, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) eta pribatuaren (Vital Kutxa) bidez garatzen dituzte informazioa, aholkularitza eta orientazioa ematera bideratutako jarduerak-ildoak, preserbatiboak eta labaingarriak

banatuz. Elkarateak 2 pertsona ditu prostituzioan diharduten pertsonen taldearekin berariaz lan eginez.

Gasteizeko PAC (Arreta Jarraiturako Gunea): Euskal Osasun Publikoaren Sarean sartutako baliabidea da, eta EAEko beste udalerrietako PACekiko bereizten dituen elementua bertako instalazioetan GIBaren eta sexu-transmisioko gaixotasunen probak anonimoki egiten dituztela da, lehen mailako arretaren ordutegitik kanpoko larrialdietako kasuei arreta emateaz gain. Asteazkenetan egiten dituzte proba-kontsultak erizainek, 10:00etatik 12:30ak arte.

BIZKAIA

BIZKAIKO HIES-AREN AURKAKO ELKARTEA:Elkaratearen jatorrizko helburua HIESaren transmisioaren esparruan prebentzioan lan egitea eta birusaren eramaileei laguntza ematea da. Gaur egun GIBa eta STGak kutsatzea prebenitzea eta baztertutako taldeei laguntza ematea da elkaratearen xedea, eta horretarako gizarte-, zuzenbide- eta osasun-laguntza ematen die baztertutako taldeei. Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak emandako finantzaketa publikoaren bidez preso-, seropositibo- eta drogazale-populazioei eta prostituzioan diharduten pertsonen bideratutako lana eramaten dute aurrera; horretarako, prostituzioan diharduten pertsonen kasuan, jardueraguneetara bertaratzeko dira, haiei bisita egitera.

Erakundeak eguneko zentroa du toxikomanoentzat, eta zenbait programa eramaten ditu aurrera. Aurrean adierazitako taldeen gizarte-

eta osasun-baldintzak hobetzea sustatzea dute helburu nagusi programek, baita etorkinen populazioak GIBa eta STGak jasatea prebenitzea eta haien inguruan gehiago sentikortzea ere.

Prostituzioan diharduten pertsona-taldeari dagokionez, berariazko programa dute; osasunerako hezkuntza du ardatz programak, eta elkarteko pertsona 1 dago hari esleituta.

T4: Erakundea 1992an sortu zen, GIBa duten pertsonen eta beren gizarte- eta familia-inguruneari arreta emateko, informazioa eta prebentzioa helburu dituzten esku-hartzeen bidez. Lan-ildo horri jarraiki, gizarte-bazterketa, drogazaletasun eta prostituzio egoeretan dauden pertsona-taldeeiei eman diegu arreta nagusiki. Haiei laguntza psikologikoa ematen zaie, nork bere buruari laguntzeko programa baten bidez. Programaren edukiak banakako laguntza psikologikoa, talde-terapia, nork bere burua zaintzeko moduak, lege-aholkularitza, etab. dira.

Alde horretatik, gizartearen esparruko esku-hartzea eguneko zentroan egiten da; bertan harremanetan daude hezitzaile sozialekin, eta zenbait gairi buruzko zaintza eta aholkuak jaso ditzakete. Finantziazioa erakunde publikoetatik eta BBKtik jasotzen dute nagusiki, erakunde horrek 9 langile eta 14 boluntario egonkor baititu.

AUZOLAN MODULUA: Erakundearen baliabideak Osakidetzaaren sarean hitzartuta daude, eta esku-hartze psiko-sozialerako moduluaosatzen du; modulua osasun mentalaren eta emakumeei emandako arretaren esparruan lan egitera bideratuta dago, eta arreta orokorraren filosofian oinarrituta dago. Modulua ugal-osasunera, arreta psikologikora, lege-

orientaziora eta toxikomanien tratamendura bideratuta dago nagusiki, eta zentroan 12-14 pertsonak dihardute lanean aipatutako lan-esparruak garatzeko.

Baliabidea San Frantzisko auzoan zegoenez, inguruan prostituzioan ziharduten pertsonak droga-hartzaileak ziren potentzian, eta pertsona horien kopurua garrantzitsua zen. Hala eta guztiz ere, erakundeak egiaztatu du prostituzioan diharduten eta arreta jaso duten pertsonen kopuruak beherantz egiteko joera duela, auzoko jarduera murriztearen ondorioz. Zentrora bertaratzen diren prostituzioan diharduten emakumeek ginekologia-arreta eskatzen dute nagusiki.

STG BILBO ZERBITZUA: Zentroaren izaera orokorra da, eta sexu-transmisioko gaixotasunei arreta ematea du helburu. Baliabidea Osakidetzaaren mendekoa da, eta HIESa Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Euskadiko Planarekin lotuta sortu zen. Kontsulta goizetan eskaintzen du, astelehenetik ostiralera artean, eta erizaintzaren bi profesionalek egiten dute lan bertan.

GIPUZKOA

GIPUZKOA KO HIES-AREN AURKAKO ELKARTEA Elkartea 1998an sortu zuten lehenengoz, eta 1991n bigarren aldiz. Bere xedea HIESari buruz kontzientziaztea eta informazioa ematea zen, baita HIESa kutsatzea ekiditea eta eramaileei eta beren ingurune familiarrari eta afektiboari laguntza ematea ere. Erakundeak egoitza administratiboa du gaur egun, baita bi pisu (harrerarako bata, eta gizarteratzeko bestea) eta bi

unitate mugikor ere. Bere lana HIESa duten gaixoei, GIBaren eramaileei, drogazaleei, presoei, prostitutei eta prostituten bezeroei zuzenduta dago.

Erakundearen esku-hartzeen helburua gizarte-laguntzazkoa eta aholkularitzazkoa da, eta laguntza psikologikoarekin eta talde horiek adierazitako beharizanei buruzko informazioarekin eta orientazioarekinosatzen dituzte esku-hartzeak. Baliabide finantzarioak Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak jartzen dituzte nagusiki, eta 2 pertsona ditu prostituzioan diharduten pertsonen taldearekin zuzenean lan eginez.

ETS DONOSTIA ZERBITZUA: Osakidetzaren mendeko zentro hori 2003an sortu zuten, aurretik Bilbon zegoen baliabidearekin bat etorritz. Baliabidearen helburu nagusia sexu-transmisioko gaixotasunak prebenitzeko, antzemateko eta haiei tratamendua emateko eskariari erantzuna ematea da. Gaur egun hiru erizainek eta bi sendagilek osatutako langile-taldea du. Kontsulta astean bitan pasatzen dute, goizez.

1.1.1. ERAGILE OROKORRAK

Atal honetan adierazitako erakundeek eta baliabideek arreta orokorragoa ematen dute, eta esku-hartzearen zenbait esparru hartzen dituzte barnean: soziala, lan-trebakuntza eta laneratzea, lege-aholkularitza, orientazioa... Erakundeek eta baliabideek ez dute harreman zuzena, jarraitua edota kontzientea izaten prostituzioan

diharduten edo jardun diren pertsonekin, baina beren esku-hartzeak estalitako esparruak kontuan hartuta interesgarriak dira, parte hartzen duten eragileen mapa osatzeko.

GIZARTE/LAGUNTZA ESPARRUA

Gizarte/laguntza esparruaren barnean Cáritas eta Gurutze Gorria ditugu, hiru lurraldeetan.

Cáritasek zenbait mendeko erakunde ditu (Hargindegi, Ekorropa...), eta bere lana gizarte-bazterketaren aurkakoa da. Hala, gizarteak baztertuta edo gizarteak baztertzeko arriskuan dagoen edozein pertsonari ematen dio arreta. Horretarako, zenbait motatako diru-laguntzak ematen ditu, informazioa non jaso adierazten eta informazioa ematen du, harrerazentroak eta bizitoki-baliabideak kudeatzen ditu, trebakuntza-tailerrak garatzen ditu, lan-munduan sartzeko laguntza ematen du...

Bestalde, **Gurutze Gorriak** haurrei, hirugarren adinekoei... arreta emateko zenbait programa ditu. Halaber, etorkinak, ezkutuko bidaiariak eta babes politikoa eskatzen dutenak artatzen ditu. Horretarako, erakundeak informazio-, laguntza- eta aholkularitza-zerbitzua du, baita zenbait bizitegi-baliabide ere.

Esku-hartzearen esparru horrekin jarraituz, zenbait lurraldetan ezarritako bestelako erakunde batzuk daude. Haien lanaren helburua gizarteak baztertutako pertsonai edota zenbait motatako drogazaletasunek eragindako arazoak dituzten pertsonai laguntza ematea da. Beren esku-hartzea aurrean adierazitako taldeei bideratuta dago, zenbait motatako

baliabideak direla medio (adibidez, eguneko zentroak, tailerrak, pertsonak hartzeko eta lan-munduan edota gizartean sartzeko baliabideak, berariazko programak...).

Susterra, Agiantza, Rais, Zubietxe, Bizitegi, Proyecto Hombre, Izangai, Lagun Artean... erakundeek hartzen dute esku, besteak beste, gizarte/laguntza esparruan. Azkenik, **Etorkintza** fundazioaren helburu nagusia drogazaletasunaren aurka borrokatzea da, haren alderdi guztietatik: prebentzioa, errehabilitazioa, eta bergizarteratzea.

TREBAKUNTZA/LANERATZE ESPARRUA

Esparru horretan parte hartzen duten erakundeek trebakuntza-tailerrak eta laneratzeko bideak edo esperientziak garatzen dituzte, eta potentzialki ahulak diren pertsona-taldeei laguntza ematea dute helburu (gazteak, emakumeak, etorkinak, gizarteak baztertutako edo gizarteak baztertzeko arriskuan dauden pertsonak). Mota horretako erakundeen artean dago **Bagabiltza**, 1988an sortua. Bere helburuak laneratzeko trebakuntza eta laguntza ematea da (gizarte-errehabilitaziorako bitarteko gisa), eta emakumeekin egiten du lan nagusiki.

Esparru horren barnean dago, halaber, **Lanberri**. Erakundea 1996an sortu zen, bere lana gazteei zuzenduta dago nagusiki eta trebakuntzaren eta lanaren esparruetan hartzen du esku.

Emaús izeneko erakundeak talde ahulak lanaren munduan sartzeko eta gizarteratzeko egiten du lan, baita **Sartuk** ere. Azken erakunde horrek zerbitzu orokorra ematea du helburu, eta esparru honetan ere lan egiten

du, langabezian dauden pertsonak trebatuz eta lanaren munduan sartuz.

LEGE AHOLKULARITZAREN ETA PARTE HARTZEAREN ESPARRUA

Esparru horretan esku-hartzen duten erakundeak etorkin-, gay-, lesbiana- eta transexual-taldeei lege-aholkularitza, orientazioa eta laguntza ematera bideratuta daude.

Erakundeen artean **Cear-Euskadi** aipa genezake. Bere helburuen artean etorkin asilo-eskatzailleak eta ahultasun-egoeran dauden atzerritarrak defendatzea eta babestea dago, baita haiei laguntza ematera ere. Etorkin atzerritarren taldearekin esku-hartzeko lerro horren barnean beste zenbait erakundek ere lan egiten dute, esate baterako **SOS Racismo-k, Bilbo Etxezabal-ek...**

Udalerri- edo erkidego-mailan **Heldu programa** dago. Haren ondorioz gure erkidegoan bizi diren etorkin atzerritarrei arreta juridikoa emateko zerbitzua sortu da, Eusko Jaurlaritzaren eta Lurralde Historiko bakoitzeko Abokatuen Elkargoaren bidez.

Gainera, Bilboko Udalak **Etorkinentzako Udal Zerbitzua** (SEMI) du, eta hark aholkularitza juridikoa ematen dio etorkinen taldeari.

Arreta lehentasunez transexualei edo homosexualei ematen dieten erakundeen artean **Aldarte**, dago. Erakundea 1994an sortu zen, eta bere helburu nagusiak bi dira: gay-lesbianei eta transexualei arreta

zuzena ematea, baita beren gizarte-familia inguruneari ere, eta gizartea sexu-orientazio horien normalkuntzaren bidean sentikortzea eta hezteak.

Talde horri beste zenbait erakundek ere ematen diote arreta, esate baterako **Ehgamek**, **Hegoakek** edo **Gehituk**. Horiek guztiek aurrean adierazitako ildo berdintsuan egiten dute lan, informazioa emateko eta sentikortzeko zenbait programen eta laguntza, orientazioa eta aholkularitza emateko baliabideen bidez.

3.2.4. EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA, ERAGILE ESKU HARTZAILE GISA

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek ere garrantzia handia dute ezarri berri dugun mapan, honako 3 bide hauen bitartez, nagusiki:

- Eskaintza orokorraosatzen duten eta prostituzioan diharduten emakumeek osatutako taldearen beharizan garrantzitsuak betetzen dituzten zerbitzuak inplementatzea. Zerbitzuak Euskal Osasun Zerbitzuaren mendekoak izaten dira, orokorrean. Honako zerbitzu hauek aipa genitzake:
 - Auzolan modulua (Naxa kalea, 5. Bilbo)
 - STGen Bilboko zerbitzua. (Etxaniz Suhiltzailea enparantza, 1 Bilbo)
 - STGen Donostiako zerbitzua. (Nafarroa etorbidea, 4. Donostia)

- Gasteizeko Arreta Jarraiturako Puntua (Santiago etorbidea, 7. Gasteiz.
- Etorkinen taldeari legezko aholkularitza emateko EAEko zerbitzuak martxan jartzea. Prostituzioan diharduten emakume atzerritarren taldeari ematen diote zerbitzua (prostituzioan diharduten emakumeek osatutako taldearen % 85 eta % 90 arteko proportzioa osatzen dute).
 - Heldu Programa (Eusko Jaurlaritza)
 - Heldu Gasteiz (Baiona kalea, 13/15. Gasteiz.
 - Heldu Bizkaia (Saralegi plaza kalea, 4/5. Bilbo)
 - Heldu Gipuzkoa (Larramendi kalea, 1. Donostia)
 - Bilboko Udalaren Etorkinentzako Udal Zerbitzua. (Pedro Astigarraga kalea, 2)
- Prostituzioan diharduten pertsonen taldearekin zuzenean lan egiten duten elkarten jarduerentzako diru-laguntza/hitzarmena:
 - Gizarterako.
 - Askabide.
 - Aukera.
 - Oblatas.
 - Arabako HIESaren Aurkako Elkarte
 - Bizkaiko HIESaren Aurkako Elkarte.
 - Gipuzkoako HIESaren Aurkako Elkarte.
 - T4 Elkarte.

Orokorrean, honako administrazio eta esparru zehatz hauek dira erakunde horien finantzaketa-iturriak:

- Gasteizeko Udala
 - Gizarte Gaiak.
- Bilboko Udala.
 - Gizarte Ekintza.
- Donostiako Udala.
 - Gizarte Ongizatea.
- Arabako Foru Aldundia.
 - Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
 - Gizarte Ekintza.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Gizarte Politika.
- Eusko Jaurlaritza.
 - Gizarte Gaiak.
 - Osasuna.

3.3. PROSTITUZIOAREN FENOMENOARI BURUZKO ESKU HARTZEA.

Ikerlanaren aurreko faseetan ahalegin handia egin dugu EAEn prostituzioan diharduten emakumeen ezaugarri diren funtsezko elementuak ezagutzeko eta jakinarazteko. Hala, haiek kuantifikatu ditugu, eta, ondoren, beren esperientziak eta bizipenak adierazi ditugu.

Azken fase horretan, osatutako 5 lan-taldeetan sortutako zenbait gogoeta adieraziko ditugu (aztertutako taldeari zerbitzuak ematen dizkieten eragileen mapa ezarri ondoren), prostituzioaren esparruko esku-hartzea hobetzeko.

3.3.1. KONTUAN HARTU BEHAR DIREN ELEMENTUAK

Zenbait kontu gogoan hartzekoak dira, taldearen egoera hobetze aldera:

PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN ZENBAIT PROFIL.

Emakume-prostituzioa oso fenomeno konplexua da, eta horrelako fenomeno baten esku-hartzea planteatzen denean honako premisa hau hartu behar izaten da abiapuntu gisa: taldea ez da homogenea da, hots, taldearen barneko pertsonen ezaugarriak ez dira antzekoak kasu guztietan.

Beraz, errealitateak profil anizkoitzak eta zenbait motatakoak daudela erakusten du, eta horiek kontuan izan behar ditugu.

Hala, taldea segmentutan banatzen duen lehen aldagaia jatorria da, eta zuzenean erlazionatuta dago prostituzioaren jarduera-esparruarekin. Aldagai horren funtzioan honako sailkapen hau ezar dezakegu:

- Emakume azpi-sahararrak, batez ere nigeriarrak, oso gazteak (18 urte ingurukoak). Klean dihardute, gehien bat, prostituzioan.
- Emakume latinoamerikarrak, Brasilekoak batez ere, 18-35 urtekoak. Pisuetan eta klubetan dihardute, nagusiki. Gainera, talde horren barnean emakume biologikoak eta emakume transexualak bereizi behar ditugu.
- Europaren ekialdeko herrialdeetako emakumeak, errumaniarrak batez ere. Oso gazteak izan ohi dira, beren txuloek edo proxenetek zainduta egoten dira eta oso mugikortasun murrizta izaten dute.
- Tokiko emakumeek, bai gazteek, bai helduek, pisuetan eta klubetan dihardute nagusiki. Katetoria horren barnean ere emakume biologikoak eta emakume transexualak bereizi behar ditugu.

Gainera, sailkapen horri emakume atzeritarren profil-taldearen ezaugarri transbertsal bat gehitu behar diogu: egonaldi-denbora/errotze-maila hemen. Ezaugarri horren ondorioz beharizan berriak sortzen dira: seme-

alabak etortzeko, emakumeek trebakuntza jasotzeko, bestelako diru-sarrerak bilatzeko... beharrak.

Beraz, azpimarratu nahi dugu ez dela komeni prostituzioan diharduten emakumez haiek mota bakarreko taldea osatuko balute bezala hitz egitea. Izan ere, talde hori era askotako profilak eta beharrian espezifikoak dituzten emakumeek osatzen dute.

PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN TIPOLOGIAK ETA TALDEAREKIN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEENTZAT HARREMANETAN JARTZEKO ZAILENAK DIREN TALDEAK.

Zenbait profilentzat zaila da zenbait esparrutara iristea eta bertan lan egitea (prebentzioa, osasuna, informazioa...):

- Europaren ekialdetik etorritako emakumeak, proxenetek asko kontrolatzen baitituzte. Gurekin harremanetan jartzea saihesten dute, presio handia jasaten baitute eguneko irabazi-kantitate jakina lortzeko.
- Emakume azpi-sahararrak, hizkuntza eta kultura oztopoa baitira berekin harremanetan jartzeko, eta, gainera, mugikortasun handia eta lan-ordutegi berezia izaten baitituzte (gauez egiten dute lan, eta egunez, lo).

- Bertako emakume gazteak, anonimo izan nahi baitute. Izan ere, ez dute nahi izaten beren jarduera ageriko gauza bilakatzerik, eta prostituzioaren estigma sozialari beldurra izaten diote.

Bestalde, errazagoa da honako talde hauekin harremanetan jartzea:

- Emakume latinoamerikarrak; brasildarren kasuan hizkuntza oztopo izan arren, gertutasun handiagoa dago kulturaren aldetik.
- Tokiko emakume helduak; prostituzio-jardueraren alternatiben bila aritzen dira askotan, edo konfiantza-giroan hitz egiteko aukera eta laguntza psikologikoa behar izaten dituzte.

Elkarteek zenbait talderekin harremanetan jartzeko zailtasunak izaten dituzten arren, zenbait gunetara ere ezin izaten dira sartu beren jarduera aurrera eramateko, esate baterako tamaina handieneko klubetara.

GARATUTAKO NEURRIAK JARDUERA ESPARRU BATEN BARNEAN INTEGRATZEAREN EGOKITASUNA, TALDEA GHETTO BILAKATZEA EDO SOZIALKI ISOLATZEA SAIHESTEKO.

Eredu horrek taldearen isolamendua hausten lagun dezake, eta, aldi berean, baliabideak edo egindako jarduerak optimizatzen.

Gainera, bi gai garrantzitsu adierazten dira, modu osagarrian. Alde batetik, zerbitzu orokorretan sartu arren, kontuan hartu behar direla prostituzioan diharduten emakumeen errealitatea eta berriazko

beharrizanak, praktikan zerbitzuetatik kanpo gera ez daitezen, eta, bestalde, ikuspegi osoa izatearen beharra, zenbait zerbitzuri edo esparruri dagokien lana modu koordinatuan eta sarean egitea errazteko (informazio-, legeria-, gizarte-, osasun-... zerbitzuak edo esparruak).

NOLABAITEKO DESENGAINUA DAGO, ETA EGUNGO EGOERA AZKAR HOBETZEA ESKATZEN DUTE PROSTITUZIOAREN ESPARRUAN LAN EGITEN DUTEN EDO HURA ARDATZ DUTEN PROGRAMAK DITUZTEN ERAKUNDEEK.

Sentimendu horren zergatia 2002 urteaz geroztik aurrerapenik ez hauteman izanak sortu du. Urte hartan egindako ikerlanean emakumeen prostituzioaren alorrean hobekuntzak egiteko aukerei buruzko zenbait proposamen egin ziren. Sentipen orokorraren arabera, taldearen egoerak eta une hartan identifikatutako arazoek edo gaiek bere horretan jarraitzen dute gaur egun.

Alderdi positiboari dagokionez, hautemangarria da Bilboko Udalaren Etorkinentzako Udal Zerbitzuak **(SEMI)** eta **Heldu Programak** asko laguntzen diela beren lanari, eta zerbitzu garrantzitsua ematen dietela prostituzioan diharduten emakumeei. Helduk arreta juridiko-soziala eskaintzen die EAEko etorkin atzerritarrei, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaiaetako Sailaren eta hiru hiriburueta Abokatu Elkargoen arteko hitzarmenaren bidez.

3.3.2. PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN BEHARRIZANAK

Ondoren prostituzioan diharduten emakumeen beharrizan orokorrak bilduko ditugu, eta, bestalde, taldearen barneko profil zehatzekin erlasionatutako beharrizan espezifikoak.

Aurrean aipatu dugun bezala, zenbait beharrizan edo eskaera talde osoarenak dira, bertako emakumeen taldeena ezik:

- Emakumeek erabil ditzaketen inguruneko baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazioa:
 - Elkarateak/gizarte-eragileak.
 - Gizarte-zerbitzuak.
 - Zuzenbide-aholkularitza.
 - Trebakuntza.
 - Osasun-baliabideak.
 - Bizileku-baliabideak.
 - Laguntza psikologikoa
- Etxebizitza lortzeko aukerak. Kasu gehienetan emakumeen legez kanpoko egoerak eta lan-kontraturik ezak emakumeek etxebizitza lortzeko dituzten aukerak murrizten dituzte.
- Erroldatzea, eta, beraz, osasun-txartela lortzea. EAEn bizi arren, legearen ikuspegitik ikustezinak dira, eta ez daude erroldatuta. Horrek asko zailtzen die oinarrizko gizarte-zerbitzuak erabilgarri izatea: Osasuna, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak... Elkarateak egoera

hori arintzen saiatzen dira, eta horretarako emakumeak errolatu egiten dituzte. Ondoren, emakume horien jarraipena egiten dute, beren egoitzan bertan. Baina hori behin-behineko neurria da, eta ohiz kanpoko.

- Emakumeen egoera arautzea, hau da, «paperak lortzea», gaur egun ez dituzten eskubideak lor ditzaten.
- Osasun-baliabideak erabili ahal izatea; hori funtsezkoa da taldearentzat, beren jarduerak zenbait motatako arriskuak baitakartza beren osasunarentzat. Hala, garrantzitsua da emakumeek STGen probak eta ginekologia-azterketak azkar egiteko eta utero-lepoko minbizia prebenitzeko aukera izatea.
- Kudeaketa-lanak egiteko laguntza jasotzea, ingurunea eta askotan hizkuntza ez ezagutzeak asko zailtzen baitu itxuraz errazak diren gestioak egitea. Gainera, laguntza hori funtsezkoa izaten da zitazio judizialen eta abarren kasuetan.
- Trebatzeko aukera, maila oinarritzkoenetik maila aurreatueneraino: lehenengoen artean aipa genitzake gaztelania-ikastaroak, baita ingurumena ezagutzeko edota gizarte-trebetasunak garatzeko ikastaroak ere; bigarrenen artean, aldiz, gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko programak aipa genitzake.

Aurrean aipatutakoez gain, profil jakinen beharizan edo eskari espezifikoak ere badaude:

- Emakume atzerritarrak.
 - Gaztelania ikastea.
 - Seme-alabak eskolatzea.
 - ...
- Emakume transexualak
 - Gaztelania ikastea (emakume brasildarren kasuan)
 - Sendagilearen jarraipena, nork bere burua medikatzea saihesteko.
 - <Prostituzioaren lan-alternatibak (egun ez dago horrelakorik).
- Bertako emakumeak
 - Beren egoera legezkoa izaten denez, ez dituzte legez kanpoko egoeran dauden emakumeen arazo asko izaten. Gainera, anonimo izan nahi izaten duten arren, helduenek laguntza psikologikoa eta bestelako lanetan jarduteko aukera eskatzen dituzte.

3.4. HOBETU BEHAR DIREN ZENBAIT ATALET BURUZKO EKARPENAK.

Ondoren 5 lan-taldeetan egindako gogoeten ondorioz sortutako ekarpenen berri emango dugu, emakumeen prostituzioaren alorreko jardueri dagokienez hobetzekoak diren esparruak zehazten laguntzeko.

Jasotako ekarpenak adierazi aurretik, funtsezko deritzogu prostituzioan diharduten emakumeei buruzko azterketa egituratu duen eta etorkizuneko edozein motatako jarduera modu esanguratsuan baldintzatuko duen elementua aipatzeari:

LEGEZ KANPOKO EGOERA, EGOERA HORRETAN BAITAUDE EAE-N PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUME GEHIENAK: «GEHIENAK EMAKUME ATZERRITARRAK DIRA, PAPERIK GABEKOAK»

Kontuan hartu beharreko lehen gaia da, hein handian baldintzatzen baititu prozesuaren irismena eta helburuak.

3.4.1. IDENTIFIKATUTAKO HOBETUNTZA ESPARRUAK

Lan-taldeetan egindako ekarpenak 7 eremutan taldekatu dira:

1. Informazio-esparrua.
2. Osasun-esparrua.
3. Segurtasun-esparrua.
4. Gizarte-laguntza esparrua.
5. Lege-aholkularitza esparrua.

6. Gizarteratze-laneratze esparrua.
7. Asoziazionismo esparrua.

INFORMAZIO ESPARRUA

Taldearen mugikortasun geografiko handia kontuan hartuta, bai EA Eren mailan, bai estatu-mailan zerbitzu eta baliabide integral interesgarriak (elkarteak, osasun-baliabideak, legezko aholkularitza...) hedatzeko bitartekoak izateko beharra mahaigaineratzen da.

Halaber, sare-lana sustatzeko eta sektorean esku-hartzen duten eragileak koordinatzeko beharrak mahaigaineratzen dira, esperientziak partekatzeko, emandako arreta optimizatzeko, eta taldeari laguntza emateko sare integralak osatzeko. Ildo horretan, babesgabetasun-egoera handienez eta gizarteak alde batera gehien utzita dauden taldeek laguntza horiek jasotzeko aukerak handiago bilakatzeko beharra nabarmentzen da.

Azkenik, prostituzioari buruzko gizarte-eztabaida sakona erraztearen, eragile garrantzitsuek (hiritarrek, eragile sozialek, elkarrekin, partidu politikoek, sindikatuak...) bertan aktiboki parte hartzearen eta prostituzioan diharduten emakumeek ere hitza izatearen garrantzia biltzen da.

OSASUN ESPARRUA

Esparru horretan ekarpenak bi hobekuntza-ildori dagozkie. Batetik, osasun-laguntzaren ildokoak ditugu. Horiek banakako osasun-txartelaren erabilgarritasuna hobetzeko beharra aipatzen dute, errolatzearen zenbait alternatiba bilatzen dituzte eta osasun-zerbitzu publikoetako ginekologia-azterketak malguago bilakatzea eta Gasteizen STGen Zentroa martxan jartzea eskatzen dute (Bilbon eta Donostian martxan daude STG Zentroak). Halaber, emakume transexualen mediku-jarraipenak (endokrinoak) egiteko beharra mahaigaineratzen dute

Bestetik, prebentzioaren eta sentikortzearen esparruetako ekarpenak identifikatzen dituzte. Horiek bai bezeroak, bai emakumeak informatzeko eta kontzientziatzeko beharra adierazten dute, eta, bereziki, emakume transexualei arrisku-jarduerak prebenitzeko beharrari buruz informatzeko eta kontzientziatzeko beharra. Ildo horretan proposatzen da emakumeak bai bezeroekin, bai beren bikotekideekin negoziatzeko gaitzea ere.

Halaber, emakumeek prostituzioan diharduten bitartean eta aisialdian drogak (kokaina, nagusiki) kontsumitzeak berekin dakartzan arriskuak prebenitzeko eta haiei buruz informatzeko beharra planteatzen da (prostituzioan diharduten bitartean drogak hartzeak ekar ditzakeen arriskuak sexu-harremanak seguruak izateko neurriak ez hartzea, ordu gehiagoz lan egitea... dira).

SEGURTASUN ESPARRUA

Emakumeen segurtasunari dagokionez, klubak kasuan bereziki proposatzen da segurtasun-neurriak indartzea, esate baterako geletan txirrinak/alarmak ezartzea.

GIZARTE-LAGUNTZA ESPARRUAK

Eremu horretan ekarpenak hainbat gaiei buruzkoak dira; adibidez, profesionalak trebatzea (oinarrizko gizarte-zerbitzuak, polizia, etab.), etxebizitza izateko aukera bermatzea eta oinarrizko estaldura publikoak eta beste zenbait baliabide erabilgarri izatea (esate baterako, behin-behineko bizileku-baliabideak bizitoki-alternatibarik ez duten emakumeentzat).

LEGE AHOLKULARITZA ESPARRUA

Esparru horretan hautemandako arazoen aurrean, honako lan-ildo hauek proposatu dituzte: legez kanpoko egoeran dauden eta EAEn bizi izan direla frogatu dezaketen emakumeak erroldatzea errazteko formulak bilatzea; iruzurrak prebenitzea (legeztatze-prozesuetan eskudun diren eragileei eta erakundeei buruzko informazioa emanez); dokumentuak definitzea eta sortzea, erakunde publikoek dokumentuak igorri EAEn legez kanpoko egoeran dauden emakumeak daudela egiazta dezaten eta dokumentuek etorkizuneko legeztatze-prozesuetan balioa izan dezaten; eta taldearekin lan egiten duten eta etorkinei legezko aholkularitza ematen dioten zerbitzu publikoen (HELDU, SEMI, ...) arteko elkarlana hobetzea, emandako zerbitzua optimizatzeko jarduerak

protokolo baliagarriak eginez. Halaber, taldeko emakumeei laguntzeko eta aholku emateko beharra adierazten da, haiek administrazio publikoarekin, epaitegiekin eta abarrekin gestioak egin behar dituztenean, baita zitazioak eta abarrak dituztenean ere.

Beste ekarpen batzuk prostituzio-jardueraren baldintzei dagozkie, eta prostituzioan diharduten emakumeen lanaldiak kontrolatzeko formulen beharra adierazten dute (zenbaitetan egunean 12 ordukoak izaten dira, makroklubetan batez ere).

GIZARTERATZE-LANERATZE ESPARRUA

Ekarpenek beste zerbaitetan jardun nahi duten pertsonen gizarteratze-laneratze ibilbideak diseinatzeko beharra adierazten dute, baita ibilbideek gizarteratze-laneratze prozesuaren elkarren segidako faseak aurreikusi behar dituztela ere; esate baterako, oinarritzko beharrianen estaldura, autoestimua eta gizarte-gaitasunak indartzea, bizi-ohiturak normaltzea eta ingurunera ohitzea, profesionalki trebatzea eta gaitzea, laneratze programak sustatzea eta gizarteratze-laneratze prozesu osoan jarraipen pertsonalizatua egitea.

Beste ekarpen batzuk administrazio publikoek (INEM, Langai...) diru-laguntzez babestutako trebakuntza jasotzeko baldintzak malguago bilakatzeko beharra aipatzen dute, baita lan-espezializazioak dibertsifikatzeko beharra ere.

ASOZIAZIONISMO ETA PARTE HARTZE ESPARRUA.

Esparru horretan erlazioguneak sendotzea proposatzen da, taldeko emakumeen boza entzutea ahalbidetuko duten elkartze-jarduerak garatzeko, eta, hala, emakumeen beharrizanak eta eskaerak ezagutarazteko.

IKERLANAREN ONDORIOAK

4.- IKERLANAREN ONDORIOAK

Ondoren ikerlanaren fase bakoitzarekin erlazionatutako ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu:

PROSTITUZIOAREN MAPA SEKTORIALA EAE-N.

Prostituzioaren sektorea zenbait faktore handik definitzen dute. Faktore horiek funtsezkoak dira jardueraren bilakaera eta egungo egitura azaltzeko garaian:

- Mantendu egiten da prostituzioan diharduten emakumeak gero eta hein handiagoan atzerritarrak izateko joera.
- Jarduera pribatizatzeko joera nabarmena hautematen da (klubetan, eta, batez ere, pisuetan).
- Gero eta emakume transexual eta trabesti gehiago ikusten dira.
- Harremanak izateko klubetako enpresariak antolatzen hasi dira estatutan.
- Zenbait pauso ematen ari dira, txikiak izan arren, prostituzioan diharduten emakumeen taldea antolatzeari eta aldarrikatzeari dagokionez.

- Prostituzioa legezkotasunetik kanpo dago oraindik ere.
- Araugintzako ekimen eta esku-hartze ugari gauzatzen dira udalerrietan, autonomia-erkidegoetan eta estatuan.

Zehatzago, ondorengo taulan EAEn prostituzioan diharduten emakumeen kopuruaren zenbatespena eta bilakaera adierazten dira, baita prostituzio-jarduera duten lokalen kopurua ere.

Prostituzioan diharduten emakumeen eta prostituziogune diren lokalen kopuruen bilakaera EAEn (2000-2007)

	Emakumeen kopurua				Lokalen kopurua		
	Kalea	Klubak	Pisuak*	Gutizkoa	Klubak	Pisuak*	Gutizkoa
2.002	160	1.216	404	1.780	102	132	234
2.007	51	1.199	570	1.820	77	211	288
Bilakaera	- % 68	- % 1	+ % 41	+ % 2	- % 24	+ % 60	+ % 23

Iturria: Guk geuk egina.

* Prentsan eta Interneten iragarritako pisuetan oinarrituta kalkulatuta.

2002. urteaz geroztik EAEn aldaketa hauek gertatu dira:

- Kaleko prostituzioak nabarmen egin du behera, prostituzio mota horretan diharduten emakumeen kopurua % 68 jaitsi baita 2002. urteaz geroztik.
- Kluben kopurua murriztu egin da, % 24. Dena den, klubetan prostituzioan diharduten emakumeen kopurua ez da neurri berean txikitu, % 1ekoa bakarrik izan baita beherakada; beraz, emakumeen kopurua egonkor mantendu da. Hori horrela, gaur egun emakume gehiago dago klub bakoitzeko: 2002an 12 emakume zeuden, batez beste, eta 2007an 16.
- Pisuetako prostituzioak nabarmen egin du gora, bai pisuen kopuruari dagokionez (% 60 handitu da), bai bertako emakumeen kopuruari dagokionez (% 41 handitu da).
- EAEn prostituzioan diharduten emakumeen kopurua egonkor mantendu da, % 2ko igoera baino ez baitu izan (1.780 ziren 2002an, eta 1.820 dira 2007an). Prostituzioan diharduten pertsonen kopurua denboran egonkor mantendu den arren, jarduten duten esparruek bilakaera nabarmena izan dute.

PROSTITUZIOAN DIHARDUTEN EMAKUMEEN BIZIPENAK.

Prostituzioan diharduten elkarrizketatutako emakumeen bizipenei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

Prostituzioan jarduten hastea

Beharizan ekonomikoa da prostituzioan hasteko arrazoi nagusia; emakume atzerritarrak jatorrizko herrialdean familia mantendu behar izaten dutelako hasten dira prostituzioan, eta bertako emakumeek, aldiz, ekonomikoki bikotekidearen mendean egotearen ondorioz. Beste kasu batzuetan diru-sarrera handiak eta bizi-kalitate maila ona erdiesteko hasten dira emakumeak prostituzioan, edota substantzia estupefazianteak ordaintzeko.

Jarduera-esparruak

Kale-prostituzioa da arriskutsuena eta zerbitzuak gutxien kobratzen dituen. Jardute-ordutegiak gaueko 11etatik goizeko 4ak artekoak dira, eta asteburuetan luzatu egin daitezke. Badirudi emakume afrikarrak eta drogazaleak mantenduko direla esparru horretan, eta gainerako emakumeak klubetan edo pisuetan jardungo direla.

Klub-prostituzioaren ezaugarri nagusia irabaziak jabeen eta bertan prostituzioan diharduten emakumeen artean banatzea da (zenbait banatze-sistema daude). Kluben jarduera-ordutegi ohikoena gaueko 10etatik goizeko 3ak artekoa da. Klubean jardun arren, beti izaten dute nolabaiteko babesgabetasun-sentipena gelan bezeroarekin bakarrik

daudenean. Eta, orokorrean, hiriguneetan dauden klub txikiak desagertzeko joera ikusten da. Horrek mesede egiten die hiriaren kanpoaldean kokatutako klub handiagoei edo makroklubei. Gainera, jardueraren diskrezioa handiagoa izatea dakar berekin.

Pisu-prostituzioaren ezaugarri nagusia bezero potentzialari diskrezio handiagoa eskaintzen diola da. Irabaziak erdibana banatu ohi dira jabearen edo arduradunaren eta zerbitzua eman duen emakumearen artean, eta, gainera, gero eta mugikor-erreferentzia gehiago ageri dira prentsako iragarkietan, bezeroa pisura bertaratu aurretik erakartzeko aukera ematen baitiete erreferentziek emakumeei.

Bestalde, 2002an lortutako informazioari dagokionez, pisuen kasuan zenbait aldaketa esanguratsu aurkitu ditugu:

- «Pisu mistoak» ugariagoak edo nabarmenagoak dira gaur egun, eta horietan emakume biologikoak eta transexualak daude.
- Emakumeek berek kudeatutako pisuak jarri dituzte martxan, eta haietan dihardute prostituzioan.

Bezeroak

Bezeroaren profilari dagokionez, bezero-moten ugaritasuna kalearen esparruan dela handien ikusi dugu, bai adinari, bai beste edozein motatako aldagai soziodemografikoei dagokienez. Pisuak hobeto egokitzen zaizkie pribatutasunari eta gainerakoek ez errekonozitzea nahi duten bezeroei; klubek, aldiz, harremanak eta erlazioak izateko aukera

ludikoa ematen dute, askotan taldean edo koadrilan bertaratzen baitira bezeroak.

Gizarte-harremanak

Bestalde, atzerritarren kasuan emakumeen eta beren familien arteko distantzia fisikoak emakumeen gizarte-harremanak baldintzatzen ditu, eta horrek depresio-egoerak edo bakardade- eta babesgabetasun-egoerak gertatzea errazten du. Bertako emakumeen kasuan, berriz, anonimatoan egon nahi izateak eta gainerakoek beren jardueraren berri jakiterik nahi ez izateak mugatzen dituzte gizarte-harremanak.

Bikote-harremanak edo harreman sentimentalak izatea zaila dela aitortzen dute, eta emandako arrazoiak prostituzioan jardutearekin erlazionatuta daude beti.

Jarduera-kideekin dituzten harremanei dagokienez, jeloskortasunak edo beste kide batek nork beretzat duen bezeroarekin harremanak izateko aukerak sortzen dituzte arazo gehien.

Sektorearen bilakaera

Prostituzioan diharduten emakumeek berek hautematen dute pisuek gero eta garrantzia handiagoa dutela sektorean. Gertaera horrek, makroklubetara zuzendutako joera berriak eta emakume atzeritarrek (afrikarrak, batez ere) kalean presentzia handiagoa izateak berritxuratu egin dute sektorea.

Gainera, emakume transexualen eta trabestien zerbitzuen eskaria handia da, eta sexu-harremanak preserbatiborik gabe izateko eskaerak gero eta ohikoagoak dira (batez ere, «frantsesa gabe»).

Beste elementu hautemangarri bat gizartean orokorrean eta prostituzioaren esparruan bereziki droga gehiago hartzen direla da, kokaina batez ere.

Nork bere buruaz duen hautematea, eta beharrianak

Emakumeek beren buruaz duten hautemateari dagokionez, aitortzen dute gizarteak ez duela beren lana begi onez ikusten eta onartzen, eta beren seme-alabentzat halakorik ez dutela nahi diote.

Txosten hau egiteko elkarrizketatutako emakume guztiek oso garrantzi handia eman diete osasunarekin eta higieనేarekin erlazionatutako gaiei, eta sexu-transmisioko gaixotasunek asko arduratzen dituztela adierazi dute.

Legezko egoerari dagokionez, kasu gehienetan emakume atzerritarrak legez kanpoko egoeran daudela ikusi dugu eta, beraz, paperak lortzea lehen mailako beharrizana dela berentzat.

ESKU HARTU DUTEN ERAGILEAK

Prostituzioaren errealitateari dagokionez kontuan hartu behar diren gaiak:

- Prostituzioan diharduten emakumeen zenbait profil daude.
- Taldearekin lan egiten duten elkarreentzat askoz zailagoa da prostituzioan diharduten emakumeen zenbait tipologiarekin harremanetan jartzea eta zenbait jardueragunetara iristea.
- Garatutako neurriak jarduera-esparru orokorrean sartzearen egokitasuna, prostituzioan diharduten emakumeen taldea sozialki isolatzea edo «ghetto bilakatzea» saihesteko.
- Nolabaiteko desengainu-giroa eta taldearen egungo egoera azkar hobetzea eskatzen dute prostituzioaren esparruan lan egiten duten edo hura ardatz duten programak dituzten erakundeek.
- Legez kanpoko egoera: «Gehienak emakume atzerritarrak dira, paperik gabekoak»

Taldeko emakumeen egoera hobetzera zuzendutako lan-taldeen ekarpenak.

Adierazitako hobekuntza-esparruak zenbait motatakoak dira. Emakumeei eta berekin lan egiten duten elkarteei dauden zerbitzuei eta baliabideei eta sare-lana egitearen interesari buruz informatzea. Halaber, gizarteari informazioa ematea, gizarteak prostituzio-fenomenoa hobeto ezagutzeko, eztabaida pizteko eta gizartea sentikortzea errazteko.

Osasunaren esparruari dagokionez, osasun-laguntza erabilgarriago izatea, seguruak ez diren jardueren arriskuak prebenitzea eta haien aurrean sentikortzea nabarmentzen dira. Segurtasunari dagokionez, emakumeen segurtasun fisikoa hobetzeari buruzko iradokizunak ere biltzen dira.

Gizarte-laguntza esparruan profesionalak trebatzea eta zenbait motatako baliabideen erabilgarritasuna hobetzea aipatzen dira, esate baterako bizilekua, oinarrizko estaldura publikoak eta bizitoki-baliabideak. Halaber, hobekuntzak proposatzen dira erroldatzeko aukerei eta legeztatze-prozesuekin erlazionatutako iruzurrak prebenitzeari dagokienez.

Laneratze-gizarteratze esparrua ere aipatzen da, eta alde horretatik ibilbide pertsonalizatuei buruzko iradokizunak biltzen dira, hau da, jarduera utzi nahi duten pertsonen egokitutako ibilbideei buruzkoak.

Azkenik, harremanetan jartzeko guneak sendotzea eta elkartze-jarduerak garatzeko laguntza ematea ere aipatzen dira hobekuntzak egiteko bide gisa.

BIBLIOGRAFIA

ESPAINIAKO ZIGOR KODEA (1995) VIII. titulua, V. kapitulua

DEBATE SOBRE PROSTITUCIÓN Y TRÁFICO INTERNACIONAL DE MUJERES. REFLEXIONES DESDE UNA PERSPECTIVA DE GÉNERO. A. Bolaños, N. Parrón, E. Royo, J.M. Santana. Medicus Mundi. 2003

EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOAREN FENOMENOA DONOSTIAN. Emakumeentzako udal-zerbitzua. Donostiako Udala. 1990

EL OFICIO DE LA PROSTITUCIÓN EN NAVARRA. ESTIGMA Y MODOS DE VIDA. Hainbat egile. 2003

EXCLUIDAS Y MARGINALES. UNA APROXIMACIÓN ANTROPOLÓGICA. Dolores Juliano. Cátedra. Madril. 2004

LA CONSTRUCCIÓN SEXUAL DE LA REALIDAD. Raquel Osborne. Cátedra. Madril. 1993

PROSTITUZIOAREKIN ERLAZIONATUTAKO HITZALDIAK ETA TXOSTENAK. Askabide

LA PROSTITUCIÓN DE LAS MUJERES. Emakumearen Institutua. 1998

EMAKUME PROSTITUZIOA EAE-N. Emakunde. 2002

EMAKUME PROSTITUZIOA DONOSTIALDEAN. A. LasHeras, J. Biurrun. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Zerbitzu Saila. 1998

URTARRILAREN 11KO 4/ 2000 LEGE ORGANIKOA, ATZERRITARREK ESPAINIAN DITUZTEN ESKUBIDEEI ETA ASKATASUNARI ETA BEREN INTEGRAZIO SOZIALARI BURUZKOA (ATZERRITARREI BURUZKO LEGEA)

«MUJER PROSTITUIDA, UNA ALTERNATIVA PARA SU REINserCIÓN». M.R. Nieto Rubio. *Jornadas de psicología de la intervención social.* Madril. 1991

PROSTITUCIÓN POPULAR: RELATOS DE LA VIDA: ESTUDIO SOCIOLÓGICO BIOGRÁFICO. Negre i Rigol. Fundació Caixa de Pensions. Bartzelona 1998

TRABAJADOR@S DEL SEXO, DERECHOS, MIGRACIONES Y TRÁFICO EN EL SIGLO XXI. Raquel Osborne (Ed). Bellaterra. Bartzelona 2004

INTERNETETIK HARTUTAKO ORRIAK ETA ARTIKULUAK

www.aceca.info

www.andalucía.es

www.anela.cc

www.apramp.org

www.catteleia.com

www.colectivohetaira.org

www.hombresabolicionistas.org

www.mujeresenred.net

www.mtas.es/mujer

www.sevilla.org

«DE LA INVISIBILIDAD A LA PAESTRA». Joana García. 1996 www.diagonalperiodico.net

«LA ALIANZA ENTRE SINDICALISTAS Y PROSTITUTAS». Mamen Briz. 2007
www.rojoynegro.info

«LA REGULACIÓN DE LA PROSTITUCIÓN EN LA LEGISLACIÓN COMPARADA». Patricia Canales. 2005 www.bcn.cl

«LA REGULACIÓN DEL NEGOCIO SEXUAL». Maricel Chavarri. 2006 www.lavanguardia.es

«POR LOS DERECHOS DE LAS TRABAJADORAS DEL SEXO». Cristina Garaizabal. 2006
www.vientosur.info

«POR LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS TRABAJADORAS DEL SEXO». Manifiesto 2006
www.genera.org

INTERNETETIK HARTUTAKO DOKUMENTUAK

UZTAILAREN 14KO PRE/335/2003 AGINDUA, PROSTITUZIOA GAUZATZEN DEN LOKAL PUBLIKOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA EREDUA ONARTZEN DUENA. Kataluniako Generalitatea. 2003

SEXU ZERBITZUEN LEGEA. Kataluniako Generalitatea. 2004

BARTZELONAKO ESPAZIO PUBLIKOAN HIRITARREN BIZIKIDETZA SUSTATZEKO ETA BERMATZEKO NEURRIEN ORDENANTZA. Bartzelonako Udala. 2006

SEXU LANA BERE OSOTASUNEAN HARTZEN DUEN PLANA. Bartzelonako Udala. 2006

PROSTITUZIO JARDUERA DUTEN ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEI BURUZKO TOKIKO ORDENANTZA. Bilboko Udala. 1999

ESPAZIO PUBLIKOETAN JARDUTEARI BURUZKO ORDENANTZA. Valentziako Udala. 2005

PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LA INTERVENCIÓN SOCIAL CON LAS MUJERES (LÍNEAS GENERALES DEL PLAN MUNICIPAL CONTRA LA EXPLOTACIÓN SEXUAL). Manuela García, Azterlanen eta Programen Unitate Teknikoko burua. Madrilgo Udala. 2004

INFORME DE LA PONENCIA DE ESTUDIO SOBRE LA PROSTITUCIÓN EN CASTILLA-LA MANCHA. Gaztela-Mantxako Parlamentuko Emakumearen Batzorde Iraunkorra. 2006

LA PROSTITUCIÓN: REALIDAD Y POLÍTICAS DE INTERVENCIÓN PÚBLICA EN ANDALUCÍA. Andaluziako arartekoa. 2002

PLAN DE ATENCIÓN A LA SALUD DE LAS PERSONAS QUE EJERCEN LA PROSTITUCIÓN. Andaluziako Junta. 2003

TRÁFICO DE SERES HUMANOS CON FINES DE EXPLOTACIÓN SEXUAL 2003 Y 2004. Guardia Zibilaren Polizia Judizialaren Unitate Teknikoaren Analisisien Saila. 2005

INFORME DE LA PONENCIA SOBRE PROSTITUCIÓN EN NUESTRO PAÍS. Senatuko Batzorde Berezia. 2007

UN SECTOR SUSCEPTIBLE DE DOBLE MARGINACIÓN: MUJERES MAYORES QUE HAN EJERCIDO LA PROSTITUCIÓN. REINSERCIÓN O PERMANENCIA. Anna Freixas (koord.) 2006. Emakumearen Institutua.